AITA LUIS VILLASANTE, O. F. M.
Euskaltzaindikoa

"Nere izena zan Plorentxi"

Angeles Sorazuren bizitza

Estalkia: Aita J. L. Iriondok, O. F. M.

Itxaropena Argitaldaria
ZARAUTZ'EN
1961

N.º DE REGISTRO 6732—60

Impresos en los Talleres Tipográficos Icharopena - F. U. - Zarauz

NIHIL OBSTAT
Fr. Petrus Aranguren, O. F. M.
Censor Ordinis
Zarauz, die 10 Novembris 1960

IMPRIMI POTEST
Fr. Benedictus Mendia, O. F. M.
Min. Prov.
Sancti Sebastiani, die 25 Novembris 1960

NIHIL OBSTAT
Lic. Romanus Laspiur
Censor
Sancti Sebastiani, 7 Decembris 1960

IMPRIMATUR
Sancti Sebastiani, 9 Decembris 1960
Dr. Josephus Sudupe
Vic. Gen.

EGILLEAREN AITORRERA

Egillea erabat jartzen da Urbano VIII-garren eta Eliza Ama Santuaren agindu eta esan guztietara, seme zintzo bezela. Eztu ba bere iritziekin Eliza Amarenari traba egin nai. Iñoiz Elizak Angeles Sorazu doatsuaz epairik emango balu, gogo onez eta bete-betean onartzen degu gaurdanik ark erabaki lezakena.

Tolosa-Zumayako Erretore Jaunen
eta Donostiako Euskal Mintegiaren
laguntzarekin
ateratzen da
ANGELES SORAZU-ren Bizitza au.
Eskerrik beroenak danoi

Egilleak

Itzaurrea

"Nere izena zan Plorentxi" (1). *Bai, izen onekin zan ezaguna gure artean. Gurea degu, euskalduna lau aldetatik, eta ala ere zein gutxi dira gure errian Ama Sorazuren berri zerbait dakitenak! Orregatik, gure zabartasun onek min ematen zidalako eta barneak eskaturik, prestatu nai izan det liburutxo au, ark bere ezpaiñetan erabilli zuen izkuntza berberean.*

* * *

Bizi dira oraindik Angeles Sorazu ezagutu zuten banaka batzuek. Zumayan degu Faustina Yeregi, Tolosan, Encarnación Vidal. Eta Bilbon, Jose Maria Olaizola, Kanonigo Jauna. Au bere gazte-denporan Valladolidko Jesuitetan ibilli zan bere ikasteak egiten. Apaiz-karrera ere ango Seminarioan egiña da. Bera zumayarra izanik, udako barkaziotan bere jayoterrira etortzen zan. Eta utsik egin gabe, bai errira etortzean eta bai erritik Valladolidera itzultzean ere, agertu bat egin bear izaten zion Konzezioko Mojen Abadesari. Abade-

(1) «Me llamaba Florencia» (Autobiografía, p. 23).

sa au, garai artan, gure Plorentxi zan. Zumayako bere aideekin —Encarnación Zubiarekin batez ere— eta baita Zumayako Parrokuarekin ere —D. Manuel Beobide zan au— artueman aundia izaten baitzuen Ama Sorazuk. Eta Olaizola apaizgai gaztea izaten zan Valladolidtik Zumayara eta emendik ara batzuen eta besteen paperak, eskumiñak eta olako eramaten zituana.

Olaizola jaunari gure Plorentxiz galdetu nionean, ara zer esan zidan: "Nere artu-emanak oso axalekoak izan ziran. Nik ez nuen bein ere ezer arrigarrizkorik sumatu beragan. Moja korrientea zan oso." "Gogoan det —esaten dit gero— Zumayako eliz-parrokiren erretratu bat eraman niola bein. Erriko parroku jaunak eman zidan beretzat, berak eskatu ziola-ta. Oe-ondoan eukitzen omen zuan, bere bataioaz gogoratzeko. Ementxe egin ninduten zeruko erregiña *edo olako zerbait esaten omen zuan Plorentxik erretratu ura begiratzean. Baiña nik, egia esan, olako gauzei eznien batetxo ere inportantzirik ematen orduan, Mojen txotxolokeriak-edo iruditzen zitzaizkidan..."*

Ez, eztira txotxolokeriak. Ama Sorazuk ba-zekian bere bataioa aintzat artzen: ori da guztia. Bataioan ematen zaigun azia zaitu, landare biurtu, alea emateraiño ekarri, orixe besterik ezta kristau santutasuna. Ezkur batetik aritza nola sortzen dan? Ba alaxe bataioko graziatik ere etorri oi da, azi oni laguntzen badiogu, orain santutasuna eta gero zeruko gloria.

Detxepare euskal olerkari zaarrak (1545) *ba-*

-du bere olerkietan ahapaldi bat ukigarria bataioko gai ontaz:

"Eliçara içanian soeguic bateyarrira
Pensa eçac han duyala recebitu fedia
Ieyncoaren gracia eta salvaceco vidia
Hari eguin albaiteça lehen eçagucia".

Esan nai du, alegia, elizan sartzean gure lenengo begirada bataioarrira izan dedilla, eskerronezko begirada, gaiñera: antxe eman baitziguten Jainkoaren grazia, fedea eta salbatzeko eskubidea. Jainkoaren aurrak egiñak izan gera, bere etxetiarrak, berakin elkartasunezko bizitzarik estuena izatera deituak izan gera. Ezkurra eztedilla, ba, beti ezkur gelditu, iñoiz pontean artu genuen azi ori bere eldutasunera eraman dezagula.

* * *

Makiña bat gauza arrigarri arkitzen da Ama Sorazuren bizitzan. Mistikak ezagutzen dituen gandorrik gorenak zapaldu zituen emakume euskaldun onek. Egiazkoak ote dira gauza auek, Jainkoak ziñez egiñak, ala berak asmatuak edo amestuak? Ez al ditezke berez gertatu, burua otoitz-bidean geiegi nekatzen danean, batez ere gorputza erkiturik badago eta osasun gutxirekin? Nik eztet uste Sorazuren gauzak ola esplikatu ditezkenik, baiña, jakiña, azken itza, auzi ontan, Elizari dagokio. Beti izan dira olako eztabaidak Mistikuen inguruan. Avila doatsuak bere denporan Santa Teresari egin zion eskutitz batean ara zer dion: "Batzuentzat ezta siñisgarri Jainko alguzti-

duna orrenbesteraiño jetxi ditekenik, bere kreatura batekin orrenbesteko artu-emana izateraiño, alegia. Baiña ez sinisteko arrazoirik eztet billatzen. Ez al dago idatzirik Jainkoa Amodio dala: amodio azkengabea, ontasun neurrigabea? Ezta beraz arritzekoa maitasunezko geiegikeriak egiten baditu, Beraren berri eztakitenak aztorau egiteraiñoko geiegikeriak. Eta askok Jainkoa fedez ezagutzen badute ere, baiña Berak nai duenarekin euki dezaken ar-eman maitetsuaren esperientzi ori izan ezpadute, ezin dute asmatu ere noraiñokoa izan diteken adiskidetasun ori. Asko ikusi ditut eskandalurako bide artzen dutenak maitasunezko geiegikeri auetatik. Berak olakotik urruti daudelako, eztute uste Jainkoak berakin egiten eztuena besteekin egin dezakenik. Amodiozko obra arrigarria izatea, berez da seiñale bat obra ori Jainkoagandikoa dala siñisteko, baiña oiek kontrara egiten dute: siñisteko arrazoia izan bear lukena, orixe bera artzen dute aitzakitzat ez siñisteko."

* * *

Eta bitartean, arima goitar oien ezagutzeak noraiñoko mesedea egiten digun, nola duen gure fedea azkartzen! Gaur ez al da egia fedea erdi kordokatua ikusten degula, barne-bizia ere aul ta eskas? Kanpo-aldera ixuriak bizi gera, barreiatuak. Materialismuak azpian artu bear gaitu. Ziñez, gure mundu onek gauza bat du ikasi-bearra: otoitza dala lehen, otoitzak bear duela izan nagusi gure bizitzan: Jainkoari zor zaizkionak bear du-

tela izan lenengo tokia. Eta ain zuzen, auxe da Angeles Sorazuren biziak ematen digun erakutsi aundia.

Klausurako moja-etxe oietako batean eman zuan bere bizia Angeles Sorazuk. Bein baiño geiagotan entzunda nago zozokeri au: "Moja oiek zertako? Gaur, ogeigarren gizaldi ontan, ainbeste lan eta zeregin dagoanean..." Ba oraintxe dira sekula baiño bearrago. Jainkoarekiko gauzen meditatzea eta ausnartzea dute oiek beren lanik aundiena. Berak adierazten diote gaurko gizon aazkorrari, kanpoko zorabioan murgildurik daudenai, auxe dala gure eginbear nagusia: Jainkoa ezagutu, maitatu, Arentzat bizi. Orregatik zion Pio XII garrenak, berak —Moja itxi oiek, alegia— dirala Elizaren zatirik autatuena. Eta orixe bera esan du oixtian oraingo Aita Santuak ere, Juan XXIII garrenak: "Moja itxi oiei zor zaie lenengo tokia Jainkoaren zerbitzuan. Berak erakusten baitigute etengabeko otoitza, gauza guztien eta lagun guztien uko egitea, garratz eta neketsu diranen onartzea, eta azkenik, berak saiatzen dira munduko pekatuakgatik ordaintzen."

Plorentxi, Euskalerriko alaba, erregutu Jaunaren aurrean zure erriagatik. Bere Jainko-fedea ta kristau oiturak gordetzen lagundu zaiozu, arren!

Arantzazun, 1960'ko Azaroan,
Santu guztien egunean.

I

ZUMAYA-N

"Gipuzkoako Zumayan jaio nintzan, 1873-ko Otsaillaren 22-an. Eta urrengo egunean bataiatu ninduten San Pedro Apostoluaren elizan, erriko parrokian, alegia. Geroago, antxe bertan artu nuan Konfirmazioko Sakramentua ere. Etxe pobre bateko alaba naiz. Nere aideetatik geienak arrantzaleak ziran."

Aitak, Mariano Sorazu zuen izena. Amak, berriz, Antonia Aizpurua.

Bataioan Florencia, *Plorentxi* izena jarri zioten. Eta izen onekin izan zan ezagutua gure artean, arik eta moja sartu zan arte. Moja sartzerakoan izen berria artu zuan: "María de los Angeles" (edo motxago, *Angeles*), habitua San Migel aingeruaren egunean artu zuelako-edo. Geroztik izen onekintxe gelditu da.

Plorentxi jaio zanean, karlisten gerrateak sutan zeuzkan bazterrak. Zumayako erriak ere arrisku gorriak izan zituan eta Plorentxiren familiak Zestuako Bañu-etxera joan bearra izan zuan. An bi urte egin zituzten. Baiña bere irugarren urterako Plorentxi berriz Zumayan ikusten degu.

Emen, Zumayan, neska txiki zalarik, Karidadeko Karmeliten eskolara ibilli zan.

Plorentxiren aitak arraia salduaz ateratzen zuan ogibidea. Itxasotik ekarritako arraia bizkarrean artu eta ibillaldi luzeak egin bear izaten zituan, geienetan oiñez, saltzera eramateko, naiz Tolosara naiz beste erri askotara. Garai artan etzan oraingo erreztasunik. Zumayan etzegoen orain bezela trenik, eta bizimodu gogor ori egin bear izaten zuan bere etxekoen mantenua irabazteko.

"Zazpi anai-arreba izan giñan". Bost neska eta bi mutil. Oetatik bi (nexkak) oso gazte il ziran; gaiñerakoak ogei urteetara eldu ziran. Gure Plorentxi irugarrena zan Mariano ta Antoniaren seme-alaben artean. Eta familia ugari eta beartsuetan sarritxo ikusi oi dana: "anai-arreba guztiak naitasun bizia genion elkarri".

"Nere guraso ta arbasoak kristau onak ziran oso. Beti itzegiten ziguten Jaungoikoaz, Ama Birjiñaz eta Santuezaz. Nere bizitzako leen-urteak lenengo kristauen usaieko giroan igaro nituen. Jesus zan gure etxeko buru. Eta nere ustetan Santuak, nere guraso eta aitonak ziran. Etxekoen artean ikusten nituen nik Aita San Jose, San Joakin, Santa Ana, Apostoluak eta baita Loyolako San Iñazio ere, zeiñi aparteko debozioa zion gure familiak. Aurtzaroko urte aietan nabaritu nuen zer-nolako indarra duen kristau fedeak eta zenbateraiñoko balioa duen Jaungoikoari eta Eliza Amari sendo elduta bizitzeak, baita ere somatu nituen Bataioan artutako beste zenbait birtuteen aztarnak".

II

DONOSTIA-N

"Ni bost urteko nintzala, nere gurasoak beren ondasun apurrak galdu egin zituzten. Aitak Tolosan saltzen zuan arraia. Bai arraia erosteko eta bai Tolosaraiño eramateko ere, Donostia leku erosoagoa zala-ta, iri onetara aldatu giñan. Emen egondu nintzan nere amaika urteak bete arte. Aitak Tolosan igarotzen zuan denporarik geiena arraia saltzen, eta an iru edo lau egun egin ondoren itzultzen zan etxera, Donostiara". Garai artarako Norteko trena egiña zegoen eta Donostian biziaz, Zumayatik baiño milla aldiz samurrago atera zezaken arrai ori Tolosara. Dirudianez, Donostiako parte zaarrean bizi ziran. Plorentxik beintzat, San Bizenteren eliza eta Puyuelo-kalea aipatzen dizkigu. Kale onek "Fermin Calbetón"-en izena darama gaur.

Oso aita-zulo omen zan Plorentxi txikia. Aita, esan degunez, ia beti etxetik kanpora egoten zan, Tolosan. Eta Plorentxi beti amari galdezka, aita noiz itzuliko. "Gaur alde, eta orren aguro itzultzea nai den?", erantzuten zion amak. Baiña ura beti urduri aita gabe, eta urrengo egunetan galde-

ra berberakin zetorren. Itzuli bear zuen egunean, etzuen lotara joan nai izaten aita ikusi arte, baiña askotan loak menderatzen zuan. Ordea, lenengo loalditik esnatzen zan bezin laister, pareta eskuakin jo eta amari galdetzen zion ia aita etxeratua ote zan. Amak baietz erantzuten bazion, beste senideak esnarazi eta etzituen pakean uzten pozaren pozaz. Eguna zabaltzen zuanekoxe, aita-amen gelara korrika joan eta aitaren ondoan egotea izaten zan bere poz guztia. Eta aitak ekartzen zizkion jostailluak biziki estimatzen zituan. Aitaren joan-etorri guztietan gertatzen zan istorio au.

Geroago, moja zalarik, Jesusek gogoratu zion Plorentxíri aurtzaroko bere aita-zaletasun ura. Komunioko bere etorreran leia eta amodio berbera nai zukeala adierazi zion.

* * *

Plorentxi txiki-txikitatik azaldu zan azkar eta argi kristau-dotriñean. Doai apartekoa omen zeukan jainkozko erakutsi oiek ikasteko, ulertzeko eta bai besteei azaltzeko ere. Eskolako maestra eta bai beste zenbait ere aurki konturatu ziran ume onen doaiaz, eta bein baiño geiagotan eskatu zioten kristau dotriña beste lagunen aurrean esplikatu zezala.

Betiko gordeko du Plorentxik Kristau Dotriñaganako joera au. Ain zuzen ere, auxe izango da bere santutasunaren oiñarria ta sustraia. Geroago esango du: "Kristau Dotriña? A, amodiorik bizienakin bularrean gorderik daramat. Nere Jainko Jaun-Esposuaren erretratua baita". Izan

ere, zer da Kristau Dotriña? Jesukristok erakutsitakoa bildurik daukan liburuxka. Beraz, kristau oso-osoak, erabatekoak eta are santu aundiak izateko ere, eztegu au bezelako erregebiderik.

III

TOLOSA-N

"Donostian bizi izan giñan bitartean, gaitzaldi gogorrak ezagutu zituan gure familia gaixoak. Ori dala-ta, eta bi aizpatxoen eriotzak eman zigun pena arintzeagatik, Tolosara aldatu giñan". Zumayatik Donostiarako aldatzea, 1879'gnean. izandu zan. Donostiatik Tolosarakoa, 1883-an.

"Bai aurtzaroan eta bai gazte-denporan ere, gaiso bat baiño geiago ikusita nago, gaiso luzeak, gaiñera, eta ia beti bizi nintzan miñetan, bai gorputzaren eta bai arimaren aldetik". "Aldi artan eztet uste beste onik egin ote nuan auxe baizik: Jainkoak bidalitako samiñak pazientziz artu ta eraman, aren Naiari menpetasun osoa erakutsi".

Amaika urtekin, Tolosan, lendabiziko Jaunartzea egin, eta Mariaren Alaben alkartasunean sartu zan. "Geroztik illabete guztietan kofesatzen nintzan, eta sakramentu au artzerakoan jainkozko zerbait somatzen nuan nere ariman. Urrengo egunetan Jainkoarekin elkartuta eta etengabeko otoitzean irauten nuan, arik eta falta oartu bat egin arte. Orduan, eta falta orrek ematen zidan biotzeko arrak eragiñik, Jainkoagandik urrundu

egiten nintzan eta otoitza laga egiten nuan. Uste nuen, bearbada, otoitz egiñaz Jainkoari atsegin baiño naigabe geiago emango niola. Baiña eguneroko beste kristau egikizunak, oiek bai, egiten nituan: obren eskeintza, ta olako".

Amairu urtekin neskame jarri zan Donostiako etxe batean. Urtebete bakarrik egon zan neskame, eta urte orretan gorriak pasatu zituan, bai etxetik kanpora arkitzen zalako eta bai gose galantak ikusi bear izan zitualako ere. Berriz etxera biurturik, Tolosan bertan sartu zan langille edo obrera bezela, Antonio Elosegi jaunaren txapelfabrikan. Geroztik, bada, eta moja sartu zan arte, txapelgin izan genuen gure Plorentxi. Txapelgintzako ofizio onetan trebea ta azkarra omen zan, eta iñoiz Maria Cristina erregiñaren eskutik sari bat jaso ere zuen, bere zintzotasunaren pozgarritzat.

* * *

Eta orra Plorentxi amabost urteko adiñera eldua. Orduan bere anai zaarrena Joxe Manuel praille sartu zan (Galiziako Franziskanuetan, Hermano bezela). Gero Palestinako Lurralde Santura joan, eta an prailleen gaisotegiko lanak egiten urte luzeetan bizi izandu da; 1948-an il zan: bere praille-izena, Fr. Pedro Regalado Sorazu. Aizpa zaarrena, berriz, Kontxesi, Donostiara joan zan osabekin bizitzera. Eta ala Plorentxi geratu zan etxean anai-aizpetan zaarrena.

Eta zeiñek esan bear zuan? Ordurarte guztiz elizkoi, Jaungoiko-zale, isil, maratz eta zeruko

gauzetara emana genuena, beingoan jarri zitzaigun munduko jolasetara biurtua. Batez ere dantza omen zan bere griña. "Amabost urtetik amasei urtera jentilla bezela bizi nintzan, Mariaren Alaben eginbearrak utzirik, eta bai beste jainkozko egikizunak ere. Dantza-goseak ezninduan pakean uzten". Esan bear da alare, garai artan etzala gure errietan ezagutzen dantza askatua besterik, eta Plorentxiren dantza-goseak etzuala zer-ikusirik garbitasunaren kontrako pekatuekin. Baiña ondotxo igartzen zuan Plorentxik etzala ura Jainkoak beretzat nai zuan bidea. Eta meza entzuten zuan bakoitzean eskatzen zion Jaunari egiazko konbersio bat eman zezaion.

IV

ERROMERIA LEABURUN

"Anai-arreba guztiak asko nai genion elkarri eta bata bestearekin jolastutzen giñan, bai etxebarnean eta bai kanpoan. Aita ta amak uzten ziguten albo-errietako erromerietara joaten, erri oietan Santu edo Patroiaren pesta-eguna ospatzen zanean. Anai-arreba danak joaten giñan, baiña ez beti elkarrekin. An bertan biltzen giñan merienda jateko, dantzan egiteko eta batez ere etxerakoan elkarri laguntzeko. Anjeluserako etxean egon bearra genuen, gure guraso maiteak ala agintzen ziguten".

Plorentxik amasei urte ditu. San Pedro Apostoluaren jaia zan, 1889-ko Garagarrillaren 29. Leaburu-n erromeria. Leaburura dijoa Plorentxi bere lagun batzuekin. Uste du Leaburun bertan ikusiko dituela Kontxesi, bere aizpa zaarra, eta Joakin Luis, bere anaia. Baiña ez. Ez bata eta ez bestea etziran egun artan erromerian azaldu. Tolosako plazan jolastu ziran eta gero garaiz etxeratu. Plorentxi bakarrik arkitzen zala oartu zanean, saiatu zan bere anai-arrebak bezin goiz etxeratzen, baiña alperrik. Eldu zaneko, Anjelusa as-

palditxo zan pasatua eta bere anai-arrebak barrutik ziran danak.

"Anai-arrebak ni gabe etxean sartu ziranean, nere ama laztana larritu zan oso. Nik ezer gaitzik pentsatu gabe, luzatu nizkion beretzat eta aitarentzat Leaburun erositako erroskillak, baiña amak, itzik esan gabe, ukatu egin zizkidan. Nik, berriz, artzeko, eta ark berriz ezetz, eta oraingoan itz auek jaulki zitzaizkion: *Ez nuen sekula uste zu mundutar izango ziñanik. Begira zazu nola bizi dan zure aizpa, len beti jolasetan zebillena.* Ala zan. Lenago nere aizpa beti zebillen etxetik atera-naiez, dantza ta jolasen atzetik (jolas onak, jakiña), eta ni orduan ba-zirudian bakartaderako jaioa nintzala. Gero, berriz, ni dantza-zale amorratua biurtu nintzanean, ark elizkizunetan zeukan bere biotz guztia. Ori zan amak gogoratu zidana. Amaren itzok arri egiñik utzi ninduten. Argi-argi irakurri baitnuen itz oetan nere amaren etsipena ta naigabea, ni mundu-zale biurtu nintzalako".

"Nere kuartoan sartu nintzan. Lendabiziko aldiz ikusten nuan ama gaisoa nere kulpaz naigabeturik. Txiki-txikitatik santu izateko izan nuen gogo ura berriz gogoratu nuen. Gogoratu eta berritu. Berriz erabaki nuen Jainkoarena izan bear nuela oso-osorik, beti-betiko. Lenago ere olako asmoak izanda nituen, baiño nere aultasunaz ez nintzan bat-ere fidatzen, eta ala uste nuen Jainkoaganako biurtze ori laga egin bear zala, arik eta ogeita bost urte izan arte. Pentsatzen nuen urteak ekarriko zidatela indarra ta kemena Jain-

koari leial irauteko; eta bitartean etzegoela ezer egiterik.

Eta orain ez ote zan garaia? Nere barnean bultza bizia sentitzen nuan. Baiña urteak, or zegoan oztopo bakarra, ene ustez. Bederatzi falta, ogeitabosteko mugara eltzeko. Nere bizitzako urteak ain luzeak izatea, ain geldiro joatea, zoritxarrik aundiena iruditu zitzaidan. Azkenean ara zer erabaki nuen: erdiko bidetik ibiltzea: santutasun-bidea eta munduko jolasak elkartzea (sekula ikasi eztedan jokabidea bada ere). Beraz, jaiegun arratsaldetan elizkizunetara joango nintzan, gero erriko jolasetara, eta illuntzean garaiz etxean sartu. Auxe izan zan nere erabakia, eta biaramonetik alaxe egiten asi nintzan. Jainkoak, ordea, besterik zeukan gogoan. Ba-zekian nunbait nere etorkizuna arriskutan arkitzen zala munduan eta nik oso-osorik bear nuela izan edo Jainkoaren edo Munduaren, osoa, ez zatitua, osoa Osoarentzat, eta neretzat etzegoela erdiko kaletik ibiltzerik".

V

JAINKOAREN ORDUA

"Uztaillaren 2-an neskatx elizkoi batzuen artean nintzan. Neskatx aetatik geienak ba-zekiten Jainkoa eta mundua elkartzen. Baiña ba-zan beren artean bat, benetan eta sustraitikan jainkotiarra zana. Ni ez beste guztiak mintzatu ziran; ni, nere oiturari jarraituaz, isillik egon nintzan, ezpainaiz sekula berritsu izan.

Beste zeren artean mintzatu ziran kofesio jeneralaz, zeiñen samur egiten dan, ta olako. Nik askotan aditu izan nion nere amari kofesio jeneralak zer mesede egiten duen eta nola komeni dan egitea, batez ere bizibide berri bat artzerakoan. Eta lenbiziko aldiz ori entzun nuanean orrelako kofesio bat egitea ere erabaki nuan, baiña Jainkoagana biurtuko nintzan egunean, nere 25 urteak betetzerakoan, noski. Baiña iruditzen zitzaidan lan gogorra ta astuna izango zala. Ezaguera ta damutasuna ere, ez nolanaikoak, baiñan arrigarriak ta apartekoak bearko zirala, kofesatzera ere bein baiño geiagotan bearko zala azaldu, ta abar. Galdetu nuen ba ea kofesio jenerala egitea orren

gauza erreza ote zan. Eta len aipatu dedan emakume Jainko-zale ark erantzun zidan baietz, eta gaiñera bere kofesorea oso trebea zala arazo ortan, eta nik nai izate ezkero, berak deituko ziola egun ta ordu jakin baterako. Erantzun nion biaramonean egingo nuela gustora bere kofesore orrekin.

Baietza eman bezain laister, ordea, izugarrizko burruka sortu zan nere barrenean. Bi izpiritu edo joera ezberdiñen arteko burruka. Batak eskatzen zidan emandako itza erretiratzeko, etzalako on nere konbersioa ordua baiño len egitea; ogeita bost urteetara eltzerakoan egingo nuela, eta ez leenago. Bestea, berriz, aurki azaldu zan jaun eta nagusi ene ariman, eta emandako itza betetzera beartzen ninduan. Jainkoaren ordua eldua zala adierazten zidan, eta luzapenik gabe nere aspaldiko santutasun-asmoak bear nituela zertu. Laister ezagutu nuan azkeneko au aterako zala garailari eta beronen indar eragillearen alde jarri nintzan. Ziñez Jainkoaren ordua zan. Urte askotan erabillitako kateak bein betiko urratzen dituan gatibuaren antzera, alaxe arkitu zan nere arima, zeruko graziari "bai" esaten asi nintzanetik: ezin esan alako zabaltasun eta atsedena nabaritzen nuan, eta ba-zirudian noizbaitean nere artan jarria nintzala.

Joan nintzan etxera, eta pozez gaiñezka nere soiñekoa erantzi, eta beste bat jantzi nuan, illunagoa; eta "beata"-antzo orraztu nintzan. Gero lagunei ots egin eta nere aldatzearen berri eman nien, eta esan ere bai: nere bidea artu nai izan

ezkero, lagun izango giñala, orain artean bezelaxe; baiño bestela, nerekin etzezatela kontatu. Ta batek bakarrik jarraitu zidan kofesio jenerala egitera. Munduko traba oiek bein ausi ezkero, prestatu nintzan kofesiorako, eta erreztasunik aundienaz burutu nuen: egun askoko lana iruditzen zitzaidana ordubetean aisa egin nuen.

Aitortegitik alde egitean pozez zoratu bearrean arkitzen nintzan. Zer gertatzen zitzaidan ez nekiala. Ba-zirudian Jainkoaren eta Ama Birjiñaren onginaia zeru-goietan arimako begiekin ikusten nuela. Nere aitortza Jesusen Biotzaren lana izan zan. Bere Biotzeko leuntasun eta gozotasuna erakutsi zidan, bai kofesioan eta bai penitentzian ere, au ezpaitzan iru Agur-Maritik gorakoa izan".

VI

KONBERSIO-ONDOKO BIZITZA

Orra Plorentxi zearo Jainkoagana itzulia. Arrezkero, eta Moja sartu zan arte, Jainkoarentzat biziko da oso-osorik, mundukeria guztiak bein betiko eta erabat bazterreratuaz. Fabrikako bere lanera joaten zan len bezelaxe, eta libre gelditzen zitzaion astia elizan edo etxean, deboziozko ta otoitzezko zeregiñetan ematen zuan.

Etxeko kuartorik atzenena artu zuan beretzat. Jarri zuan bertan aldare txiki bat, Gurutzea, Jesus eta Mariaren Biotzen imajiñak, Sortzez Garbiarena, ta abar; eta ara ezkutatzen zan denpora libreetan bere Jainko-zeregiñak egitera. Bearrezkoaz kanpo etzuan itzik esaten. Etzuan jendeakin premiazkoa beste artuemanik, ezta bere senideekin ere.

Bakar-bakarrik Jainkoarentzat bizi zan: Aren Naia ezagutu eta bete: ori zan bere asmoa. Jesusen Biotzaren debozioa izan zan bere lenbiziko santutasun-bidea. 1889-ko Uztaillaren 3-an egin zuan bere kofesio jenerala, eta 5-ean sartu zan Otoitzaren Apostolutzan. Aurki asi zan Jesusen Biotzari arimak ekartzen eta "celadora" izendatu

zuten. Bigarren santutasun-bidea, Jainkoak erakutsi ziona, Asisko Aita San Frantzisko imitatzea izan zan, eta Kristori berari, Santu onen bitartez jarraitzea. Eta debozio auek, Jesusen Biotzarena eta San Frantziskorena, Ama Birjiñaren begipean izaten ziran, Ama onen omenezko zeregiñetan ematen baitzuen denpora geiena.

* * *

Ara zer moduzkoa zan Plorentxiren eguna. Goizaldeko lau edo bostetan jaiki eta bere gelan egiten zituan debozio batzuek: Jainkoari, Ama Birjiñari, ta abar. Gero elizara joaten zan, an Jauna artu eta bi Meza entzuten zituan komulgatorioko aldarean, Jesus Sakramentaduaren eta Ama Birjiñaren aurrean (aldarea Jesusen Amari zegoan eskeiñia). Otoitzean ere aritzen zan bere gisa, eta gero etxera, eta eguneko fabrika-lanetara. Fabrikan ere saiatzen zan Jainkoaren begipean egoten. Ama Birjiñari Agurmari asko errezatzen zizkion, eta Letaniako tituluen gaiñean gogorazio batzuek egiten zituan, Ama Birjiñarekin bizitzeak daukan gozotasuna ausnartuaz. Jesusi ere eskabide asko egiten zizkion lanean ari zan bitartean: pekatarien, iltzeko zorian daudenen eta Purgatorioko arimen alde. Batez ere, ordea, gazteengatik zan bere erregua: bera noizbait ibilli zan bezela, munduko jolasetan sarturik dabiltzanen alde. Danak nai lituzke Jainkoagana ekarri, bere zorionean parte izan zezaten.

Bazkal ondoan libru espiritual oietako batean irakurraldi bat egin, eta gero jolas pixka bat ema-

ten zion bere buruari zerura begiratuaz. Gero, berriz lantegira, goizean bezelaxe. Arratsaldeko zazpiretatik zortzi t'erdietara elizan egoten zan: an Errosarioa errezatu, apaiz jaunak pulpitutik irakurtzen zuan Santuaren bizitza aditu, Kalbarioak egin, Aldareko gure Jaunari lagun egin, eta beste debozio-mota batzuek egiten zituan. Zortzi t'erdietatik bederatzietara etxera joaten zan. An apaldu, arratseko otoitzak egin, eta lotara.

VII

OTOIZBIDEAN SARTUA

Andik bi illabetera-edo, Meditazioa deritzan otoitzean sartu zan. Meditazio orren gaia, Kristoren Pasioa izaten zan. Arratsaldeko bostetan (fabrikan zegoelarik), asten zan Jesusen azken aparitik. Zazpiretan elizara joaten zan eta an jarraitzen zion meditatzeari. Apalondoan, bere kuartoan, Getsemaniko baratzeko otoitzaldia, eta Jesus preso artua nola izan zan gogoratzen zituan. Pentsamendu onekin loak artzen zuan. Gauean esnatzen baldin ba zan, ekiten zion gai berari. Goizean berdin, Pasioko gertaerak, azoteak arte. Lantegiko lan bitartean, Pasioko goraberatan jarririk zeukan gogoa. Amabietatik ordubatetara Kalbarioak egiten zituan. Ordubatetan jan, irakurraldi bat egin, eta berriz lanera. Arratsaldeko orduak, bostak arte, Ama Birjiñarekiko bere eginbideak eta beste debozio batzuek egiteko artzen zituan. Bostetan berriro Pasioko meditazioari asiera eman.

Liburu batzuetaz baliatzen zan bere meditaziotarako eta arimari janari emateko. Mesede geien egin ziona, Aita San Franziskoren bizitza.

Egunik geienetan barautan egoten zan ordubatak arte, Pasioko meditazioa bukatu arte, alegia: meditazio onekin zegoan bitartean ezpaitzion gorputzari lasaialdirik eman nai.

Jesusen Nekaldiak malkoak ugari aterazi egiten zion. Elizan beti egoten zan belauniko, eta gaiñera belaungorritan zoru-gaiñean. Ba-zekian Jainkoarekin etengabeko jardunean egotera deitua zala. Arrotz jotzen zuan bere burua munduan, eta beti belauniko edo zutik egoten zan, Jaunaren deia noiz entzungo, ernai dagoanaren antzera.

Noizik bein kontenplazio deritzan otoitz-mota ere eman izan zion Jaunak. Eta basamortura joateko gogoa piztu zitzaion, kontenplazioko doai ori aurrera eramateagatik. Bere lagun izandako batek —Encarnación Vidal: bizi da oraindik— gogoan du nola esaten zuan Plorentxik: "Ni Uzturre mendian biziko nintzake gustorik aundienaz"...

* * *

Bein kofesoreak agindu zion aldamenean aitortzak entzuten ari zan apaizarengana joateko. (D. Franzisko Telletxea zan Plorentxiren kofesorea; bere kofesio jenerala entzun zuan arako ura. Eta aldameneko aitortegi batean kofesatzen ari zana zan D. Martin Barriola, Anoetako erretorea. Denak santutzat zeukaten apaiz jaun au). Plorentxik etzion barruko zerik azaldu, baiña alere basamortura joateko zeukan gogoa eta bere asmo denak igarri omen zizkion. Apaiz santu onek, ba-

da, esan zion klausurako moja-komentu itxi oietako batean arkituko zuela berak gogo zuen basamortu ori. Plorentxik erantzun zion bere gurasoak etzutela dirurik berari dotea emateko.

Eta gero jakiñarazi dio bere kofesoreari ere D. Martinek esandakoa. D. Franziskok ontzat eman zuan aren iritzia eta komentura dote gabe sartzeko bide bat erakutsi ere bai: adirazi zion, alegia, musikako ikaskizun batzuek egin zitzala eta gero "cantora" naiz "organista" bezela sartu zitekeala. Gurasoak ere ontzat artu zituzten iritzi auek, eta ala erebaki zan Plorentxiren bokazioa. "Cantora" izateko ikaskizunok Felipe Gorriti jaun ospetsuak eman zizkion Plorentxiri. Ordura arte Plorenxik ez omen zuan sekula moja izateko burutaziorik izan. Jainkoaren Naia bete zedilla: ori zan aren asmo bakarra.

VIII

TOLOSAKO AZKEN URTEA

Urtebete gutxi gorabera igaro zuan Plorentxik bere bizimodu latz ortan, Jainkoarentzat oso-ososorik biziaz. Somatzen zuan, alere, zerbait eskatu nai ziola Jainkoak: bere barnea Aita kofesoreari idiki zezaiola, alegia. Bere arimako asmoak, yoranak, eta Jainkoagandik artzen zituan mesedeak: ori danori Jainkoaren mandatariari jakin arazi zezaiola eskatzen zion graziak. Baiña ain zuzen ere, orixe zan ba Plorentxiri geiena kostatzen zitzaiona. Bere pekatuak eta utsegiteak azaltzen zituan, baiñan beste gauza oiek? Ezin, iñola ere. Zertako, gaiñera? Lotsatia eta izutia zan oso. Iruditzen zitzaion argitasun eta mesede oiek ezlituzkela Jainkoak egin bear bera bezelako pekatari bati. Ondo garbi ikusten zuan santutasun goratu ta aundi batera deitzen ziola Jainkoak, eta ori etzitzaion tajuzkoa iruditzen. Or dira —esaten zuan berekiko— arima errugabeak eta zintzoak: beude oientzat goratasun oiek. Beretzat ez ote zan naikoa eta geiegi grazia arruntean bizitzea? Nolanai ere, bere ixilpeko guztien agertzea eskatzen zion Jainkoak eta berak ere nai zuan Jaunaren

borondate ori bete, baiña au lana!, ezin. Oztopoak jartzen zitzaizkion alde guztietatik. Kofesore arekin ezin iñondik ere. Beste batekin asi bearko, ia samurrago egiten zitzaion...

Munduko txorakerietatik irtetzen lagundu zion emakume ura, orain erdi aserre zebillen berakin, kofesorea zala ta etzala. Bere ustez, Plorentxiri kasu geiago egiten zion, berari baiño. "Oa berakin, eta ni beste batekin asiko naun", erantzun zion Plorentxik. Baiña ez lengoari eta ez oraingo berriari etzion bere barnea azaldu. Nai izanda ere, etzuan artarako biotzik izan. Kukildu eta atzeratu egiten zan beti ere.

Beste aldetik, tentazio gogor bat gertatu zitzaion garai artan: Jainkoaren bidea utzi eta munduko txorakerietara biurtzeko tentazioa. Tentazioaren imurtxia somatzea gauza bat da, noski, eta tentazioak adierazten duena ontzat ematea beste bat; baiña Plorentxik etzekian ori bereizten. Esker beltzezko pekatu ikaragarri batean eroria zala iruditu zitzaion. Mundua mundu danezkerotik sekula gertatu eztan bezelako pekatu larria. Beraz, naspillik bildurgarrienean sartu zuan bere burua. Bere ustez, etzegoan ezer egiterik, pekatu arentzat ezpaitzan parkaziorik. Salbazioko bidetik beti-betiko aldendua ikusten zuan bere burua. Nork esan zenbat kezka eta biotzeko samin irentsi bear izan zituan?

Artu zuan berriz ere lengo Arimako Aita, igazko ura. Alperrik, ez bati ta ez besteari ezin bere barnea zabaldu. Isiltasun ta itxitasun onetatik zetorkion bere kalte guztia. Orrelaxe igaro zuan To-

losako azken urtea: barnea illun, Jainkoarekiko gauzak batere gozorik gabe egiñaz, baiña munduko txorakerietara itzuli gabe, alere.

Eta ori gutxi balitz, beste zorigaitz ikaragarri bat gertatu zitzaion: aizpa zaarrenaren eriotza. Ogeita bat urtera iritxi-berria zan Kontxesi gaisoa, eta goizetik gabera gaitzak eraman zuan. Latzak ikusia zan Plorentxiren familia, baiña ez zitzaien egundo orrelako samin gogorrik gertatu. Ain zuzen, egun aietantxe zebillen Plorentxi moja joateko prestamenak egiten, baiña aita-amei lagun egitearren, sei illabete geiago geratu zan etxean.

Kantora bezela sartzeko asmotan zegoan. Ikaskizunak egiñak zituan Gorriti jaunarekin. Boza ere artarakoa omen zeukan Plorentxik, aparteko bikaiña. Eta an zeuden bere zai Valladolidko Konzezionistak. Dote gabe ere, kantora izatekotan, pozik artuko zutela gaztiatu zioten.

Zumaya, Plorentxiren jaioterria

Donostia, Plorentxiren egunetan

IX

KOMENTUAN SARTZEA. NOBIZIADUKO URTEA

1891-ko Dagonillaren 25-ean —18 urte zituala—, arratsaldeko ordu bi t'erdietan, etxekoei beti-betiko agur egiñaz, Plorentxi, Tolosan trena artu eta Valladolid-era abiatzen da. Bere arimako Aitak lagundu zion biaje ontan. Gabaz eldu ziran Valladolidera. Urrengo goizean iriko ikusgarriak ikusten ibilli omen ziran, baiña Plorentxi ez omen zan ezertaz ere oartzen. Etzuan gogorik ez itzegiteko, ez jateko eta ez ezer ikusteko ere. Eta 26-an, arratsaldeko iruretan, egin zuan komentuan sartzea.

Zer moduzkoa zan Plorentxik bere bizi guztiko autatu zuan komentu edo komunidade ura? Eztegu sekreturik salatuko Plorentxi, itsu itsuan ta ia nora zijoan etzekiala, an sartu zala esaten badegu. Naikoa lur jota arkitzen zan etxe ura. Zortzi moja ziran guztira, denak zaar xamarrak; bi gazte eta beste bi zaar il-berri ziran. Pozik artu zuten, ba, gure neska. Erabat Jainkoarena izateko gogo bizi-biziarekin zetorren au, eta asmo onekintxe pasatu zuan moja-gaien illabetea.

Sartu ta egun gutxira, jatorduko irakurraldia egiteko izendatu zuten. Konzezionisten Erregla irakurri bear zuen. Argi ta garbi ikasi zuen irakurtze artatik zein santua zan Erregla ark eskatzen zuan bizimodua. Baita ere ezagutu zuan garbi-asko zeiñen urruti zeuden moja aiek santutasun artatik, Erreglako oiturak ezpaitziran etxe artan ondo gordetzen. Au dala ta, burruka bat piztu zan bere baitan: alde batetik, moja izate ezkero, benetazkoa izan nai, Erreglako bete-bearrak alik zintzoen beteaz; etxe artan, berriz, egingo al zuen deus onik? Gogoak ematen zion obe zukeala andik irtengo balitz. Bestetik, etxe-miña ere izugarri geitu zitzaion: etxekoetatik, eta batez ere bere aitagandik urruti egoteak min ematen zion, bere ondotik alde egin zuanean baiño geiago.

Habitu santua jantzi baiño lentxeago jakiñarazi zizkion Maestrari bere asmoak eta kezkak, batez ere Erregla zeatz gordetzeko etxe artan ikusten zituan oztopoak. Maestrak —era berean Abadesa ere ba-zan—, asmo oiek betetzeko erreztasunak emango zizkiola itz eman zion. Eta ala, Maestraren konsejuakin, habitua artu zuan. Agorraren 29-an, San Migel Goiaingeruaren pestan izan zan bere habitu-janztea. Orduan aldatu zioten izena: Florencia-ren ordez, Maria de los Angeles.

* * *

Nobiziaduko urtea txepeltasunean eman zuala esaten digu berak. Eta txepeltasun onen erroa, sustraia, ezaguna zaigu: kofesoreari bere barruko zerak ez azaltzea. Gezurra dirudi, baiña bere bizi-

tza guztian izan zuan Sor Angelesek lan-neke ori. Bere arimaren zabaltze edo idikitzea izaten zan geiena kostatzen zitzaiona. Eta Jaunaren nai ori betetzen etzualako, zeruak ere bere graziak urritu egin zizkion: Tolosako illunaldi ta kezka aiek bazirauten, barnean legor eta gozo gabe arkitzen zan, gogoak adierazten zion komentu artan etzuela deus onik egingo, andik irtetzea eta beste nunbaitean sartzea obe zukeala, gurasoetatik urruti egoteak ere biziro atsekabetzen zuan... Erabat esateko, ez lurreko gozorik ez jainkozkorik etzan iñundik.

Baiña Jainkoa maite zuan gauza guztien gaiñetik, eta bere bokazioa aintzat artzen ba-zekian, eta orrek eutsi zion. Biotza lurreko gauzetatik garbi eta askatua gorde naiean, onako au esaten omen zuan maiz: "Nere guraso eta anai-arrebak utzi, eta etorri nintzan batetxo gustatzen etzaidan lurralde zakar onetara, eta orain berriz asiko al naiz jende ezezagun oni ene biotza lotzen? Ez ta milla aldiz ez, Jainkoa izango da nere amodio bakarra. Jainkoa bakar-bakarrik!".

X

PROFESA. "NERE ARIMAKO ETXEAN, AMA BIRJIÑA GILTZARRI"

1892-ko Urrillaren 6-an egin zuan Sor Angelesek bere profesa, eta bi egun geroago Nobiziadutik irten eta joan zan komunidadeko aizpekin bizitzera. Sortzez Garbiaren kuadro polit bat zeukan, bere Maestrak emanik, eta ura mai-gaiñean jarri eta Ama Birjiñari eskeiñi zion bere etorkizun guztia. Ama Birjiña, bere Erregiña, nagusi, irakasle, gidari, bide-erakusle eta Amatzat artu zuan, eta konfiantza bizi-biziarekin egin zion bere buruaren eskeintza osoa. Berealdiko atsegiña ta zoriona nabaritu omen zuan eskeintza ori egiterakoan, eta geroztik alakoak izan omen ziran bion arteko artu-emanak, ots, alaba eta ama baten artean izaten diran bezelakoxeak.

"Nere eskeintza egin nuanetik, Ama Birjiña izan zan dena neretzat. Nere gelatxotik sar-atera egitean, lurrean auspez nere maite-agiriak eta agurrak egiten nizkion. Aren lotsaz eta errespetuz, sillan jarri gabe egoten nintzan, belauniko naiz lurrean eserita, Maria Madalena Jesusen oiñetan

eseria ikusi oi dan itxuran (eskuarteko lanak sillan eseritzera beartzen ezpaninduan beintzat). Ama Birjiñaren pesta-egunetan nere poza ta alaitasuna, esan diteken baiño aundiagoa izaten zan. Egun auetan, eta orobat Maiatzean, nere begitan mundua parabisu bat biurtua azaltzen zan, eta berritze izugarria nabaritzen nuan nere ariman, aurreko egunetan legor eta txepel izanikan ere.

Ara emen zein izan nuan nere bizitza espiritualeko atari ta asiera, Jaunak nere ariman jasotako elizaren giltzarri. Ama Birjiñari egindako eskeintzari eta Andre onek emandako erantzupenari zor diot dena, nere zoriona, eta ene Jainko maiteak komentuko nere urteetan egin dizkidan mesede ugari eta arrigarriak. Aitor bearra det eta mundu zabalaren aitzinean salatuko det, eta bai zeruan ere sekulako: dena zor diot Ama Birjiñari: *Ondasun guztiak etorri zitzaizkitan Berarekin batean*. Perfezioa billatzen banuan ere, Erregla zeatz gordetzen saiatuarren eta beste zenbait gauza on egiten banituan ere, Jainkoagandik urruti ikusten nuan nere burua, Ama Birjiñari eskeiñi nintzan garaiean, eta akatsez betea nengoan, basoko egur landugabearen antzera. Baiñan aurki piztu zan nigan Andre-Maritar bizitza eta bai bizkor azi ta aunditu ere".

* * *

Ara emen Sor Angelesek komentuan sartu eta leenbiziko urteetan bete zituen eginbearrak edo ofizioak: Nobiziaduko urtean sukaldeko lanetan

kozinerari lagundu eta etxeko bazterren garbiketa. Profesa egin ezkero, berriz, "tornera" jarri zuten, eta ofizio onetan iraun zuan iru urte, arik eta komunidade osoa beste komentu batera aldatu zan arte. Eta ofizio oiezaz gaiñera, esan gabe doa Kantora bezela zegozkionak ere betetzen zituala.

XI

BIGARREN KONBERSIOA

Sor Angelesek etzion ondo erizten bere arimako egoerari. Ama Birjiñarekin bai, arras ongi bizi zan bere irudiz, baiña Jainkoarekiko bere lokarriak etziran berak nai lituzkeanak. Maiz oroitzen zan Tolosan artutako grazia ta mesede guziezaz, batez ere amasei urte zituanean Jainkoagana itzuli eta Berakin adiskidetasunik estuenean bizi zanekoak. Baiña gero txepeldu egin zan bere ustez, eta barneko legortasunik gogorrenean zeramazkian ia iru urte. Bai, bere adiskidetasuna Jainkoarekin, nolabaitekoa zala somatzen zuan. Leia biziz eskatzen zion ba Jaunari, bigarren konbersioko grazia eman zezaion.

Eta Jainkoak eman zion bigarren konbersioa. Ara nola. 1893-ko Agostuaren amabosta zan, Andre Mariaren pesta-egun zoragarria. Orduko beste bi mojagai gazte sartuak ziran (bata gipuzkoarra, gaiñera), eta Sor Angeles asko arduratzen zan bi aizpa berri oiezaz, batez ere Jainko-bideetan bizkor eta gartsuki ibilli zitezen. Pesta-egun nagusietan, eta Abadesaren baimenakin, bi oiekin biltzen omen zan. Eta alaxe egin zuan egun ontan

ere. Bere asmoa zan Andre Mariaren egunetik Urriko 4-ra bitartean (Urriko lauan Aita San Frantziskoren eguna baita) erretiro-moduan igarotzea, bakarrik eta isillik, otoitz eta penitentzitan, arimako bizitzari ekiñaldi bat emateagatik. Eta tarte luze samar ortan bere bi lagunak arimako azkurri gabe egon etzitezen, iru papertxo banatu zien, zotz egiñik, bakoitza irtetzen zitzaion birtute eta Santuakin saiatu zedin.

Sor Angelesi, zotz egitean, Aita San Frantzisko irten zitzaion Zaindaritzat. Eta gero zer gertatu zitzaion? Berak ere ezin omen du asmatu. Une artan Aita San Franziskok kontu zorrotza eskatu zion artutako grazia, dei, argi eta gaiñerako mesede guziena. Bere txepelkeri ta erantzupen motelaren pisua astuntasun osoan sentitu zuan, eta orobat bere utsegite danen gaiztakeria: utsegite oiek pekatu eskergak eta ikaragarriak iruditu zitzaizkion. Bere aizpei ezer salatu gabe, alde egin zuan andik, eta erabat ezeztaturik, korura jo zuan. Iñoiz ez bezela igarri ta somatu omen zuan une artan zer tajuzkoa izan diteken Purgatorioko eta eriotz-ondoko Juizioaren samiña, orduan pasatutako lotsa eta damutasun erdiragarriak ematen baitzion zantzu bezelako bat.

* * *

Au izan zan Sor Angelesen bigarren konbersioa. Komunidadekoaz gaiñera, beste ordu batzuek ere jarri zituan gogo-otoitzean aritzeko, eta erabaki zuan beti bere gela-barruan irautea, bere obligaziozko egikizunak egin ondoren, irakurral-

di onak egiñaz, ta abar. Bakartadea billatzen zuan, eta biotza munduko ezeri lotu gabe nai zuan gorde, Jainkoarena oso-osorik izan zedin. Berak dionez, bigarren konbersio ontan Jainkoarekiko eginbideak izugarri kostatu zitzaizkion, lenbizikoan baiño askozaz geiago. Otoitzerako etzuan erreztasunik nabaritzen, barnea legor eta idor arkitzen zuan, bakartadea iguingarri zitzaion, besteen zer esanak ere atzeratzen zuan. Labur, dena zan oztopo, baiña ala ere leial jokatu zuan.

XII

LIXIBA

Oial bat bere zikin guztietatik garbitzekotan, lixiba-bearra du nai ta naiez. Bere jatorrizko zuritasuna biurtuko bazaio, estutuak eta igortzi latzak bearko ditu jasan. Arimako bideetan ere zerbait olako gertatzen da. Sor Angeles, bere bigarren konbersioa egin zuan bezain laister, basa-mortutik atera eta bizitza espiritualeko Garbitoki samiñean sartua ikusten degu. Basamortua ere neketsua eta samiña zan, noski, legortasun-aroa, barneko intza ta gozoa nabari eztan garaia. Azkeneko iru urteak (Tolosako azkena eta komentuko biak) izan dira basamortukoak Sor Angelesentzat. Orain, berriz, basamortua baiño zerbait latzago ta bortitzagoa degu: Purgatorioa, alegia, edo lixiba-garaia .

Bialeku gogorrenak eta oiñazerik beltzenak ara nondik eldu zitzaizkion: bere arima dena pekatuz betea eta Jainkoak gorroto ziola ikustetik. Bai, Jainkoa bere aldamenean somatzen zuan, eta etzegoan aragizko begiak itxitzerik, antxe zegoan Bera, arimaren begitan, bere Juez eta etsai bildurgarri bezela, bidegabekeri guztiak zigortzeko,

ezpata biluzia eskuan. Aren begitarte garratza ezin jasanez, bere baitara itzultzen bazan, an arkitzen zuana etzan batetxo ere obea, itxusiagoa eta nazkagarriagoa baiño: bere bizitza guztiko zikin, akats eta pekatuen irudi zatarra, deabruzko pizti ikaragarria. Eta uraxe ikusi bear nai ta naiez. Bi ikuskizun oiei begira-begira egon bear, bata bestea baiño samiñagoa izanarren. Ama Birjiñagan bakarrik arkitzen omen zuan atsedenaldi, baiña puska baterako bakarrik. Ama Birjiñak ezpaitzion lixiba pasatzetik begiratu nai, pasatubearrekoa zalako.

Bere bizitzako egite guztiak, baita obra onak eta birtutezkoak ere, orain pekatuz josiak agiri zitzaizkion. Eta pekatuak ere ez txikiak edo gutxi goraberakoak bailiran, baizik larriak oso eta ikaragarriak. Dena, Jainkoaren ontasuna, grazia, eta guztiz ere Jesusen Pasioa zetorren orain pekatu oien gaiztakeria aunditzera. Zerbait onik egin baldin bazuan, dena pekatuz josia eta ia-ia pekatu ere biurtua azaltzen zitzaion. Erregla zeatz gordetzeko egin zituan alegin aiek, zer ziran orain? Arrokeri utsa, ausardi nazkagarria. Etxeko mojarik lasaiena baiño milla bider errudunago jotzen zuan bere burua.

Birtutea, ona, zuzentasuna, zoratzeraiño maitatu, eta denpora berean pekatu utsa baizik etzala ikusi, ura larritasuna! Beltza, zuriaren ondoan beltzago nola agiri dan, ba alaxe bere beltzune guztiak nabarmenago ziran Jainkoaren zuritasunaren parean. Bere ezereza eta pekatuzko izaera dastatuaz, ain itxusi ta nazkagarri ikusten zuan

bere burua! Moja-artean bizitzeak ere lotsa emateraiño. Al balitz, naiko zuan komentutik iges egin eta basora, piztien artera joan, baiñan ezta, oien lagunarteari ere geiegizkoa zerizkion, eta azkenik, inpernua autatu zuan bere ostatu eta egonlekutzat.

Min eta pena geiena ematen ziona, ordea, Jainkoaren aserre eta gorrotoa zan. Iruditzen zitzaion emanik zeukala bere kontra kondenaziozko epaia, eta etzegoala ura kanbiatzerik. Dena ikusten zuan beltz. Bai komentua eta bai gela ere illunpe loditan azaltzen zitzaizkion.

Iru illabete bezelatsu eman zituan arimako egoera larri onetan.

XIII

JAINKOA LO

Iru illabete pasatu ezkero, Jainkoak etzion naigabe ematen, eta bai zorion bizi-bizia. Baiña ajolakabe ta aazkor azaltzen zitzaion, lo balego bezela, edo Sor Angeles betiko bere eskutik lagatu edo utzi egin balu bezelaxe. Etzan alere makala izan Sor Angelesek artu zuan poza, Jainkoak bere itxura aldatu zuanean: lengo aserre ta gorrotoaren ordez oraingo ajolakabetasuna erakutsi zionean, alegia. Garbi azaltzen zitzaion, gaiñera, zein ona dan Jainkoa bere izatez, eta zein ona dan guretzat ere, berakin ajolakabe izanarren. Baiña Sor Angelesen gauzarik etzuan aintzat artzen. Onen maite-agiriak eta omenak maiz arbuiatu egiten zituan, edo ez-ikusi beintzat. Beste batzuetan Sor Angeles oartzen zan alper-alperrik zebillela. Bere alegin eta deadar guztiak gorabera, Jainkoak etziola bein ere jaramonik egingo. Berakin aaztu zala betiko, bizi zanik ere etzekiala, lo zegoela eta lozorro artatik sekula-santuan etzala esnatuko...

Eta au gauza arrigarria! Zenbat eta mezprezio geiago egiten zion Jaunak, ainbat eta amodio bi-

ziagoa zuan Sor Angelesek Arentzat. Egunean baiño egunean aundiagoak ziran bere alegiñak eta saiaketak Jaunaren adiskidetasuna irabazteagatik. Eta grazia ori lortu naiez, Ama Birjiña jartzen zuan bitarteko.

Bere arima Jainkoarekin maitemindua zalako, saiatzen zan birtute guztiak perfeziorik aundienaz egiten, eta dena Jainko Jauna serbitzearren uts utsik, saririk eta interesik gabe. Jainkoaren serbizioa bera zan saririk asko eta geiegi bere arimarentzat. Amaika ildura ta laztasun gorri ematen zizkion bere buruari, eta eskura zetorzkion neke ta eramakizunak isil-isillik sufritzen zituan, adibidez, eguraldiaren zakarraldiak, iñungo berogarririk jantzi gabe.

Bakar-bakarrik arkitzen zan, erabat utzita, desanparorik gorrienean, eta etsaiak adierazten zion santutasun-bidea utzi zezala, ezpaitzuan ezer ere irabazten. Laztasunok eta penitentziok gutxitu zitzala, eta beste mojen antzera bizi zedilla, komunidadezko eginbearrak egin, eta ortik kanpo bidezko jolas eta atsedenak bere buruari emanaz. Edo bizimodu ori betiko utzi nai ezpazuan, beintzat geroko luzatu zezala, zaartzarorako edo.

* * *

Baiña tentazio guzti oiek garaitu zituan Sor Angelesek, Eskritura Santuko itz batzuek ao-miitan artuaz. Sor Angeles, komentuko kantora zanez, berakin zeukan Aste Santuko elizkizunak dakarzkian esku-liburua, eta ango itz batzuekin erantzuten zion etsaiari: *"Bonum est viro cum*

portaverit jugum ab adolescentia sua": on zaio gizonari uztarria gaztetatik eramatea. Esaten zion gaiñera berak etzuala Jainkoa serbitzen sariagatik edo etekiñagatik, eta bai Jainkoa Jainko dalako, eta Jainkoa alabatzea, adoratzea ta goratzea zalako bere eginbearrik aundiena, eta ala egingo zukeala ez bakarrik lur ontan, baiña inpernuan bertan ere bai, ara joango balitz.

Eta binbitartean Jainkoa beti lo. Kreatura guztiekin arduratzen zala ikusten zuan, eta berakin bakarrik etzala ez oartzen ez ajolatzen, bizi ezpalitz bezela. Beiñola bere Aita izana zala, baiña orain etzala geiago. Ori bai, Sor Angelesek somatzen zuan graziak ibaika eldu zitzaizkiola Arengandik eta arimako bideetan aurrerapen nabariak egiten ari zala. Baiña uste zuan Jainkoak konturatu edo oartu gabe egiten zizkiola mesedeok. Eguzkiak bere parean jartzen dan edozeiñi, beroa naiz argia partitzen dion gisa.

Mingarria zan Sor Angelesentzat Jainkoa ola aazturik ikustea. Baiña norberekoikeria —egoismua— iltzeko, etzezakean Jaunak sendagai oberik asmatu.

XIV

AMA BIRJIÑAREN ESKOLAN

Ama Birjiñagan arkitu zuan Sor Angelesek Purgatorioko garraztasunak nolabait arintzeko bidea. Eta Ama Birjiñak eman zion samiñaldi gogor ura gainditzeko kemena. Jainkoa bere aurka bezela azaldu zanean, bere aserre ta gorrotoa erakutsi zionean, Ama Birjiñagana laister egiñaz, beragan arkitu zuan babesa eta igeslekua.

Ez igeslekua bakarrik, eredu eta ispillua ere bai. Andre Maria imitatzeko gose bizi-bizia erne zitzaion. Ama Birjiñak zer egin zuan, ba uraxe egin nai berak ere. Ama Birjiñak maite izan zuana maitatu, gorroto izan zuana, gorrotatu. Garbi ikusten zuan Ama Birjiñak maite eta onesten zuala Jainkoa, eta maite ere ez nolanai, baizik sariari begiratu gabe, maitetasun utsez, Jainkoa Jainko dalako beste gabe, bere bikaintasun eta maitagarritasun azkengabeagatik. Bera ere jartzen zan ba Jainkoa serbitu eta maite bearrez, eta maitasun eta serbizio uts ortan ipintzen zuan bere zoriona. Jainkoak erdeiñuak eta ez-ikusiak egiten zizkiola? Bai, baiñan orregatik etzan atzeratuko Ama Birjiñaren eskolan ikasitakoa egitetik.



Aita Mariano de Vega, Kaputxinoa, Ama Sorazuren
Diretore Espirituala

Ama Sorazuren marrazkia: Aitak bere Semea ta Espiritu Santua bialtzen ditu mundura

Ukigarriak dira benetan Sor Angelesek bere zeruko Amarekin izaten zituan alkar izketak. Dena kontatzen zion, neska txikiak bere amari bezelaxe. Jainkoaren aserrea ta oztasuna, dena esaten zion Ama Birjiñari. "Ene Ama, Jainkoak ez nau maite, ikusi ere ezin nau, damu zaio kreatu nindualako eta ni galtzea nai du. Parkazioa eskatzen diot, eta ezta, kasurik eztit egiten. Nere pekatuengatik penitentzia emateko eskatzen diot, eta eztu nai, eztu nerekin adiskidetu nai. Nik maite det Bera, eta Berak eztio nere maitasunari erantzuten. Nere maite-agiri guztiak arbuiatu egiten ditu. Nere zorion guztia da Berari serbitzea eta bere ondoan egotea, eta Berak begiraketa bat ere eztit egiten. Beragatik utzi nuan dana eta emen bizi naiz, al ditudan neke ta ildurak neregain artuaz, eta ala ere eztit jaramonik egiten. Esaiozu zuk, Ama, adiskidetu dedin nerekin".

Maria Agredakoaren "Mística Ciudad" deritzan liburu famatua erabilli zuan Andre Mariaren bizitza ezagutzeko. Ark azaltzen dituan birtuteak ikasten alegintzen zan. Andre Maria zan bere ispillu ta eredu. Beragan ikasten zuan nola bizi bear zuan, nolakoa izan bear zuan. Itz batean, Ama Birjiñaren eskola izan zan bere bide jatorra ta zuzena santutasunerako.

Beste bi liburuxka ere erabilli zituan gogoz garai ontan, eta ondorerik ederrena ekarri zioten: Kristau Dotriña eta bere Ordenako Erregla. Sor Angelesek ba-zekian kristaua zala lenbizi, eta urrengo, moja. Eta kristauak, bear bezelakoa izateko, Kristau Dotriñan datorrena bear duala ika-

si eta egin. Moja zan aldetik, berriz, Erreglan zegoana bear zala zintzo gorde. Eta ala, bi liburu auek aztertzen eta ausnartzen zituan, soseguz eta arretaz, Ama Birjiñaren begipean, eta alegin guztiak egiten zituan bere bizitza bi lege oien araura moldatzeko.

Eta azkenik, Ama Birjiñaren doaiak eta bikaintasunak izaten ziran Sor Angelesentzat zorioniturririk garbiena. Bere burua akatsez betea ikusten bazuan ere, bere zeruko Ama beintzat guztiz zoragarri ta maitagarri zala ba-zekian. Eta Ama onen zoriona, bere buruarena baiño geiago maitatuaz, ura zoriontsu zala jakiteak ematen zion berari pozbiderik aundiena. Ama Birjiñaren gloriatik bizi baitzan, bere bizitik baiño areago.

XV

JAINKOA GURASO

Gaualdiko illunpe loditan degu Sor Angeles. Egunsentirik ezta somatzen. Jainkoaren adiskidetasuna amets, eta alperrik. Jainkoa beti lo, beti sorgor. Bein, larrialdi aundienetako batean arkitzen zala, Ama Birjiñaren oroipena ere burutik joana —batzuetan ala gertatzen zitzaion, eta oiek izaten ziran ordurik txarrenak—, estutasun gorrienean, asi zan bere buruarekin izketan: "Nere gurasoak balekite oraindik ez naizela Jainkoarena, Jaunak ez nauela beretzat artu, eta beren ondotik alde egin nuanetik emen bizi naizela bakarrik eta penatan, umezurtz errukarri baten gisan, a zer atsekabea artuko luteken eta nolako negarrak egingo lituzketen! Onera etortzeko baimena eman zidaten, ustez eta Jainkoak bere kontura artuko ninduala eta guraso baten betebearrak Berak beteko zituala nerekiko, eta emen arkitzen naiz bakar-bakarrik, nerekin iñortxo ere ajolatzen eztala. Eta Jainkoa ez baldin bada nere Aita, nor ote da? Deabrua ote? Auxe bai kastigu gogorra, baiña neronek irabazia, Jainkoa utzi nualako..."

Joan zan gure Jaunaren aurrera bere utsegiteak negar egitera eta bere biotzmiña azaltzera. Gogoratu zion Jesusi nola Berak erakutsi zien Apostoluei, Aitaren izenarekin Jainkoari deitzen eta etzuala olakorik egingo Bera ezpalitz danon Aita, eta Aita ere ez nola-naikoa, baizik asma ditekean oberena. Eta gaiñeratu zion: "Aita baldin bazera danentzat, zergatik etzera neretzat?" Erantzunik etzuan jaso, eta berberak erantzun zuan esanaz: "Nere errukarria!, pekatu egin nualako utzi egin nau. Izan, ba-zan nere Aita garai batean, baiña orain ezta".

Itz auek bukatu zituaneko, Jainko Bakoitz eta Irukoitza azaldu zitzaion. Bere arimako begiakin ikusten zuan, beste askotan bezela, arima guztien ardura eukitzen ziarduala. Berakin bakar-bakarrik zegoan aazturik, bizi ezpalitz bezela. Biotza erdiratzen zitzaion Sor Angelesi ikuste onekin eta orduan asi zan Jainkoari zera esaten, alegia: gutxi, oso gutxi izango dirala seme-alabetatik naigaberen bat edo asko artzen ez dituzten gurasoak, baiña orregatik auek ez diete beren maitasunik ukatzen. Zigortzen dituzte, ori bai, baiña guraso baten arduratasuna eta onginaia aaztu gabe beti. Eta ori esanaz batera, azaldu zizkion munduan ezagututako zenbait guraso, batzuk oso zakarrak, baiña alere beren umeak maitatzen ba-zekitenak. "Eta Zuk —jarraitu zuan— Guraso egiazkoa ta bakarra, aragizko gurasoak baiño milla aldiz bikaiñagoa zerana, nola egin dezu ola nerekin? Nola laga ta aaztu egin nauzu? Merezi dedala ba-dakit, Zurekin leial jokatu ez nualako, baiña egin

bear zenduena zan kastigu bat eman, eta ez ni egoerarik gorrienean laga".

Auxe arrigarria! Bat-batean Jaunak itzultzen du begitartea Sor Angelesengana eta adierazten dio baietz, ba-dala bere Aita, eta Aita maitekorra, aragizko gurasoak baiño milla aldiz geiago bere umeak maite dituena. Eta beretzat, Sor Angelesentzat, maitasunezko eta samurtasunezko gordairu ezkutu eta azkengabeak zeuzkala biotzean. Ezin neurtu diteke berri onekin artu zuan poza ta lasaialdia. Joan zan korrika bere gelara eta segituan Ama Birjiñari —oi zuan bezela— kontatu zion dana, eta ontan ari zan bitartean, Jainkoa berriz azaldu eta gauza bera berritu zion.

XVI

GAU ILLUNAREN AMAIA

1894-ko Agorra zan. Goiz batean, korutik irtetzean, Sor Angelesek ikusten du Ama Birjiñaren kuadru eder bat, paretatik zintzilika. "Perpetuo Socorro" deritzaion imajiña oietako bat zan. Mun egiñaz batera, esaten dio Amari: "Emaidazu Aur ori. Zergatik eztidazu ematen?" Orduan Aurrak zerbait esan nai ziola oartzen da: "Ara —adierazten zion Jesus Aurrak—, nere Amaren esanera nago Ni, nere bi eskutxuak artuak dizkit Amak bere esku-barrenean. Berak nai duan tokira eraman nazake. Ni zugana joatea edo ez joatea, beraren eskuan dagoan gauza da, beraz".

Erabat arriturik, Sor Angeles biurtzen da Amagana, eta esaten dio: "Nola diteke ori? Ola egingo al dezu ba nerekin, ainbeste maite zaitudan ezkero? Zure zorionagatik, nereagatik baiño geiago poztutzen naizen oni? Zergatik luzatzen dezu orrenbeste zure Semearen emaitza?"

"Perpetuo Socorro"-ko imajiña ikusi duanak ba-daki Ama-Semeen ezker-eskubitan aingeru batzuek agiri dirala, Kristoren Pasioko tresnak eskuetan dituztela. Aingeru aiek, bada, tresna oiek

erakutsirik, adierazten diote azken samiñaldi bat duela pasatu bearrekoa eta ori igarotakoan Jainkoa emango zaiola. Berebizi poztu ta bizkortu zan berri onekin, eta adorea erraberritu zitzaion Jainkoak nai lituzkean samin guztiak onartzeko.

Andik bi edo iru egunera dena aaztu zitzaion eta samiñaldi ura eldu zitzaion gutxien uste zuan aldetik. Ara nola gertatu ziran gauzak. Koruan meza-liburu bat egoten zan. Sor Angelesek liburu ura artu eta zabaldu zuan oarkabean, aurrena azaltzen zan gauza irakurtzeko asmoarekin. Eta ara zer prantatu zitzaion: Neskatxa baten pasadizua, nola kofesio txarrak egiten zituan eta azkenean orregatik kondenatu egin zan. Sor Angelesek bere pekatuak kofesatzen zituan, baiña bere arimako gauzen berri etzion apaizari ematen. Ori dala-ta, iruditu zitzaion pekatu mortalean egon bear zuala eta Jainkoak orregatik jartzen ziola gertaera ori begien aurrean. Eta orra gure moja berriz ere istillu gorietan naastua.

Bereala ots egiten dio Aita kofesoreari, baiña au bost egunez etzan azaldu (etortzeko abisua etziotelako eman, noski). Irugarren eguna pasatu zanean eta kofesorea agiri etzala ikustean, Sor Angeles agitz larritu zan. Bururatu zitzaion Jainkoak etzuala nai bera pekatutik irten zedin eta orregatik galerazten ziola apaizari etortzea, pekatuan il eta inpernuratu zedin. Ura larritasuna! Eta gaiñera, bere ustez, dena zeukan ondo merezita. Jainkoak ez al zion ba ainbeste aldiz adierazi bere barneko kontuak apaizari azaltzeko? Eta berak ortan beti gaizki jokatu... Orain orra ondoreak...

Agorraren 24-an, guztiz erkitua, burua galtzeko arriskuan eta miñaren miñez berriz joan omen zan Perpetuo Socorroko Amaren irudi artara (oraingo naigabe au gaztiatu zion irudira, alegia, baiña Sor Angeles etzan oar arezaz geiago oroitzen). Esaten dio ba Ama Birjiñari: "Ama, nik ezin nezake iraun, egin zazu etor dedin apaiza eta atera nazazu egoera onetatik, bestela bizia edo burua galdu bear det". Bereala Ama Birjiñak jakiñerazten dio biaramonean Jainkoa entregatuko zaiola. Eguerdia zan, eta arratsalde guztia eman zuan gertakari aundi onetarako prestamenak egiten. Ama Birjiñarekin adiskidetasun-lokarriak estuagotu: auxe izan zan bere prestaera guztia.

XVII

"JAINKOA NOLA EMAN ZITZAIDAN"

1894-ko Agorraren 25-a ezin aaztuzko eguna izango du Sor Angelesek sekulako. Egun ortan Jainkoak egin zion mesede arrigarriak ildo nabariak eta jainkozko aztarnak utziko ditu bere ariman. Eta urtero-urtero, Agorrak 25 jotzean, gertaera aundi onen oroigarria ospatuko du, lurgaiñean bizi dedin bitartean. Utzi dezaiogun berari gertatua kontatzen:

"Goizeko lauretan jaiki nintzan nere jayerak egiteko. Oi nuan bezela, belauniko jarri nintzan, eta Ama Birjiñari ta Jainkoari nere agur onak egitera ninjoan. Eta orra, une artan bertan Jainko Bakar eta Irukoitza azaldu zitzaion nere arimari bere Ontasun ta Bikaintasun guzizkoan, ospe dizdiratsuz jantzirik, itxurarik ederrenean. Aren edertasunak ba-zuan giza-edertasunarekin alako zer-ikusi bat. Kristoren Gizatasuna ere berakin zekarren, baiña illunpezko argitasunak etzidan uzten begirik artan ezartzen eta ez Jainkozko Persona berezietan ere. Labur, Jainko osoa azaldu zitzaidan, ikuste jeneral batekin, bai Jainkotasuna eta bai Gizatasuna ere berakin zeuzkala.

Naiz ta illunpez inguraturik agiri, ene Jainkoa ikusi nuan ospea, jauntasuna, ederra ta Ona dariola. Eta azaldu ere ez urruti, besteetan bezela, baizik gelan, nere ondo-ondoan."

"Urbiltzean, maitetasunezko keiñu batekin adierazi zidan Bera dala nere Aita, Ama, Ezkontide, nere arimaren lagunik urkoena, kutunena eta barne-barnekoena. Bion arteko lokarriak ain dirala estuak, non mundukoak, oien aldean, ezer ere eztira. Ezkonduen arteko lokarriak edo aita-semeenak utsa dirala edo utsaren urrengo eta elkartzeak baiño areago deitu ditezkeala banatzeak. Eztagoela kreaturen artean senidetasunik ez urkotasunik, Jainkoak nere arima gaiso onekin daukana aditzera eman lezakenik. Alaxe dastatu nuan, eta jainkozko alkartze onen agirian, Jainkoa erabat nerea nuala eta ni erabat Jainkoarena nintzala oartuaz, sor ta gor gelditu nintzan".

"Eta au gutxi balitz, enegana makurtu eta erori egin zan nere gain, ura isuri oi dan bezelaxe, edo gurasoa bere alabaren besoetan ta senarra bere emaztearen galtzarrean etzaten dan antzera, edo-ta aurrak amaren altzoan egiten duan gisa. Nere arimari eman zitzaion erabat eta neurri gabe, Berakin nai nuan guztia egin nezan. Berealakoan Jainkoaz jabetu nintzan eta Berak orobat artu ta beretu ninduan ondore miraritsuekin".

"Mesede arrigarri onekin izuturik nengoen, eta nere arriduran ara zer esan nuan: —Ene Jainkoa! Ene Jainko ori! Ezagueran sartu nintzaneko, zergatik etzenidan jakiñarazi mesede au neri egiteko asmoa zeneukala? Zeren eta, ziur-

-ziur nago, ori jakin izan banu, nere bizi guztian leial iraungo nizun eta bein ere ez nuen pekaturik egin izango."

Baiña Jainkoak etzion utzi pekatuen aipamenik egiten: oiek joan ziran, parkatu ziran. Ezeztatuak daude, geiago eztira. Eta gaiñeratu zion: "—Gau illuneko aroan erakutsi dituzun menpetasun, leialtasun eta amodio garbiarekin, ain aundia izan da zuzendu didazun ospea, eta ain grazia aundia irabazi dezu nere begitan, non, ez bakarrik zure pekatuak parkatu, baita ere birtutez bete-betea agiri zera nere begitan eta jotzen zaitut zintzo, zuzen, santa".

"Ikusten nuan Jainkoaren Naia betetzen zala nigan oso-osorik, zearo, eta Ark etzuala nigan fitsik arkitzen gogoko etzuanik".

* * *

Gero zerbait eskatzeko esan zion Jaunak, ortan berebiziko poza emango ziola-ta. Sor Angelesek, bere makaltasunari begiratuaz, eta mesede arrigarri au artu ondoren, pekatu berriak etorriko ote ziran bildurretan, zera eskatu zion: baldin aurrerakoan pekaturik, naiz ta txikiena, egingo zuala ikusten bazuan, arren atera zezala oraintxe bizitza onetatik, zergatik Jainkoarentzat lotsagarri eta Sor Angelesentzat jasan eziñezkoa izango litzakean, mesede oien ostean utsegiterik ariñena ere egingo balu. Baiña Jainkoak erdizka bakarrik aitortu zion eskari au. Erantzun zion etzetorrela ongi Jainkoaren asmoekin bera orduan mundutik ateratzea. Ori bai, grazia ugariak emango

zizkiola pekatuan erori etzedin, eta laguntasun oiek gorabera, bide zuzenetik okertzen bazan, berriz ere ekarri araziko zuala, eta eriotzak etziola bizia kenduko arik eta Berak erabakita daukan santutasun-maillara iritxi dedin arte. "Ikusten dezu nolako adiskidetasun miñean zauden nerekin? Ikusten dezu zure arimaren egoera ona? Ba, itz ematen dizut, noiznai datorrela zure eriotzako eguna, azkeneko zorian, egoera orretan edo obeagoan izango zera": orrela aditu eta siñistu nuan eta uste orretan bizi naiz."

"Eztakit zenbat denpora iraun zuan Jainkoaren agertze onek. Nik dakidana da berebiziko aztarnak eta desegin ezin ditezken kutsuak utzi zituala nere arima gaixoan. Eta ura ezin ditekela bizi mesede orrezaz oroitu gabe, betiere gogoratzen duala eskerronezko sentimendu batekin eta Jaunari leial irauteko erabaki sendoakin".

* * *

Jainkoak bere egoera ona azaldu zionarren, Sor Angelesek berriro deitu zuan kofesorea, eta oraingoan azaldu zan au. Kofesioa egiterakoan, esan zion Sor Angelesek nola Jainkoak direzio espirituala eramateko eskatzen zion, eta kofesorea ortan laguntzekotan gelditu zan. "Baiño —gaiñeratzen du Sor Angelesek— etzuan bere itza bete, beintzat nere arimak eskatzen eta Jainkoak nai zuan neurrian, eta ortik etorri zan gero aipatuko degun gainbeera."

XVIII

"NERE BIZIERA, JAINKOAREKIN ALKARTU EZKERO"

"Nere biziera, bein Jainkoa eman zitzaidan ezkero, zerutarra zirudian, zeruko zorionaren ataurre edo asiera. Nere atsegiñak ain ziran jainkozkoak, non, dastatu ezik, ezin asma nezaken orren zorion aundirik. Nere sentipenak eta asmoak ain ziran goratuak eta zerutarrak, eta ain urruti zeuden grazia arruntean bizi diran kristauen asmoetatik, non, mojei itzegiteko —baita komentuko santuenei ere—, nere goratasunetik armailla asko ta asko jetxi-bearra izaten nuan, eta leize ikaragarri bat igaro-bearra, aiengana urbiltzeko. Lurtarren izakera zer moduzkoa dan ikasi bear izaten nuan, oien oiturak ezpaitnituan ezagutzen, zeruetan azia banintza bezela. Baiña orregatik ez nuan jotzen nere burua besteena baiño obeagotzat. Aitzitik, nere begitan, denen azpian ikusten nintzan, pekatari aundienak baiño ere beerago, eta Jainkoaren batasunak, umiltasuna, norberaren gutxi-ustea eta besteenganako amodioa ta estimazioa ematen zizkidan.

Gaiñera, ba-nuan bakuntasun bat, aur bati

dagokion itxurazkoa, eta ezin nuan iñortxogatik ezer gaitzik pentsatu, nerekin itzegiten zutenen konzientziak erabat ustelduak zeudela ikusiarren. Zenbat eta miseri geiago arima batean ikusi, ainbat eta naitasun eta estimazio geiago artzen nion.

Iruditzen zitzaidan zerutik urbil bizi nintzala, Jainkoak zeruan daukan bizilekuaren ataurrean, eta Aren urbiltasuna gertu-gertuan eta neronen barrenean somatzen nuan. Ba-nekian Jainkoaren Borondatea nigan zearo betetzen zala, Aren galdekizun guzti-guztiei erantzun izan nuala, eta beraz Jainkoak etzuala deusen zorrik edo faltarik enegan ikusten. Graziaren aldetik, ba-nekian euki nezaken neurri edo kopuru guztia ba-neukala, eta asmo ta sentipen bat bakarra ere etzegoela nigan, Jainkoaren Naiaren aurkakoa zanik. Ikusten nuan alaber nere burua bat zetorrela Jainkoarekin bizitzean, egiteetan, izate ta sentipenetan, eta bat etortze onek, eta Aren Naia osoko betetzeak, pake eta zorion bat ematen zidan ain zerukoa, ain jainkozkoa, non uste nuan parabisuan bertan arkitzen nintzala sasoia baiño leenago. Jainkoak maitatua ikusten nuan nere burua eta lagun egiten zidala. Aingeru, zerutar eta lurrekoei partitzen eta zabaltzen dizkien grazia guztietan parte ematen zidan. Iruditzen zitzaidan, azkenik, Jainkoak kanpoaldera bialtzen dituan mesede eta emaitza guztietan, bat bakarra utzi gabe, ba-nuala nik parte.

* * * .

Izadi osoa Jainkoaz mintzo zitzaidan, Adani parabisuan bezelaxe. Eta txori baten txio-txioka

aditu utsarekin edo arbola baten ostroen ikara nabarituaz, urtu egiten nintzan Jainkoaren maitasunean. Mundua azaltzen zan nere begitara antz-aldatua, dena Jainkoaz betea eta asea, eta izadiaren egokitasun arrigarriak ezin esan alako soiñu zoragarria jotzen zuan nere ariman. Soiñu orrek zeru-aldera eramaten ninduan, lurralde gora ezezagun batera. Gauza guztiak ikusten nituan Jainkozko alderditik, eta maitetasun bizi bat sentitzen nuan Jainkoagandik urruti bizi diran pekatarientzat, oien salbabidearen kezka arturik. Barne-barneko premia batek eragiten ninduan oiekin nere zoriona partitzera, eta nere gogoa izaten zan oien billa noranai joatea, baita taberna-zulo ta ardantegietara ere, konbertitu eta Jainkoaren adiskidetasunera jasotzeko, ni bezelaxe zoriontsuak izan zitezen. Gauza samurra iruditzen zitzaidan ori, pentsatzen nualako denak zirala ni baiño gaiago zeruko mesede oietarako. Maiz esaten nuan: neri, ain pekatari naizen oni, orrelako mesedeak egiten badizkio Jainkoak, eta ortaraiño maite banau, nola eztitu maite izango ni baiño obeak diran oiek? Ama baten eta arreba baten biotza nuan pekatarientzat eta Adanen ume guztientzat: guztiak ziran nere begitan "beste ni bat" bezela, Jainkoagan ikusten eta maitatzen nitualako, eta Arengan denak bat egiten baitegu. Ala nabaritzen eta dastatzen nuan nik.

Orregatik, eta Jainkoarekin biotzez-biotz jarduten nualako, deus ere gorde ta ezkutatu gabe, ez nekian gero gizarteko nere artu-emanetan neurriak zaitzen, au da, maitasunari eta konfiantzari mugak jartzen. Nere bakuntasun, amodio eta oi

ez dan biotzeko agiritasunaz zer-esana ipintzen nuan. Neroni konturatu ere gabe, eta neretik irtetzea galerazi ezinda, beste lagunen barrenean sartzen nintzan, aien bearren eta gaitzen erremediatzera, eta Jainkoaren emaitzetarako oztopo denak erditik kendu naiez. Askotan berak etzekitela egiten nuan ori. Zearo garbi ta errugabe gordetzen nintzan. Ez nuan utsik egiten eta birtuteak ere, jainkozko elkartasun orren indarrez, heroiko maillari dagokion eran egiten nituan."

* * *

"Bein, tornuko etartean nintzala —tornera nintzalako maiz joan bear izaten nuan ara—, Jainkoak zera adierazi zidan, alegia: nolako urritasun, birtuteen eskasia eta jainkozko izerdiaren falta dagoan kristau Jainko-zaleen artean, naiz mundukoak izan, naiz elizgizon, praille ta moja diranetan ere; eta nere bitartez nai ziola gaitz oni sendagarri puska bat eman. Ortarako noizbait nere arimako Aita izango zan batek aginduko zidala nere bizitza iskribuz jartzeko eta Jainkoarekin nik izandako ar-emanak kontatzeko".

XIX

BEERAGOKO MAILLAN

Iru illabete gutxi gorabera zeramazkian biziera gora ortan; baiño bat-batean bildurrak jo zuan gaixoa. Bide orrek ez ote zituan arrisku aundiak? Orretxen bildurra sartu zitzaion. Sor Angelesek ikusten zuan bere burua gobernatzen etzekiala, zentzua ta zuurtzia galtzen zuala. Arimako zuzendari tajuzko bat baleuka bederen, jendarteko egikizunak ikasteko, baiña ori ere etzeukan. Beste mojak aspaldidanik asiak ziran Sor Angeles santa-usaiekotzat artzen, eta berak ba-zekian ori. Bere barne-bizitzaren dirdaia kanpora azaldu etzedin, gela-barruan egoten zan beti, komunidadezko egikizunak bete ondoren. Baiña bere arimako bizitzak zabaltze ta aunditze ikaragarriak artu zituanean, etzan gauza izaten bere buruari neurriak artzeko. Txorakeriak eta tajugabeko gauzak egingo ote zuan bildurra zeukan. "Bai —esaten zuan berak—, olako gauza arrigarriak eta zer-esana ipintzekoak orain lotsatu eta gorritu egiten naute, baiña menturaz biar arrokeriarako bidea emango didate eta orduan galdumendira eraman nazakete, beste askori bezela." Au dala-ta, erabaki zuan

Jainkoaren izpirituari gogor egitea, eta traba jarri zion bezain laister, gainbeera jeixten asi zan, biziera goratu artatik, egoera arruntagoan gelditu arte. Jainkoaren laztanetik askatu zan ba, ez betiko alere, arimako zuzendari trebe eta tajuzko bat izan arte baizik.

Jainkoaren besartetik askatu zanekoxe, berriz jotzen du bere burua umezurtz, mundu ontako erbestean galdua. Zeru-aldetik lurrera bota izan balute bezela. Ori bai, lengo biziera jainkozkoaren aztarnak eta kutsu ugariak gelditu zitzaizkion, baiña orrek mingarriago biurtzen zion oraingo bakartadea. Gizakumeak arrotz eta ezezagun zitzaizkion: asmo eta sentipenetan zearo urrunduak eta ezberdiñak ziran berakin. Gaiñera, Jainkoaz landara, etzegoan ezer bere biotzeko zulo ori bete lezakenik. Jainkoaren atsegiña miazkatu duanak, ezin izan, Jainkoaz kanpo, beste konsolatzaillerik. Erromes bezela bizi zan munduan, bakarrik mojen artean.

* * *

Bakartade ontan Jesus eta Maria artu zituan laguntzat. Oietan zeukan kokatua bere amodio guztia. Mundu ontan bizi ziran bitartean zer egin zuten, ba uraxe bear zuan beti gogoan ekarri ta ausnartu. Beraz, Jesus eta Mariaren bizitzako goraberak, misterioak, birtuteak, pauso santuak: oiek ezagutu, maitatu eta imitatzera jarri zan erabat. Eta urte-mordo luzean auxe izango du arimako bazka autatua.

Lengo biziera goratu artatik jetxi zanean, doai bat gelditu zitzaion: Jainkoa nunai, toki ta alde

guztietan arkitzen dalako egia arras biziki sentitzea, Jainkotasunaren presentzia orokarra nabaritzea, baiña ez beti neurri berean. Presentzia orrek eta orobat Jesus eta Mariaren ikustaldiak zorionez betetzen zuten, eta olakorik etzuanean, pozkario gabeko bakartadean bizi bear izaten zuan, erbestean erromesa antzo.

Jainkoaren besartetik askatu zanean, penazko deadar bat aditu omen zuan, auxe ziola: "Utzi egiten nazu, utzi!" Eta oiu orren oiartzuna ezin zuan orain kendu bere gaiñetik.

Garai ontan utsegite arin batzuk egiten zituan gizarteko ar-emanetan, batez ere bere aizpen naia egitearren edo oiei atsegin ematearren, eta gero konzientziako ausiki bortitzak jasan bear izaten zituan.

Oitura zuan Sor Angelesek gau-erdiko loa eten eta bere otoitzak egitera joatea; eta gero, oiek egindakoan, berriz etzaten zan. Baiña noizean bein gertatzen zitzaion ez esnatzea, urrengo goizera arte. Ura pekatu larria! Belauniko jarri eta gisa ontara esaten zion Jaunari: "Parkatu nazazu, Jauna, eta bion arteko adiskidetasuna berritu dedilla —falta arekin galdu edo urratu egin zan nunbait—, baiña parkatu nazazu gaurkoz bakarrik. Gaurgero leialtasun oso-osoa gordeko dizut. Geiago etzaitut ofendituko. Eta baldin —uste eztedana— berriro egiten badet, inpernura nazazu, ez parkatu, arren."

Eta lelo au berritzen zan utsegite berri batean erortzen zan guztietan, eta beti damutasun berberakin.

XX

ETXE-ALDATZEA

1895-ko Agorrean, Sor Angelesen etxe-komentua lur jotzeko arriskuan jarri zan, eta Valladolidko Arzobispo jaunaren aginduz, moja guztiak beste komentu batera aldatuak izan ziran, arik eta etxe zaarrean bearrezko konponketak egin arte. Ba-dago Valladolidko irian bertan beste komentu bat, Ordena berekoa, au da, Konzezionisten Ordenakoa. "Jesús-María" deritzaio komentu oni. Onera izan ziran, ba, aldatuak, eta emen biziko da Sor Angeles ia iru urte (1895-1898).

Moja zaarrak edo adintsuak, beren etxea utzi bearrean arkitzen zirala ikustean, negar egiten omen zuten saminkiro. Sor Angelesek ez, etzuan batere penarik. Ba-zekian zeruaren borondatea zala, eta uste zuan, noranai zijoala, berdin billatuko zuala an Jauna eta Ama Birjiña, eta etzuan besterik bear pozik egoteko. Ori bai, etxetik irten orduko, zoru naiz paretai munka ibilli zan. Nola munkatu ez bere gelako orma zaar aiek, zeruakin eukitako ar-emanen testigu ziran-da? Eta mesederen bat artutako bazter guztietan beste ainbeste egin zuan.

Komentu berrian, aizpa berrien artean, poza dariola arkitzen zan Sor Angeles. Baiña etxe ontan etzeuzkan bestean bezelako erreztasunak bakartadean bizitzeko eta an bere kabuz egiten zituan otoitzaldi luzeak egiten jarraitzeko. Gaiñera aizpa berriekin asko zaletu zan, eta aien naia egitearren, zeregin santu asko laga egin zituan. Eta orra berriz ere Sor Angeles, bere ustez, Jainkoaren bidetik okertua. Ama Birjiñaren debozioa ez, beste birtute guztiak galdu omen zituan. Jainkoa ostu egin baliote bezela gelditu zan. Axaletiko bizitza, jendartean eramaten dan bezelakoa, dena kanpoaldera ixuria eta barreatua, gogaikarri zitzaion. Muin gabeko bizia iruditzen zitzaion.

Oiek ola, berriz piztu zitzaion aspaldiko bere kezka: Jainkoaren apaiz bati bere barrunbea azaldu bear ziola. "Edozein apaizek (zion bere artean) ba-leki Jainkoagandik artu ditudan mesedeak eta santutasun berezi baterako dedan deia, eta ikusiko banindu gero bizi naizen bezela bizitzen, edozein moja bezela, iñoren laguntasunik eztedalako, errukitu egingo litzake nitaz, eta eskua luzatuaz, lagundu egingo lidake Jainkoaren asmoei erantzuten."

Etxeko mojen kofesoreak tutik etzekian Sor Angelesen doai eta grazia bereziezaz, eta orregatik gauza bera esaten zion beti: "Besteen antzera bizi, eta kito." Besterik zan, ordea, Jainkoak agintzen ziona: "Etzaitezela jarri beste edozein moja bezela bizitzera, komunidadezko eginbearrak jaso eta deus geiago egin gabe. Bizi-molde

ortan ezpaitezu iraungo. Zuretzat eztago erdiko biderik: edo santa izan edo inpernuratu."

Etxeko kofesore orri nai zion barneko bere istillu guztiak agertu, baiña ezin iñola ere. Eta bein ta berriz eskatzen zion Jaunari, arren, diretore on bat berari emateko. Baita ere bein baiño geiagotan arrenkuratu zan Jainkoarekin, Onek bizia kendu etziolako 1894-ko Agorraren 25-ean, berak orduan eskatu bezela.

XXI

IZADIAREN MINTZAERA

Dena etzan atsekabe eta samiña izan Jesus-Mariako komentuan. Jainkoak itza emana zion egun gogoangarri artan —1894-IX-25— okertzen baldin bazan erakarriko zuala bide artezera bere grazia ta dei ozenekin. Eta ala egin zuan. Gaiñera, beiñola artutako mesedeak, edo mesede oien ondore eta kutsuak, berak ziran eragillerik asko. Sor Angelesek ezin zuan luzaro bizi kanpoaldera isuria edo barreatua. Ba-zirudian izadiak berak ere Jainkoaz itzegiten ziola eta Onengana jasotzen zuala.

Bakarrik gelditzen zaneko, naiz zala gelan, naiz baratzan edo komentuko bazterren batean, an aditzen zuan izadiaren mintzaera, soiñu ezti isilla; ori utsegite aundiren bat egiña ez baldin bazan edo konzientziako ausiki bortitz oietakoak ezpazeuzkan: orduan ezpaitzan gai. Aski zuan igelen kanta aditzea, bere gogoa Jainkoaganaiño jasoa izateko. Gauza guzti-guztiak deitzen eta eskatzen zioten jainkozko bizitze bat, Jainkoaren laudoriozko ta maitasunezko bizia.

Jesus Sakramentaduarekin ere izaten zituan

bere ar-emanak eta solasaldi luze-beroak. Bein, andik zetorrela, arpegiaren itxuratik edo nunbaitetik antzeman zion moja zaar urtetsu batek, eta ara zer jaulkitzen dion:

—Bai, orain gazte aiz eta Jesusek bere gozoak eta leunkeriak egiten dizkin. Zaartutakoan ezten ala izango.

—Zer dio? Eztet siñisten. Nik uste det Jesusek gero eta geiago maite izango nauela, bion arteko lokarriak gero ta estuagoak izango dirala.

—Ez orixe. Jesusek zaarrak bazterrean uzten gaitun, eta irekin ere orixe bera egingo din, ikusiko den.

Sor Angeles ba-dijoa arin-arin bere gelara, Jainkoa auspez adoratzen du, ta esan ere egin zion Jaunari: "Orixe bai izango litzakela polita! Nik gazte-denpora guztia zure zerbitzuan eman, zutaz kanpo beste adiskidetasunik izan ez, eta gero zaartzaroan Zuk bertan bera laga ni?" Jainkoak aditzera eman zion ezetz, bere bizi guztian berbera izango zala berakin. Eta moja arek ziona gertatzen zitzaiela, Jainkoari ez osorik, baizik erdizka ta axaletik bakarrik ematen ziranei. Alakoak gazte-denpora uskeritan ta lurreko atsegiñetan ematen dute, eta gero jartzen dira Jainkoa serbitzera bere burua zaitzeko baizik gauza eztiranean eta beti beren mozkiñak billatuaz; baiña Sor Angeles (Jainkoak esan zionez) etzan oietakoa, pekataria izanikan ere; beretzat zoko gorderik utzi gabe, erabat eta oso-osorik Jainkoarentzat bizi baitzan.

* * *

Gorago esan genduanez, Jainkoa nunai arki-

tzen dalako sentimendua arras biziki miazkatzen zuan. Ta ain biziki, gaiñera! fedeak erakutsiko ezpalu ere, berdin siñistuko luke, baita bizia eman ere, egia orren aitortzeagatik. Jainkotasunaren presentzia orrek ondore arrigarriak uzten zizkion. Maiz egiten zuan onako au: bere arima Jainkoaren aitzinean zabal-zabal ipini, bere kezka, istillu, gutizia, yoran eta bear guziekin, eta Aren jainkozko Naiaren esanera egon. Baita ere Izadiaren izkera edo soiñu ezti isil ori aditu, Jainkoaz esaten diguna jaso, eta soiñu orrekin batean Jainkoa alabatu. Edo ta Jainkoa kontenplatu, Fedeko misteriotan azaltzen zaigun itxuran, ta abar.

Lurtarrak oso urrunduak zeuden beragandik. Ildakoak, berriz, askoz gertuago ta urbillago: oiek Jainkoagan baitaude, eta Onekin elkarturik zegoan ezkero, aien urkotasuna somatzen zuan. Ori dala-ta, pena ematen zion bere guraso ta anaiengandik urruti egotea, eta oientzat ere eriotza desiatzen zuan, berakin elkartu zitezen. Asko erregutu oi zuan munduaren alde, batez ere iltzeko zorian daudenen alde, eta munduko txorakerien atzetik dabillan gazteriagatik.

Bein, ate-ondoko klaustroan, Jainkoak berri argi bat eman zion bere Ontasun eta Maitasunaren gaiñean. Orduan konprenitu zuan Aitaren maitasun baztergabea, eta nola, maitasun orren indarrez, bere Semea bidali zigun gizon egiñik. Ildo nabariak utzi zizkion berri onek. Ordudanik asi zan Sor Angeles Aitari eskerronak erakusten gizadi guztiaren izenean, Onek bere Semea gizon egiñik eman zigulako.

XXII

EBANJELIO SANTUEKIN TXORATUA

Ba-zebillen Sor Angeles Jesusek mundu ontan zer egin ote zuan jakin naiez, baiña ori nun arkitu ziteken etzekian. Ebanjelioa, Mezako zati bat dala ba-zekian, baiña Jesusen egiñak liburu ortan daudela, ez, eta are gutxiago zekian olako librurik gure izkeratan arkitu ditekeanik. Alako batean, etxeko liburuen ardura zeukan moja, liburu-parrasta bat sailka jartzen ari zan eta Sor Angelesek laguntzen zion. Eztakigu zergatik, gogoa eraman zion oni azal arruntezko batek. Galdetzen dio moja lagunari ea zer libru zan ura. Eta Ebanjelio santuak zirala, erantzun besteak. Ura taupada, biotzak eman ziona! Ondasuntegirik baliotsuena arkitu balu bezela gelditu zan. Zorion aundiagorik asmatu ere etzezakean. Bere lana bukatutakoan, galdetzen dio mojari ia liburu ura artu diteken irakurtzeko, eta baietz.

Pozez gaiñezka ta zoratu bearrean asi zan Sor Angeles Ebanjelio santuak irakurtzen. Nola esan irakurtze onekin gertatu zitzaiona? Jesusek egin eta esan zituan gauzak irakurtzean, arri egiñik gelditu zan, eta etengabe zebillen bere artean esa-

ten: "Sekula ere ez nuan siñistuko, ezta asmatuko ere, Jainko bat giza-semeekin ola ibilli zitekeanik, orren laiñoki eta maitekor." Eta amar-bat urte iraun zuan bere arridura ortan.

Etzan arridura bakarrik. Gogoa ere egunean baiño egunean berotuaz zijoakion Jesusganako amodioan. Ezin egonezko leia ta gutizia piztu zitzaion Jesusen antzera bizitzeagatik edo Jesus imitatzeko. Jesusek egin zuan guztia nai zuan egin berak, barne-barneko premia batek beartuta. Mota guztiko ildurak, barauak eta laztasunak artzen zituan beregain. Jesus tunika bakar batekin bizi izan zala-ta (ala uste zuan berak), saiatzen zan Valladolidko negu gordiñean erropa gutxirekin ibiltzen, ta abar. Baiña kantora zanez, jan egin bear izaten zuan, bere eginbidea ondo beteko bazuan. Eta ortik bialeku gogorrak eldu zitzaizkion. Eskatzen zion Jaunari gutxi janez kantatzeko grazia eman zezaion, Ark ordea etzion eskabide ori aitortzen.

* * *

Sortzez Garbiaren bederatziurrenean izaten ziran bere larritasunak. Orduan, Kantora-eginbearrak betetzeko, beste mojak baiño obeto jan bear izaten baitzuan. 1897-ko Bederatziurrenean, iñoiz baiño biziagoak izan ziran jan-bear onek eman zizkion samiñaldiak, eta ala, Bederatziurrena bukatu zaneko, bere arimako indar guztiekin murgildu zan Jesusen jarraibideko bizitzan, gorputzeko ta munduko gauza danen kontuak erabat baztertuaz. Bere barauetan batez ere geiegikeriak

egin zituan nunbait (berak ez oartuarren, gorputzean baiño ere Jesusgan bizi baitzan geiago). Edozein modutan, osasunak krak egin zion eta komunidadea Gabon Gabeko aparia egiten ari zala, atake-moduko bat gertatu zitzaion, eta mojak, izututa, oera eraman zuten. Bereala galerazi zizkioten barau eta penitentzia-mota guztiak. Gaiñera, demanda egiten zioten, esanaz deabrua, eta ez Jainkoa, zala bere penitentzia guztien iturburua eta asmatzaillea. Eta danak zeuden arro, Jainkoak danen aurrean parregarri utzi zualako. Kofesoreak ere berdin aserre egin zion, eta gauza oiekin atzera sartu zan naspil aundi batean.

Pekatu mortalean ote zegoan ba, edo etsaiak beretua ote zeukan? Kezka oiezaz gaiñera, barneko gozo edo debozioa ere joan zitzaion eta etzan an besterik ikusten baizik legortea, illunpeak eta tunelak. Orrela eman zituan Jesus-Mariako azken illabeteak.

Bitartean, beste komentuko konponketak egiñak ziran eta ara itzuli zan berriz Sor Angeles bere komunidadeko aizpekin. Amairu ziran irtetzean, eta amalau itzultzekoan. Itzultze au izan zan 1898-ko Garagarrillaren 22-an.

XXIII

LORE-ZAINTZAN

"1898-ko Garagarrillaren 23-an —au da, Jesus-Mariatik etorri zaneko biaramonean— goizeko iruretan, galeper baten kantu edo *pox-po-liñak* esnatu ninduan. Kanta ura adituaz batera, nere izpiritua Jainkoagana jasoa izan zan Izadiko lanegiñen bitartez, eta onen alabantzetan parte artu nuan Kreatzaillea goratuaz eta bedeinkatuaz. Aspaldi artan Izadiak etzidan itzegiten ez Jainkoagana eramaten, eta izakien maitasun-izkera au berriz aditzean, zorionekotzat jo nuan nere burua. Eta zorionekoa izan ere, zeren andik aurrera, edozer gauzak Jainkoaz mintzatzen zidan, eta Beragana jasotzen ninduan. Bei baten marruma edo txakur baten zaunka aditu utsarekin, gora aldatzen nintzan, izpirituen mundura, alegia, jainkozko lurralde edo erri batera, eta an dena zan egokitasuna, an Jainkoa bakar-bakarrik bizi zan, Sortzaille eta Eusle bezela, Izadia bizi arazten eta bere izakien alabantzak jasotzen."

Au dala-ta, Izadia kontenplatzera jarri zan Sor Angeles, ark Jainkoari bialtzen dizkion alabantzak obeki aditzeagatik, eta alabantza-sail or-

tan parte artzeko asmoarekin; baiña Kristo eta Ama Birjiñarekiko ar-emanak alde batera utzi gabe. Baratzeko lur-zati bat autatu zuan, loreak sartzeko. Bere asmoa zan loreetatik ikasbide artzea, Jainkoa alabatu eta bedeinkatzeko. Lore-mota asko jarri zituan bere loretegi berrian. Etzan sasoia, baiña ala ere etziran igartu. Bioletak, larrosak, lirioak, Ama-Birjiña loreak, jazmiñak, klabeliña, Pasio-lorea, eguzki-lorea, txibiritak eta belar usaidun asko sartu zituan. Loretegiko mutur batean pikondo bat zegoan eta beste aldean maatsa. Maatsondoak Jesus gogoratzen zion, eta Oni sendo itsatsirik nai zuan bizi, maats-adarrak orpoarekin itsatsirik egon bear duan bezela, frutuak ekarriko baditu. Pikondoan, berriz, bere arima azaltzen zitzaion, erkin, argal, aldakor, baiña ala ere Jaunari frutu gozoak eman nai lizkiokena.

Bioletak, umiltasuna erakusten zioten; baiña benetazkoa, Jainkoaren aundia eta norbere ziztriña ezagutzetik eldu dana. Larrosak, berriz, Jainkoaren eta lagun urkoaren maitasuna adirazten zioten. Ama-Birjiña loreak (azucena), biotzeko garbitasuna adirazten zion. Erabat garbi gorde naiean, egunean makiña bat aldiz kofesatzen zan Jainkoarekin, bere utsegiñak gorrotatuaz eta oien parkazioa eskatuaz. Lirioak, bakartadea zekarkion gogora. Belar onek ba-ditu bere inguruan orri batzuk: oiek bere gelatxoa adirazten zioten: eta orri oien barrenean bizi dan lorea, bere persona, gorputz-arima ta guzti. Bere gelako paretai eskerrak, gizonen begietatik gordeta bizi zan, baiña Jainkoarekin artu-emanetan. Jazmiñak, ba-

kuntasun edo xalotasuna adirazten zioten, eta saiatzen zan bakun, umil, garden eta lau izaten. Beti-bizi (siempreviva) deritzan loreak, jainkozko graziaren bearra ematen zion aditzera, ta abar.

* * *

Baiño batez ere eguzki-lorea (girasol) zan bere arimako ispillu eta erretraturik egokiena. Lore ori betiere ikusten degu eguzkiari buruz. An goian eguzkia agertzen daneko, eta ezkutatu bitartean, begira-begira egoten zaio, arengandik bizia edaten. Eta eguzkia mendiz bestaldean gordetzen danean, illik bezela gelditzen da, bere burua makurturik. Ez al zan ori bera Sor Angelesi gertatzen zitzaiona? Beti ari zan bere Eguzki Jesusen pauso santuak kontatzen eta ausnartzen, oietatik bizigarria xurrupatzen, Enkarnazioko misteriotik asi eta Asensiokoraiño. Eta Asensioko misterioan bere Eguzki ori ezkutatzen zitzaionean, illik bezela gelditzen zan. Laister, ordea, biurtzen zan bere betiko arlora, berritzen zuan bere lana, Enkarnaziotik Asensioraiñokoa; eta ola millaka aldiz, iñoiz aspertzeke. Jesusen pausoak ausnartzea zan bere egiteko nagusia eta maitagarriena.

Goizean an zeuden baratzeko txibiritak irriparrez, eguzkia irten miñez zegbalako. Eta Sor Angelesek esaten zien: "Ni baño zoriontsuagoak zerate! Nere eguzkia ezpaita egunero irtetzen! Astean bi aldiz bakarrik jaunartu dezaket." Izan ere, aldi artan mojak etzuten egunero jaunartzen. Igande ta ostegunetan ta beste egun berezi batzuetan bakarrik.

XXIV

JAINKOAREN BILDURRA EZIN IKASIZ

Naiz eta Jainkoarekin ta Ama Birjiñarekin etengabeko ar-emanetan bizi, munduko goraberatan falta eta utsegite asko gertatzen zitzaizkion eta orrek min aundia ematen zion. Jainkoari eta birtuteari zion maitetasunak gorrotagarri agertzen zizkion falta oiek. Bere ustez etziran ez nolabaiteko uskeriak eta bai pekatu mortalak, batez ere Jainkoagandik orren mesede aundiak artu ondoren egiñak ziralako.

Bere konzientzia edozein zikinkeriz likistua ikusten baldin bazuan, etzuan biotzik izaten Jainkoaren aurrean agertzeko eta Onengandik iges egin bear izaten zuan. Bere arimako Aita izango dan Mariano de Vega-k esaten digu istillu gogorretan sartzen zuala bere burua, eta ori edozein uskeriagatik, pekaturik larrienak egin izan balitu bezela.

Jainkoa geiago ez ofenditzearren, bada, eta era berean bere buruari ainbeste lanbide ta istillu kentzeagatik, auxe eskatu zion Jainkoari: bere arpegi latza ta garratza erakusteko, ortara bere bildur santua sartu zezaion erraietaraiño. Uste zuan

Sor Angelesek bere geiegizko konfiantzak ematen ziola pekaturako bide. Artean ezpaitzuan —bere irudiz— Jainkoagan besterik ikusi Ontasuna eta Errukia baizik, eta iruditzen zitzaion "tasun" oien ordez bere Justizia gogorra erakutsiko balio, bildurra sartuko zala konfiantzaren lekuan, eta ala, seguru-asko, pekatu egitetik erabat gordeko zala.

Gauaz toki bildurgarrienetara joaten zan eta an izua emateko moduko gogoetak egiten zituan, baiña alperrik. Juizioa, inpernua, etsai deabruaren boterea gogora ekarriarren, gero ta segurantza biziagoa sentiarazten zion Jaunak. Bere Probidentzia ta Ardura maitetsuaz inguraturik ikusten zuan bere burua, eta ba-zekian etsaiak ezin ziola gaitzik egin.

* * *

Ustez eta liburuetako gogoeta bildurgarriak irakurriz eta paperean artuaz, bere xede ori obeki lortuko zuala, artara jarri zan.

1900-ko Martxoaren 24-a zan. Aita La Puente-ren Meditazioak eskutan artu eta ba-dijoa Sor Angeles ango bildurgarriak paperean jartzera. Eta orra, bat-batean azaltzen zaio Jainko Aita, gizadiarenganako maitasunez kiskaltzen. Verbua gizon egin-aurreko unea zan. An ikusi zuan nola Aitak isuri zizkion Semeari bere maitasunezko sentimenduak, gizadi pekatari onen alderako duan amodioa, alegia. Eta nola ardurarik bizienaz gomendatu zizkion arima guztiak, bere Odolarekin erosi ta zerura eraman zitzan. Guzti ori ezaguera galdu gabe ikusi zuan, eta berak idatzi gogo zua-

naren ordez, orain goi-ikuste ontan agiritakoa jartzen ari zan. Zertan zebillen oartu zanean, idazteari utzi zion eta biotz osoz laga zuan bere burua Maitasunaren galtzarrean, onek nai duan bidetik eraman zezan: eskerronaren eta konfiantzaren bidetik, alegia.

Egun artako ikuskizunak ildo sakonak zabaldu zituan bere ariman, eta ortik sortu zitzaion Sor Angelesi burubide eder bat: Enkarnazioko mesedeagatik Jaunari gizadiaren izenean eskerrak biurtzea, eta asmo orrekintxe eguneroko jarduera bat egitea. Urte askotan aurreneko tokia izan zuan jarduera ukigarri onek Jainkoarekiko bere zeregiñen artean.

XXV

AITAREN ERIOTZA

Sor Angelesek, urte batzuk aurretik susmatu zuan bere aitaren eriotza urbil zala, eta otoitz beroak egiten zizkion zeruari aren alde. Susmo berdintsua izan omen zuan bere anaiaren eriotzagatik ere. Gorago ikusi degunez, baita desiatu ere egiten zuan bere etxekoen eriotza, Jainkoagan murgildu eta orrela beragandik urbillago egon zitezen. Iñoiz azaldu zituan bere barneko uste oiek, eta jakiña, beste mojak arritu ta asarretu ere egin zitzaizkion. Uste aiek ain ziruditen txoro, bitxi eta burugabe batenak! Gero, berriz, gauzak gertatu ziranean, konprenitu zuan Sor Angelesek Jainkoaren jokabidea: Jainkoak, alegia, aldez aurretik sartu zion egin nai zuenaren gogoa, gero, gertatzerakoan, gutxiago sufritu zezan, eta baita ere, bere otoitz premiatsuekin, laguntza berarizkoa aientzat iritxi zezan. Bestela, nola sentituko etzituan ba aita-anaien eriotzak, bai bata ta bai bestea ain maite zituan ezkero, eta etxean ain bearreko zirala jakiñik?

1900-ko Maiatzaren asieran gaztiatu zioten nola aita gaizki zegoan, eta karta egindako egun ar-

tan bertan Elizakoak ari ematera zijoazten. Sor Angeles biurtzen zaio Jaunari, eta bere bakuntasunean esaten dio: "Nola diteke au, Jauna? Nere aita orrela egon, eta nola eztidazu jakiñarazi? Ba, orain egizu, atzo eman nai zizkioten Elizakoak, gaur eman dezazkioten, gure elkarrizketa onen ondoren. Eta ene aita lurretik atera nai badezu, Maiatzaren zortzian izan dedilla, San Migelen pestan". Bai Sor Angelesek eta bai onen aitak berarizko debozioa baitzioten Migel goiaingeruari.

Aitaren alde otoizka ari zanean, Jainkoak bere samurtasunezko ta ontasunezko gordairuak agertu zizkion. Azaldu zion, alegia, bere aitarenganako zeukan amodioa, eta nola opa zion ari, alabak eskatu ta desiatu zezaken baiño onik geiago. Berri onekin eta Jaunak egiten zion arrera onarekin, izugarri poztu zan. "Jainkoa portatu zan nerekin beti leial jokatu banitzakio bezelaxe, eta serbiziorik aundienak biurtu banizkio bezela, edo ta sekula pekaturik egin izan ezpanu bezela. Goi-eskualde batean azaltzen zitzaidan, iru edo lau metroko goratasunean, Aita begitsu ta arduraz betearen itxuran, eta amodiozko leuntasunak eta agiriak ematen zizkidan. Gauza zoragarria benetan! Arritu nintzan oso, eta ezin nuan konprenitu nola artzen zituan ain gogoz eskertxarreko onen eskabideak."

"Dena gertatu zan nik eskatu bezela. Nere aita, Maiatzaren zortzian il zan, goizeko sei t'erdietan, Elizakoak nik nai nuan egunean eta orduan artu ondoren. Ura il zanean, ni koruan nengoan

Prima errezatzen, eta izan nuan azken unearen berri zerbait. Eta bereala, atsegin-atsekabezko bi joera azaldu ziran nigan. Atsekabea: alako pisu astun batek estutzen ninduan: ba-nekian nere aita Purgatorioan zegoala. Gaiñera, eriotzak berezko duan atsekabea sentitzen nuan biziki, eta amaikatxo malko gorri isuri nituan. Beste aldetik, atsegiña: nere aitaren arima an nunbait nabaritzen nualako eta Jainkoa baitan nerea zala oartzen nintzalako. Aitaren presentziak berealdiko poza ematen zidan. Poz onek eragiñik, alabantzak kantatzen nizkion Jainkoari, aita il zalako eskerrak emanaz eta eriotzaren bidez nerekin alkartu zalako."

Andik bi edo iru egunera, Komunidadeak funerala egin zuan Sor Angelesen aitarengatik. Elizkizunak iraun zuan bitartean, izpiritu ezezagun batek Sor Angeles artu eta milla eskabide egin arazi zizkion, ildakoa lenbailen Purgatoriotik irten zedin. "Ez nintzan ni, eta bai Jainkoaren izpiritua. Au zan nigan eta nere bitartez erreguka ari zana. Meza bukatu zanean, aitak "agur" esan zidan eta elizatik alde egin zuala nabaritu nuan (meza-bitartean antxe egon baitzan). Eta arrezkero ez nuan geiago aren zantzurik izan, ez pisu eta ez pozgarri."

XXVI

XIX-GARREN MENDEARI AZKEN AGURRA

1900 urtearen abenduko azken egunak ziran. Sor Angeles berriz ikusten degu Jainkoaren izpiritu batek artua. Oraingoan izpiritu orrek Ama Birjiña goratzera eta gizadi gaxoaren alde erregutzera darama.

Abenduko 29-an auxe esan zien Sor Angelesek bere aizpatxoei:

—Ba-dira egun batzuk zuei zerbait esateko asmotan nabillela.

—Esan ba, erantzun zion Abadesak. Eta Sor Angelesek berriz:

—Iñor munduan bada, gu gera, noski, Konzezioko Amaren alabak, Ama Birjiñari bere misteriorik ederrenean eskeiñiak gauden ezkero. Konzezioko Amak bereak gaitu, eta guk ere gurea degu Bera, bere ondasun eta bikaintasun guztiekin. XIX-garren mendea azken arnasa ematera dijoa, eta bere atzeneko gauak bear ginduke Ama Birjiñaren ohoretan arrapatu, artarako elizkizun berezi bat egiñaz. Zeruak ez al du gure mende au aukeratu Konzezioko misterioa fedeko puntu be-

zela izendatua izan dedin? XIX-garren mendeak irtetzean, eta XX garrenak sartzean, gure Amaren oiñetan arkitu bear gaitu.

—Eta zer nai zenuke egitea?, galdetu zioten.

Orduan Sor Angelesek asmatu zuan elizkizun berezi bat, eta bai besteak ontzat eman ere.

Abenduaren 31-an, bada, gaueko amarretan, joan zan Komunidadea korura. Aurrena, Maitiñak eta Laudesak errezatu zituzten. Gero egin zan Komunidade osoaren eskeintza Jesusi, Ama Birjiña dala bide. Ondoren, Errosario santua, tarteka alabantza batzuk esanaz (Sor Angelesek berak egun artarako egindakoak). Alabantza oietan eskerrak ematen zitzaizkion Jainkoari Andre Mariari emandako doai, mesede eta bikaintasun guztiengatik.

"Errosarioa bukatu eta Salbea kantatzen ari giñala, itz aek esaterakoan: "Itzuli gugana zure begi errukitsu oiek", amabiak jo zuten: emeretzigarren mendearen bukaerak eta XX-garrenaren asierak Ebaren ume erbestetuen alde erregutzen arrapatu ginduen."

"Amabietan gure Jauna agirian jarri, eta Meza kantatu zan. Gero batzuk lotara joan ziran eta besteak koruan gelditu giñan, gure Jaunari lagun egiten, urrengo eguerdirarte. Gau zoragarria, aldiz kantuz, aldiz otoizka igaro genduan. Nik ez nekian zer pesta zan ura. Denpora berean iru tokitan nengoela iruditzen zitzaidan: zeruan Ama Birjiña Sortzez Garbiaren aurrean, aldareko Je-

susen aurrean eta koruan, Ama Birjiñaren imajiña baten oiñetan belaunikatua."

"Otoitzaren izpiritu dalako ori nitaz jabetu zan gau artan, eta berak eragiñik, milla erregu eta eskari gartsu egin nizkion Jainkoari eta Ama Birjiñari, gizadiaren alde, Eliza Amaren alde, nere komentu onen alde, Purgatorioko arimen eta bai zerutarren alde ere, batez ere munduan Ama Birjiñari zerbitzu berezirik egin ziotenen alde, ala nola Eskoto, Pio IX-garrena eta Ama Maria Agredakoa. Iñoiz nabaritu badet egia au: Espiritu Santuak gugan eta gure alde erregutzen duala ezin esanezko zotiñekin, uste det gau artan izan zala. Ezpaitnintzan ni, Jainkoa baizik, eskabide aiek egiten zituana. Iñortxo ere etzan gelditu nere asmo eta arduratatik kanpo, ez zeruan eta ez lurrean."

"XX-garren mendeko leen-egunak Konzezioko pesta balitz bezala pasatu nituan. Ideia bakar bat nekarren erraietan: Ama Birjiña bear nuala ohoratu, joandako eta asitako mendeko kristau guztien izenean."

XXVII

ANAIAREN ERIOTZA. DOTEA

Pasioko garaia urtero ematen zuan Sor Angelesek Jesusen neke-miñetan murgildurik. Urteko garai ortan, bai bere buruaz eta bai gaiñetiko guztiezaz ere zearo aazturik, Jesusi bere oiñazetan lagun egitera jartzen zan. Alatsu egin zuan 1901-ko urtean ere, eta oraindik beste urteetan baiño sakonago ta barrenago sartu zan Pasio santuaren kontenplazioan. Ta nola sartu ere! Piztuera-garaia eldu zitzaionean etzan izan gauza pozkariozko sentimenduetara igarotzeko, eta bere Pasioko denpora astebete geiago luzatu-bearra izan zuan gaiñera.

Ain zuzen, Pazko eguna zan, Apirillaren 7-a, bere anaia Joakin-Luis gaizki zegoela jakin zuanean. Bildurrez zegoan Sor Angeles notizi txar onek bere murgiltasunetik ez ote zuan atera arazi-ko. Amaika illabete bakarrik ziran aita galdua zutela; eta orain, anaia iltzen baldin bazan, egoerarik negargarrienean gelditzen ziran ama ta aizpa gaztea, an Tolosan. Zer egin? Korura joan eta fede bizi-biziakin Jesusgan egotzi zituan bere kezka ta ajola guztiak. Jesusen eskuetan utzi

zuan, bai anaiari opa zion eriotza ona, eta bai ama-aizpen geroa. Ori egiñik, bere etxean ezer gertatzen ezpalitz bezela, jarraitu zituan Pasioko bere kontenplazioak.

Apirillaren 12-an, goizeko amar t'erdietan, izan zuan alako susmo bat bere anaiaren eriotzaz. Une artan Kristoren Pasioaz meditazioa egiten ari zan Sor Angeles, eta egin zuena izan zan Pasio ori eskeiñi bein eta berriz gaixoaren alde. Andik bi egunera eskutitza eldu zitzaion, esanaz nola egun eta ordu artan il zan bere anaia, eta il ere aingeru bat bezela, kantatzen, Elizakoak debozio guztiarekin artu ondoren, erri guztiari ejenplurik ederrena emanaz, eta amari ta arrebari poztu zitezela esanaz, zerura zijoalako.

Nola esan Sor Angelesen poza ta Jesusganako eskerrona, Onek bere naiak ain ederki betetzen zituala ikustean? "Maitasunezko agiri onek beartu ninduan nere garra ta leialtasuna geitzera, eta Jainkoarekiko nere ar-emanak gero ta aunditzenago joan ziran, oso azkar gaiñera. Nere anaiarekin etzitzaidan gertatu aitarekin bezela: eznuan batere pisurik edo astuntasunik nabaritzen. Aitzitik, Jainkoagana jasotzen ninduan, zerurantza, an balego bezela. Ala ere egin nituan nere arrenak bere alde Asensioko egunera arte. Egun orretan, orduko zeruan egongo zala-ta, karta bat egin nion, zeruko bere gloriagatik zorionak emanaz, nere bearrizanak, gure etxekoak eta beste batzuenak ere azalduaz, Jainkoaren aurrean bere bitartekotasuna jarri zezan. Karta ura Ama Birjiñaren irudi baten eskuetan utzi nuan eta eskatu

nion zeruan nere anaiari irakurri zezaion, eta nere partetik eskumiñak emateko, ta abar. Ama Birjiñak nere enkarguak ongi bete zituen, noski, zergatik urrengo urtean, anaiaren eriotzako urtebetetze egunean, dotea eman zidaten, kantorako nere ofizioa uzteko. Au izan zan anaiari egin nizkion eskarietatik bat, eta orregatik diot Ama Birjiñak irakurri ziola nere karta zeruan."

Sor Angeles —dakigun bezela— dote gabe sartu zan moja, kantora izatekotan. Baiña bere penitentziekin, urte batzuen buruan, boz guztia alperrik galdu zuan, eta geroztik ezin zuan bere egikizuna bear bezela bete. Urte aietan oraindik etzeukan bere geiegikeriak galerazi zezazken arimako zuzendaririk, eta ala penitentzitan neurri guztiak gainditu zituan.

XXVIII

AINGERUEKIN AR-EMANETAN

Aurtzarotik izan zuan Sor Angelesek berarizko jaiera edo debozioa Aingeru Zaindariari. Gero, berriz, eta gurasoek erakutsirik, ikasi zuen San Migel goi-aingerua ere maitatzen. Eta zearo Jainkoaganatu zanean, bederatzi aingeru-taldei otoitz bereziak egin oi zizkien, beren omenez bederatzi gloria errezatuaz. Tolosako bere azken urtean, an barrenean sumatu omen zuan aingeruetarako zaletasun izkutu bat, beroiekin adiskidetasun miñean bizitzeko dei edo gogo bizi bat, dei orren nondik-norakoa ulertzen ezpazuen ere. Berak auxe bakarrik zekian: amodio bizi bat eta aparteko joera bat sumatzen zuela aingeruen alde. Ain zuzen, orduantxe bururatu zitzaion aingeruen senide izan bear zuela, eta ortarako, moja sartzerakoan, *Sor María de los Angeles* izena artzea. Eta dakigun bezela, izen ori jarri zioten habitua jantzi zuanean.

Moja sartu eta iru edo laugarren urtean asi zan, gaiñera, aingeruen agertzeak izaten. Ama Birjiñarekin zeuzkan ar-eman aietantxe azaltzen omen zitzaizkion. Beti Ama Birjiñaren maitasunean erreak bezela agiri ziran, aren bikaintasunen kontenplazioan murgilduak eta txoratuak. Andre

Mariak, naiz Jainkoarekin naiz onen Seme gizon egiñarekin izan dituen zer-ikusiak ausnartzen.

"Eredu ta ispillu bikaiñak neuzkan nik aingeruetan, ikasbidea ta jarraibidea ematen zidatela. Jainkoarekin ta Ama Birjiñarekin nola bear dedan jokatu erakusten zidaten. Eta batez ere itzalik eta estimaziorik aundiena adierazten zuten Jainko eta Andre Mariarekiko. Nere erbesteko bide-lagunak bezela ere azaltzen zitzaizkidan, Jesus eta Maria maitatzeko lanean lagun egiten zidatela. Jesus eta Maria agertzen zitzaizkidan guztietan, aingeru-mordo ikaragarriz inguraturik ikusten nituan."

"Oien legeak, oiturak eta ibillerak ikasi: ori izaten zan nere gogo bizia. Oien antzera aingeru izan, santu eta jainkotiar izan eta aiek bezelaxe beti Jainkoaren kontenplazioan egon: orra nere ametsa. "Zer ote da Jainkoa?", galdetzen nuen nere artean, aingeruak Jainkoaz ain maitemindurik daudela ikustean."

Jesusi aldarean lagun egiten zionean ere, an zeuden aingeruak millaka ta millaka. Zeregin santu au ondo betetzeko, aingeruak maisutzat artu beste lanik etzeukan.

Baiña ez uste aingeruen agertze oiek aragizko begiekin gertatzen ziranik. Ez, adimen-bidez zertu oi ziran danak. Sor Angelesek dionez, berari etzitzaizkion agertzen giza-itxuran, eta bai Jainkoaren eta onen Seme Bakar gizon egiñaren dirdai batzuek bezela. Adimen garbi-garbiak, izpiritu utsak, adimenaren erpiñakin bakar-bakarrik begiztatu ditezkenak.

XXIX

"OTOITZERAKO NOLA PRESTATZEN NINTZAN"

"Onako bi mesede auek zor dizkiot Jainko gure Jaunari. Bat: Jainkoarena oso-osorik, eta ez erdizka, izan bearra. Jainkoari zati bat eman eta bestea neretzat gorde, deus ez ematea bezela da neretzat. Nai ta naiez, naizen guzti au bear det Jainkoarena izan; bestela or gelditzen naiz, ez Jainkoaren, ez munduaren, ez nere buruaren ere ez naizela, ezin esan alako istillu gorriak pasatzen. Eta nere bizi guztian sumatu izan det ori. Bigarren mesedea: Jainkoarekiko nere artu-emanak, bero-beroak bear dituztela izan, estuak, Beraren etxeko banintza bezela; ar-eman otz, azaleko ta urrunekoz ezin ase. Jainkoarekin elkar izketa gozoan aritu bearra izaten det, alaba bati dagokion konfiantza bete-betearekin eta amodio pozkor eta gori batekin, Ari zor zaion itzala ta begirunea galdu gabe, jakiña.

Baiña bigarren mesede au alde batetik zorioniturri biurtu bazait, bestetik min eta eramanbear aundiren jatorria ere izandu da neretzat.

Neretzat ezta bein ere posible izan otoitzera azaltzea nere konzientzia naastua edo likistua agiri zitzaidala. Biotza zerbaiti edo norbaiti lotua baldin baneukan edo karidadearen kontra utsegiteren bat egiña banintzan, etzegoan Jainkoaren aurrean azaltzerik arik eta makur oiek zearo zuzendu arte. Iñoren kontra zerbait itzegiña baldin banintzan edo gutxienez gaizki esaka zebiltzenei isillik aditu banien, etzegoen beste erremediorik: nerekin izketatu ziran aizpa aiengana joan eta gaizki esan eta entzun guztien konpontzea egin bear izaten nuen, leku txarrean jarritako moja aien alde nere onginaia adiraziaz.

Garai artan komunidadea oso naasturik zebillen: talde bat Abadesaren alde eta bestea beraren aurka ari zan. Ni, berriz, bi alderdietakoa izan, eta bai batzuen eta bai besteen maxiatzeak entzun bear izaten nituen. Ba-nuan naiko lan karidadearen aurka uts egin gabe bizi eta bien erdian irauteko, denak elkartu ta batu naiean.

Labur, nere gaizki egin guztien benetazko damua artu bear izaten nuen otoitzean sartu aurretik; eta uts oiek Jainkoari aitortu, eta, al zala, aren ordezko dan apaizari ere bai.

* * *

Arratsaldeko bostetan, bada, eguneko zeregiñak bukatu eta agur oso-oso bat egiten nion munduari eta lurreko zer guztiei. Arimako indar guztiak batu eta lurgain ontako irudi, gai ta itxura guztiak errotikan kentzen saiatzen nintzan. Nere gogo ta irudimena tinkatzeko, Ebanjelio santutik

irakurralditxo bat egiten nuen eta ortik jasotakoaz irauten nuen urrengo goizeko zortzi edo bederatziak arte, ots, berriz eguneko zeregiñetan asi arte. Testamentu Zaarreko apaizek Sankta Sanktorum delako artan sartzeko egiten zituzten prestabideak gogoan arturik, zeremoni aietxek espiritualki betetzen saiatzen nintzan; eta nere arimarentzat gogo nuen soiltasun edo murriztearen ezaugarritzat, galtzerdiak kentzen nituan eta ordu oietan abarketa utsez egoten nintzan.

Gure Jauna artu bear genduan egunetan ere prestamen bereziak egiten nituan komunio aurretik."

Plorentxiren ama, anaia, aizpa eta beste senide batzuk *(1912-an egindako argazkia)*



Sor Angelesen komentua Valladolid-en.

XXX

ARIMAKO AITA ZUZENDARI BAT ARTZEN EZTUALAKO, JAINKOA ASERRE

1903-garrenean gaude. Urte onen azken aldera, zeatzago esateko, azaroan, Sor Angelesek sumatu zuan samiñaldi edo estuasun gogorren bat urbil zebilkiola. Zer ote zan ezin antzik eman, baiña zigorren bat beintzat aurki gertatuko zitzaiola, ori bai garbi asko igarri zuan. Etorri zan gero Konzezioko Amaren Bederatziurrena, eta Sor Angelesek egun oietako elizkizunetan moja kantarien taldea dirijitu bear izaten zuan. Eskatu zion, bada, Ama Birjiñari etortzeko zegoan samiñaldia arren luza zezala arik eta pesta oiek pasatu arte; bildur baitzan bestela etzela arkituko bere egikizunak tajuz betetzeko moduan.

Ala gertatu zan dena. Bai bederatziurrena eta bai Sortzez Garbiaren jaia ere pozez igarian eman zuan, etortzeko zegoan atsekabeaz erabat aaztu-rik, Ama Birjiñaren bikaintasunakin zoratu bearrean. Baiña pesta aiek bukatu bezain laister, berriz eman zion gogoak leen sumatutakoa: burugaiñean zeukala zigorren bat, alegia. Eta alaxe izan ere. Abenduaren amarrean, lotarakoan, Jain-

koa agertu zitzaion, baiña ez bestetan bezela, maitagarri ta irriparrez. Oraingoan aserre azaldu zitzaion ta naigabeturik. Jaunak adierazi zion berakin etzegoela pozik, aspaldidanik eman izan zion agindu bat betetzen etzualako.

Agindu au zera zan, alegia, Diretore espiritual bat artu bear zuela, ta aren esanetara bizi. Eta orain arte Jainkoak ontan parkatu bazion, emendik aurrera etziola geiago parkatuko: edo bere agindu ori bete, edo ta bestela bere artan lagako zuala jakiñarazi zion. Geiago ere adirazi zion oraindik: bere luzapen oien erruz, komunidade guztia naasturik zebillela, Jainkoak ezpaitzuen nai bera Abadesa izan zedin Diretore gabe zegoen bitartean, eta bi alderdietako mojak egiten zituzten falta danen kontu zorrotza eman bearko zuala Jainkoaren aurrean...

Nork esan Sor Angelesen samiña, Jainkoa itxura ortan ikustean? Naiago zukean une artan ezerezera biurtu balitz. Milla aldiz jasan-eziñago baitzan bizitzea, Jainkoa bere erruz naigabetua ikusi ondoren. Eta bere santutasunaren gazteluaz, zer pentsa? Berberak bere eskuekin puskatu ta desegin zuen, gezurrezkoa zala bistan zegoan-da. Inpernuraiño nai zuen jetxi ta an deabruen aldamenean egon, beste leku egokirik ezpaitzuen arkitzen.

Orrela eskuratua ta bere esanera ekarria zegoala ikusi zuanekoxe, Jainkoak bere arpegia aldatu zuen eta berriz erakusten zion bere onginaia ta borondate ona; Sor Angelesek, ordea, siñistu nai ez. "Bai —zion—, len ere poz-agiriak eta itxu-

rak franko eman izan dizkit, baiña geroenean ikusi da egia. Nork daki oraingo aldartea ere ez ote dan gezurrezkoa?".

Au izan zan Sor Angelesek orain arte artu zuen ukaldirik gogorrena. Gaiñerakoan, Jainkoak berak adierazi zion zein izan ziteken bere Aita Zuzendaria : Aita Andres Ozerin-Jauregi, prantziskotar euskalduna. Garai artan Aita au La Aguilera-n bizi zan eta sarritxo joaten zan Sorazu-ren komentura. Au izan zuen ba Sor Angelesek bere lenengo Zuzendaria. 1904-ko ilbeltzean asi zan Aita onekin eta otsaillean izan zan Abadesa autatua, oraintsu esango degun bezela.

XXXI

ABADESAREN JOSTAKETA

Elizako legeak 30 urteko adiña eskatzen du, gutxienez, Abadesa izateko. Eta Sor Angeles, adin ori bete zuaneko, kargu ortarako izan zan autatua. Etxeko moja denak eman baitzioten botua. Argi ikusten zuten nunbait etxe-barruko istilluak ta ondo-eza konpontzeko, bera zala yayoena. 1904-ko Otsaillaren 21-ean egin zan izendapen au. Egun onetatik eriotzera arte kargu onetan iraungo du etengabe Ama Sorazu doatsuak. Ez kargua berez bizi guztirako dalako (iru urtetik iru urtera berritzen baita), baizik etxekoak beti aukeratzen zutelako. Urte-mordoska ortan nola jaso ta indar-berritu zuan komentu ura ez gera emen kontatzen asiko. Auxe bakar-bakarrik esango degu: leen lurra jota zegoan etxe ura, zearo altxatu ta bere autsetatik eraiki zuala; eta gaur artio, berak eman zion abiada ortatik bizi dala.

Gauza batek ematen zion bildur Sor Angelesi Abadesako karguan: berak ain maite zuan bakartadea ta otoitz-gosea ez ote zuan galduko: ori zan bere kezka. Baiña ez, etzan ala gertatu. Eta bere karguko egikizunak bete ondoren, alegiñak

egiten zituen bakartadea billatzen eta Jainkoarekiko zeregiñak egarri biziz betetzen.

Bere alabatxoen bear eta premiak entzunaz gaiñera, bakartadea ere billatzen ba-zekian, bada. Ara joaten zan, berak zionez, atseden-aldi bat edo jolas-aldi bat artzeagatik. Orrelako iru *jolasaldi* artzen omen zituen egunero : leenbizikoa goizean goizik, eguneko zeregiñetan sartu aurretik; bigarrena, eguerdia baiño lentxeago, lurreko goraberatan jardun ondoren; irugarrena, arratsalde-erdian. Eta ortarako etxe-barreneko klaustrora joaten zan, zokoago egiten zalako, bakartiago ta isillago, alegia. "Jostatzera nijoa", bere buruari esan, eta ara zijoan korrika, lurreko egikizunei agur egiñaz.

Eta an zer egiten zuan? Auxe: Jainkoari eskerrak eman bere Seme Bakarra mundura bialdu zigulako; eta Oni, berebat, eskerrak eman, gu salbatzearren gizon egin zalako; eta Irutasun Santuari leia biziz eskatu, arren ta arren ordaindu zezaiola Jesusi, gugatik egin zuen guztia. Biotzeko muiñetan sumatzen zuan alako sakatu bat, ortara eragiten ziona: Jainko Semearen gizon egitea, mesede aundi, arrigarri ori, gizadi guztiaren izenean estimatu nai zion Jainkoari; gu danon izenean eskerrak biurtu mesede orrengatik, eta eskatu bein da berriz Jesusentzat neurrigabeko gloria ta saria, gugatik igaro zituen oiñaze ta lan-neke guztien ordaiñetan. Esan bearrik eztago jolas-modu au otoitz eta kontenplaziorik bikaiñena izaten zala. Jainkoak era askotara adirazi zion zein gogoko zitzaizkion bakarraldi auek.

XXXII

"JAINKOAK ESKATZEN DIDAN GAUZA NAGUSIA ETA BAKARRA"

1905-garrenean Jainkoak jakiñarazi zion zein zan bere borondateak eskatzen zion gauza nagusia eta bakarra: bere mandatari baten esanera jarri zedin: obedentzizko bizitza bat eraman zezan diretore espiritual baten menpean. Agi danez, zuzendari bat zeukanarren, etzuan oraindik Jainkoaren agindua bete, Berak nai zuen neurrian. Bere arimari zegokion Zuzendari ori nor izan ziteken ere adirazi zion argi asko. Jose Hospital zeritzan apaiz jaun oni. Valladolid-ko Katedralean Dean zan, katalana bera. 1905-ko garagarrillean asi zan ba, apaiz au Ama Sorazuren arimako gidari eta Aita izaten, eta bost urtetan iraun zuen ardura orrekin.

Jaun ori oso maitetsu ta eztia omen zan, eta orrexen bearrean zegoan, ain zuzen ere, gure Sor Angeles, iñori bere barne-zokoak zabalduko bazizkion. Jainkozko kariño onekin artzen zualako, Sor Angelesen konfiantza irabazi zuan apaiz ark, eta ainbeste kostatzen zitzaiona, eta gaur artio se-

kula iñorekin egin eztuana, beronekin lortu zuan. Au da: bere arimako sekretuak Jainkoaren mandatari bati, elizgizon bati, agertzea; Jainkoak egin dizkion mesede arrigarriak eta bere ariman jarri dituen santutasun-aziak iñori jakiñaraztea. Gaur artio eztu olakorik bein ere egin, naiz ta Jainkoaren borondatea zala jakin; ezpaitzan bere buruarekin moldatzen: ain zan lotsati, itz-murritz ta atzerakor... Eliz-gizonak serio-samarrakedo iruditzen zitzaizkion eta etzuen biotzik izaten bere barnea aiei idikitzeko. Ezta batere arritzekoa ez apaizak eta ez kofesoreak berak ere arima onen balioa ta doai bereziak ezpazekizkiten. Diretore berriaren kariño jainkozkoak ta eztitasunak asko lagundu zion, ba, bere eginbide au bete al zezan.

Urrengo egunetan Jesusen Biotza azaltzen omen zitzaion gau ta egun; beti bere ondoan, gogo onez ta arrai, berari lagun egin naiez. "Zer da au?, zion Sor Angelesek, zer dala ta neri gauza oiek? Zer egin det nik, orrelako mesedea egin dezaidazun?" Eta Jesusek erantzuten omen zion: "Zer egin dezun? Zure ustez ain aldapa pikoa zitzaizun gauza ura (bere barneko kontuak Diretoreari azaltzea). Ikusten dezu nola etzaizun ainbeste kosta?.."

* * *

Ama Sorazuri bere bizitzan maiz gertatu zitzaion goi-ikuskizunak eta adituak ere jasotzea, irakurgai onetatik argi agiri danez. Esan bearrekoa da alere, ikuskizun eta aditu oiek etzirala aragizko begi eta belarriakin ikusi ta entzuteko mo-

dukoak. Adibidez, Fatimako artzaiak eta Lurdesko Santa Bernadetak aragizko begiekin begiztatu zuten Ama Birjiña. Sorazuren visioak etziran taju onetakoak. Adimenaren erpiñakin bakarrik jaso edo atzeman ditezken oietakoak ziran; eta noizik bein "imaginarias" deitzen diranetakoak ere bai, au da, irudimen edo barneko zentzunakin artzen diranak. Labur, adimenean edo barneko zentzunetan gertatzen ziran gauza oiek, sekula ere ez kanpoko zentzunetan.

XXXIII

AMA BIRJIÑA EZIN UTZI

Gaur artio Ama Sorazuren bizitza espirituala erabat izan da Andre Maritarra, au da, Andre Mariaren debozioaz gantzutua. Ama Birjiña izan du erregebide, bai Jesusgana eta bai Jainkoagana ere eltzeko. Baiña orain, sekula pentsatu ta uste etzuena gertatzen asi zitzaion. Ama Birjiñari bere agur onak egitera zijoakion guztietan, onek bere Semearengana joateko adirazten zion; Arengana joan eta Arengan murgiltzeko, alegia. Agindu onek sorrarazi zion kezka, etzan makala izan. Ain ongi zebillen bera Ama Birjiñarekin... Ama Birjiña bien bitarteko izanik, segurantza osoa nabaritzen zuan Sor Angelesek. Jainkoaren mesede ta grazi guztiak onen eskutik eldu zaizkio orain arte. Berak ez luke nai, ba, bestela jokatzen asi.

Jainkoaren bideak, Ama Birjiña bide-laguntzat izan gabe, bildurgarriak egiten zitzaizkion, arriskuz ta leizez inguratuak. Batez ere, etsai deabruaren lakioetatik gordeko ote zan? Ba-daki etsaiak Jainkoaren eta aingeruen itxurak artzen, eta arima gaisoak engañatzen. Bestenaz ere, Sor Angelesen biotza Ama Birjiñarekin bat egiñik ze-

goan zearo, eta lokarri auek autsi-eziñezkoak ziruditen. Adirazi zion ba bein da berriz Andre Mariari bere kezka ta gogoa. Ama Birjiñak, bere alaba zintzoaren atxikitasuna gogotzat artu bai, baiña alere Jainkoaren borondatea bete bear zala jakiñarazi zion.

Azkenik, Ama Birjiñaren beraren agindua egitearren, amor eman zuen. Baiño bere bizitzako aro berriari asiera eman orduko, alkartasun-moduko bat egin zuen Andre Mariarekin. Alkartasun edo iguala orretan berritzen zion bere buruaren eskeintza, erabat Ama Birjiñarena zala aitortzen zuan, eta baldin iñoiz Jainkoak bere arimako indar guztiak osotoro Beretzat artzen bazituen Ama Birjiñarekin ezin gogoratzeko eran, bere borondatea zala onenganaiño luzatzea Jainkoari egingo zizkion omen eta zerbitzio guztiak.

Sor Angelesek bildur zuena etzan gertatu. Bere jainkozko ibilleratan beti izango du Ama Birjiñak toki berezi bat. Baiña gaurgero gauzak beste era batera izango dira: orain arte Ama Birjiña zala bide, jotzen zuan Jesusgana edo, beste itzez esateko, Ama Birjiñagan arkitzen zuan Jesus. Orain Jesusgana joango da artez edo zuzenean, baiña Jesusgan arkituko du atzera Ama Birjiña. Beste bide batetik, baiña leen baiño obekiago. Ama Birjiñarekiko bere ar-emanak etziran ausi ez, estutu ta sendotu baiño. Jesusek eta Jainkoak emango baitiote berriz Andre Maria.

XXXIV

SOR ANGELESEN GAITZALDIAK

Maiz gertatzen zitzaizkion Sor Angelesi ondoezak eta gorputzeko gaitzaldiak. Baiña etzan au okerrena: sarri askotan, gorputzeko gaitzekin batean, arimako samin eta kezka bortitzak ere jasan bear izaten zituan. Bolara batzuetan atsegiñez igarian, zeruan balego bezela; beste batzuetan, aldiz, illunpetan galdua, tunelak aiñako illunguneak igaro bearrean.

1906-ko urrillean gaiso larri batek jo zuan. Ustez eta eriotzako ateetan zegoala, elizakoak artzeko agindu zioten. Baiña bat batean sendatu zan, denak arri eta zur uzten zituala.

Baiña orra, bere gaitzetik guztiz sendatu gabe dagoela, berriz erortzen da beste gaiso gogor batean. Bigarren gaiso onek, ordea, ba-zuen bere misterioa: ba-zan komentu artan moja bat, Sor Natividad de la Puebla zeritzana, Carrión de los Condes-koa. Moja onek erisipela gogorrak pasatzen zituan eta orduan ere gaitz orrekin zegoan. Ama Sorazuk txit maite zuan mojatxo errukarri au, batetik umezurtz pobre bat zalako, eta beste-

tik, bera bezelaxe, kantora-gisa dote gabe ta oso gazterik moja sartua zalako. Ain zuzen, berau izan zan Sor Angelesen ondotik ofizio ontan etorri zana. Aren gaisoaz errukiturik, bada, Sor Angeles bera eskeiñi zan aren ordez gaiso ori pasatzeko. Ta zer gertatuko! Bat-batean Sor Natividad bere gaitzetik libratu etzan ba! Ta gaiñera gaitz orrek berak jo Sor Angeles gurea. Oartzekoa da moja oni maiz gertatzen zitzaiola gaitz ori —erisipela, edo— eta oraingoan bein betiko sendatu eta etzuan sekula izan geiago.

Sor Angeles, berriz, gaitza pasatzen ari zan bitartean, berak mojaren alde egindako eskeintzaz aaztu egin zan guztiz. Iruditu zitzaion Ama Birjiñaren zigorra ote zan, bere maitasunean moteldu-edo egin zalako, Jesusi obeto erantzuteko aitzakiarekin. Larrialdi gorria sortu zitzaion ortik: dena ikusten omen zuan beltz, bere ustez pekatu mortalean arkitzen zan, etsaiaren atzaparretan; irtetzeko biderik ikusten ez, gaiñera ta abar. Bere arimako Aita egun aietan beste zeregiñekin zebillen, eta orregatik, ura ta beste guztiak ere engañaturik zeuzkala iruditu zitzaiolako, etzion otsegin, eta bakar bakarrik pasatu zuan eraso garratza. Zorionean, komunidadeko kofesore arrunta klausuran sartu zan Ama Sorazu kofesatzera, eta absoluzioa eman zion bezain laister barneko illuntasun guztiak aienatu ziran.

Onelako estualdiak maiz izaten zituan. Bide txarretik ote zebillen, deabruak engañatua ote zeukan ta olako duda asko gertatzen zitzaizkion. Aita Zuzendariaren bizkarrari sendo eldu-bearra ba-

zeukan, bere buruaren asmazioak itoko ezpazuten. Edozein uskeriagatik sartzen zuan bere burua istillu gorritan. Gorputzeko osasunakin ere beti erkin, aul, beti il-bizi ta makal antzean, ta orrela Jainkoak beragana deitzea erabaki zuan arte. Arritzekoa da benetan, barne ta kanpo, orrela gaitzak jota zegoan emakume ark, ain bizitza jainkozkoa eramatea eta ain lan arrigarriak egitea, batez ere bere komentu ta komunidade maitearen alde.

XXXV

IRU URTE, SAMIÑETAN

1907-gntik. 1910-ra bitartean, au da, iru urte luzetan, illuna jausi zan Sor Angelesen biotzera. Zeatz mintza gaitezen, Jainkoak etzuen bere eskutik utzi, ia etengabe mesede arrigarriak egiten zizkion, baiña ala ere kezka ta zalantza batean bizi zan beti. Bere arimak zeraman bide ura, ba ote zan ona, gero? Deabruak ez ote zeukan engañatua? Pekatu mortalean arkitzen ote zan?, ta abar. Burutazio oiek kezkatzen eta nekatzen zuten egunero, iltzeraiñoko estuasunetan jartzen zuten.

Kezka auen sustarra ere esan bearrekoa degu. Berez ere ba-zan olako eskrupuluetara griñatua; baiña oraingo ontan beste zerbait ere ba-zan, orrezaz gaiñera. Gorago esan degunez, Sor Angelesek ba-zeukan bere Aita Espirituala, Don José Hospital zeritzan apaiz ura. Jaun onek laguntasun aundia eman zion, batez ere lenengo bi urteetan. Oso eztia baitzan, eta ala Sor Angelesek errezago egin al izan zuen Jainkoak agintzen ziona: beraren mandatari-bati barrena idikitzea, alegia. Baiña mundu ontan danok ditugu gure

utsak, eta Jainkoaren mandatariak ere bai, noski, gizonak dira-ta. Eta denporarekin Sor Angelesek oartu zuen bere Aitak ba-zuela uts nabari bat: oso siniskorra zala, alegia, eta gauza miraritsu ta arrigarrien gose bizitan bizi zala. Sor Angeles, berriz, egia-zale zan gauza guztien gaiñetik. Bide arrigarri ta miraritsuak baiño maiteago zituen bide arruntak eta lauak, besteak bildur ematen baitzioten. Eta nai ta naiez gertatzen zitzaizkion grazi arrigarriekin estutu egiten zan geiago: ez ote ziran gauza guzti oiek etsaiaren engañu bat izango? Beraz, kezka ori aienatuko bazuen, buru otzeko ta zentzu aundiko Aita baten bearrean zegoen; bere iritzi otz, burutsu ta zuzenarekin segurantza eman zezaioken bat. Baiña apaiz ura etzan olakoa: gauzak bear bezela aztertu gabe, denak ontzat ematen zituen nunbait. Nola fiatuko zan ba, aren iritzian?

Gaiñera —eta au izan zan okerrena—, Valladolid-ko Arzobispo Jaunaren esan batek erabat naastu zuan. Gauzak onela gertatu ziran: Arzobispo Junak galdetu zion bein Ama Sorazuri ia norekin dirijitzen zan eta onek azaltzen dio Diretorearen izena. Orduan Arzobispuak auxe esan zion: Jaun ura etzala bear bezelakoa, berari ezer ez esateko, baiña aren esanetan ez fiatzeko, ta abar. Arrazoi auengatik gorriak ikusi bear izan zituen: itxuraz jaun arekin dirijitzen zan, baiña ziñez ez, ortarako bear lukean fedea galdua zuelako. Beste askorekin ere kofesatzen zan, egokiera zuen guztietan, argibide zerbait billatu naiez, baiña alperrik: denak engañatzen zituela iruditzen zitzaion. Gezurra dirudi: Jainkoa baitan

murgildurik bizi, eta denpora berean pekatu mortalean zegoelako bildurrakin zebillen beti. Edozein modutan ere, eta gauzak goragotik artuaz, Jainkoak ondo ikusten ditu istillu eta bearleku auek, Berak dakizkin bideetatik arimak eldutasunera eramateko.



Ama Sorazuren marrazkia: «Nik desiatu nuenaren itzalpean eseri nintzan...» (*Ikus* XLII).



Angeles Sorazuren illobia, bere erritarrek oroigarritzat jarri zioten arriarekin.

XXXVI

JAINKOAREN ZORIONTASUNEAN MURGIL

1908-ko Maiatzean gorputzeko eritasun batean erori zan berriz ere. Eritasun ontan oiñaze ta min aundiak ikusi bear izan zituen. Baiña min guztiok Irutasun Santuari eskeintzen zizkion asmo onetarako: Berak Ama Birjiñari emandako doai eta bikaintasun guztiak nolabait ordaintzeagatik, alegia. Alde batetik egundoko miñak, baiña bestetik pozaldi ta konsolaziorik garbienak ere dastatu omen zituen gaitzaldi ontan; batez ere, Jesus eta Mariaren bisitak maiz izan zituen. Gazte-gaztetanik biotz osoz Jaunaren zerbitzura jarri zala-ta, Jauna ere berari laguntzera beartuta balego bezela azaltzen omen zitzaion, guztiz ezti eta arrai.

Gorago esan genduan nola Abadesaren jostaketa izaten zan Jainkoari eskerrak ematean, bere Seme Bakarra gizon egiñik eman zigulako. Orain, berriz, jostaketa ura beste batekin trukatu zuen. Jainkoak bere izate arrigarrian dauzkan bikaintasun guztiak gogoratu, eta oiekgatik poztu eta Jainkoari berari zorionak biurtu: au degu Ama Sorazuren oraingo jarduna. Trinidade Santuko iru Personekin, Aita, Semea ta Espiritu Santuarekin,

bana-banaka aritzen zan, bakoitzak duan gloria baztergabea ta zoriontasun giñarritsua ausnartuaz. Jainkoaren izate ta "tasun" oiengatik atsegin artu, eskerrona erkutsi ta zorionak biurtu egiten zizkion Jainkoari berari.

Erokeriak diruditen ateraldiak ere esaten zizkion Jainkoari bere solas oietan; baiña nork eztaki biotzaren izkera eta buru otzarena eztirala bat? Orra biotzaren erokeri oietako batzuek: "Eta zer esango ote diot nere Jainko maiteari?.. Zu ba-zerala jakite utsak pozez betetzen nau, ia itotzeraiño. Zu bizi zerala dakidan bitartean, eztago atsekaberik neretzat. Eta Zu zoriontsu zerala jakiteak, nerau ere zoriondu ta zoratu ere egiten nau, eta inpernuan bertan ere zoriontsu izango nintzakela uste det. Noraiño zeran on, Jauna, zure Zoriona nere eskuetan ipintzen baitezu, nerea balitz bezela goza dezadan! Nerea bezelako zorionik eztago. Jaungoiko Aita, Jaungoiko Seme ta Jaungoiko Espiritu Santua nereak ditudala gogoratzeak ematen didan bezelako pozkarioa... Zuk egiten dezu nere zoriona lur ontan... Nere burua baiño milla aldiz zaitut maiteago. Ni banintza Jainko, nere Jainkotasuna utzi eta Zerorri emango nizuke. Zerez daukazun izate bikain ori ar zazu, bada, Jauna, nere erregalu bat balitza bezela, bene-benetan opa dizut-eta..."

Ziñezko ta urregorrizko karidadearen agiriak dira auek. Ama Birjiña biotz osoz maite dualako, aren zoriona ta ondo egotea nai du bere buruarena baiño geiago, ta bere oiñazeak eskeintzen dizkio Jainkoari, Onek Ama Birjiñagatik egin duena

nolabait ordaintzeko. Jainkoari, berriz, bere zorion ta gloria arrigarriagatik zorionak ematen dizkio. Bera, Sor Angeles, kaxkarra ta erkiña dala jakiñarren, zer ajola zaio? Ez al da naikoa Jainkoa ba-dala jakitea, ta zorionean igari ikustea? Orrek ematen dio zorion bat, beste poz eta atsegin guztiekin parerik eztuena.

Ez ote dira auek, guri, lurtarroi, zirrara ta zorabioa sorrarazteko moduko sentipenak?

XXXVII

ZALANTZA UTSA

Ama Birjiñak jakiñarazi zion bein Sor Angelesi bere arimaren santutasunerako ta salbaziorako bear zituen grazia denak Aita Espiritualaren bitartez emango zitzaizkiola. Leenago zuzenean eta bitarteko gabe artzen bazituen ere, geroztik direzioaren bidetik elduko zaizkiola. Eta fede orretan bizi zan bera, naiz ta direzioagatik istillu gorriak pasatzen egon.

Izan ere, bere zalantzak eta kezkak geroago ta aundiagoak ziran. Jainkoarekin guztiz lagun eta Arengandik mesede arrigarriak etengabe artzen, eta ala ere betiko kezka ura ezin burutik kendu: pekatu mortalean ote zegoan, alegia. Zalantza utsa izatera iritxi zan.

Gezurra dirudi, eta irakurle batek baiño geiago pentsatuko du ia nola ulertu edo nola alkar josi ditezken emen orain dioguna eta aurreko kapituluan esan ditugunak. Denpora berean eta arima berberean nola arkitu ditezken orren alderdi ezberdiñak eta arpegi ain bestelakoak: bata argia, bestea illuna, bata zuria, bestea beltza; baiña ala da, eta aren bizitza eskribitzen ari naizen ezkero,

egiari zor natzaio, eta gauzak diran bezela jarri bear ditut.

Sor Angelesek, bada, pekatuan zegoala uste izaten zuen. Al zuen kofesore guztiekin kofesatzen zan, baiña dana alperrik: kofesore denak engañaturik zeuzkala-edo iruditzen zitzaion. Bakarrean Jainkoarekin ere maiz kofesatzen zan, eta kofesio auek lasaitasun pixka bat ematen zioten, baiña ez pakean gelditzeko eran. Bere ustez galdurik zeukan Jainkoaren grazia apaizak bakarbakarrik eman zezaioketela ba-zekian-da.

Jainkoaren Justiziak, Santutasunak ta beste bikaintasunak ostutzen zioten biotza. Jainkoaren garbitasun ta zuritasun zoragarria ikusi, eta bere arima zearo garbi, santu eta zuri izatea zan bere gogo guztia. Jainkoaren "tasun" oiekin maiteminduta egon, eta bere burua zikin, beltz eta itxusi nabaritzea, ori zan min bat esan diteken baiño jasan eziñagoa.

"Dena ikusten nuan Jainkoaz betea: gela, baratza, loretegia, baita teillatuko teillak ere: bai, oietan ere Jainkoa nabaritzen nuan. Jainkotasunaren ikuste onek berebiziko poza ematen zidan; gaiñera, etengabe ari nintzan Aren esku ongilletik mesede guzizkoak jasotzen; baiña ala ta guziz ere, nere atsekabe eta samiñak aurrera zijoazten."

Azkenean, 1910-ko Martxoaren 25-ean Ama Birjiñak adirazi zion zalantza oiek laister bukatu bear zutela: komentu artara kofesore "extraordinario" bezela etorriko zan leenbiziko Aitaren bitartez uxatuko zituela denak. Gauza jakiña da

nola klausurako mojak izaten dituzten kofesore "extraordinarioak", urteko kuarta tenporetan. Etorri ere, Sor Angelesek uste etzuena etorri zan: Aita Mariano Vega-koa, Kaputxinoa. Probintzial izandakoa, eta orain Leon-go komentuan Teologia irakasten zegoena. Leon-aldeko erri txiki bateko semea zan. Berau azaldu zan ba Uztaren lenengoan, eta gaurdanik berau izango du Sorazuk arimako Zuzendari berri. Berau izango da Sor Angelesen Aita jatorra. Beronekin bete zuan Ama Birjiñak aurretik eman izan zion itza.

XXXVIII

LIXIBA-BEARRA

1910-ko uztan asi eta 1913-ko urrillera arte izango du Aita Marianok Sorazuren arimako ardura. Bere tokian salatuko degu nola eta zergatik eten zan urte ortan direzio au. Geroago, berriz, Sorazuren bizitzako azken amasei illabeteetan atzera ikusten degu Aita Mariano Sor Angelesen diretore bezela, au da, 1920-ko apirilletik 1921-ko dagonillera arte.

Aita Mariano etzan Valladolid-en bizi, Leon-en baizik. Aldi artan Kaputxinoek etzeukaten Valladoliden etxerik, eta prantziskotarrek ere ez. Beraz, arimako kontuak eskribuz edo kartaz eman bear izaten zizkion Sor Angelesek. Ori dala-ta, Aita Marianorekin ibilli zaneko denporan eskutitz asko idatzi zituen bere arimako gauzezaz, eta oiek danak orain argitaraturik daude, iru liburutan.

Esan dezagun onezkero Diretore berriak nolako egoeran arkitu zuan arima au. Aurreko orrietatik ba-dakigu: milla kezka ta barneko samiñek jana. Argi-uneak eta mesedeak izaten zituen, bai,

baiña samiñekin naastean, eta auek agiri ziran nagusi.

"Aita Marianoren esanera jarri nintzanean, zera nintzan ni: zalantza ta aldaketa uts-utsa. Jainkoagan ta Aren ontasunagan ez nuen dudarik, orixe ez, baiña bestela, gaiñerako gauza guztietan izaten nituen zalantzak eta ezbaiak. Ogeita lau ordu ez nuen irauten sen batean. Udaberri ta udazkeneko zeruaren pare zan nere arima. Urteko sasoi oietan zerua nola egoten dan orain garbi eta andik gutxi estalia, eta beti aldakor? Ba alaxe zan nere arima: orain illunetan, gero argitan, orain dena beltz ikusten, ta abar. Lur-azpitik, edo nik nion bezela, tunel-artetik nenbillenean, nere arima Jainkoaren begitan gorrotagarri zala ziñisten nuan. Orduan ez nuen izaten zorion-aldiko egunen gomutarik. Eta berebat gertatzen zitzaitan zorion-aldietan: oixtian izandako samiñak zearo aaztutzen zitzaizkitan."

Oiek ola, Aita Mariano saiatu zan arima au zentzatzen eta pakean jartzen, baiña alperrik. Laister konturatu zan an ba-zegoela zerbaiten premia: arima aundi ura, alegia, lixiba gogor baten bearrean arkitzen zala. Jainkoak gaillur erpin baterako zeukala autatua, baiña ara orduko garbiketa ta astiñaldi sendo bat artu bearrean zala. "Tira, ekarri zan ire pekatuen soiñeko zarpil ori", esan zion.

Bere pekatuen gomuta zan, ain zuzen ere, Sorazuri egon-ezin ura ematen ziona. Baiña ez edozein pekatuk: munduan bizi izandako denporakoak eta komentuan lenengo iru urteetan

egindakoak, oiek ez, oiek etzioten miñik ematen: oiek betiko desegiñak eta utseratuak zeuden: bere konzientzian etzan geiago oien arrastorik. Geroztikakoak ziran min ematen ziotenak: azkenengo amasei urteetan egindakoak, 1895-tik onera bitartekoak, Aurreko aiek, leenbiziko *gau* edo illunaldi artan garbitu ziran nunbait; eta orain, ordutik onera bitartekoak ari da bigarrengo gau luze ontan samiñetan garbitzen.

Bere Aitak eskatu bezela, gutun luze bat bialdu zion Sorazuk 16 urte auetako utsegite guztien kontu zeatza emanaz, Jainkoak berari egindako mesedeekin batean. Sorazuren idazki au aurrean zuala, Aita Marianok Epistola luze ta bere gisako bat atondu zuan, ark egindako gaiztakerien larria adieraziaz. "Jainkoa zuk ezagutzen dezun bezela ezagutu eta nola ofenditu al izan dezu orrebesteraiño?" Au ta onen antzeko zirto sarkor-erdiragarriak arkitzen ziran Epistola artan.

Idazki onekin Aita Marianok lortu zuena ezta errez azaltzea. Sekulako biotz-miña ta damutasun bizi-bizia... Etsipenezko momentuak ere izan zituan. Baiña bearrezkoa zan ukaldi gogor ura bere garbialdia gainditzeko. Eta orain aurki degu Sor Angeles Jainkoak nai zuen gaillurrean.

XXXIX

BIZIERA BERRIA

1911-ko garagarrillaren 11-an, Trinidade Santuko igande-bezperan, alegia, Sor Angelesen bizitza aro berri batean sartzera dijoa. Egun ortan artutako grazia, mugarri antzo nabari zaigu bere Jainko-bideetan. Arrezkeroko bizitza eta ordura artekoa oso ezberdin eta bestelakoak dira, izan ere, barneko paisajeari begiratuaz.

Baiña gertatuaren muiña azaldu dezagun. Aita Mariano arkitzen zan Sor Angelesen komentuan, Komunidade guztiari Ejerzizioak ematen. Eta esandako egun ortan, Ejerzizioak bukatzera zijoaztela, goizeko bederatzietan, komunidadea bildu zan Aitaren platika entzuteko. Ontan asten da Aita bere platikako gaia Eskritura Santako itz batzuekin adierazten: *Caritas Dei diffusa est in cordibus nostris per Spiritun Sanctum qui datus est nobis*. Itz oek entzutearekin batean, azaltzen zaio Sor Angelesi Jainkoa iru Personatan, bere besartera etortzeko prest. Iñoiz ez bezela sumatu zuen une artan bere buruaren utsa eta egindako pekatu danen damua, baiña ala ere etzegoen Jainkoaren eskeintzari ezetzik emateko. Ama Birjiña

bitarteko jarririk, bai bere pekatuen parkamena eta bai Jainkoak eman nai zion grazia ere, bi-biak eskatu zituen. Eta Ama Birjiñak Jainkoari erregutu bezain laister, iru Jainkozko Personak bana-banaka erortzen dira Sorazuren arimara eta bertan jartzen dute beren egotezko bizi-lekua.

Urrengo goizean, Trinidade Santuaren pesta-eguna zan. Aita Marianok meza nagusia eman zuan, eta Trinidade Santuaren prefazio ospetsua kantatu zuanean, Sor Angelesek Jainkoa baitan begiztatu zituen prefazio orretan adierazten diran misterio guztiak.

* * *

Gaurgero biziaro berria asten da Sor Angelesentzat. Jainko-bideetan gaillurrik gorena jo du. Jainko utsarekin elkartasunezko bizia. Bein goratasun auek artu ezkero, gelditzen diran gauzak eztira esan-errezak. Jainkotasunaren atributu, doai eta bikaintasunak gozatzea, oietan parte artzea, eta itz batean, amodiozko bizitza Jainko bakar ta irukoitzarekin, ori izango da bere jarduna emendik aurrera.

Gaurdanik Jainkoaren barnean du bere bizi-lekua. Bai Ama Birjiña eta bai Santuak ere Verbuaren kondairan sarturik agiri zaizkio. Eta egun guztiak, egun bat eta berbera izango da beretzat: Irutasun Santuarena. Naiz Korpus izan naiz Jesusen Biotza, beretzat denak ziran egun bat eta berdiña, ots: Trinitate Santu.

Andik illabete gutxira Aita Marianori egindako eskutitz batean, onela ziotsan: "Asi nintzan

bizitza zerutar bat egiten, gloriazko biziera bat Jainko Bakar eta Irukoitzarekin, alaitasun eta pozkariozko bizia, etengabeko pesta-eguna, baiña Jainkoarekin eta Jainkoa baitan. Uste nuen ordu guztietan ari nintzala Trinidade Santuaren prefazioa berorri entzuten, eta egun guztiak bat zirala, au da, Trinidade Santuaren eguna. Uste nuen egun ori eta pesta ori etzala pasatu eta ez bukatu, eta Korpus egunean edo Jesusen Biotzaren egunean ere Trinidade Santuaren ofizioa errezatzen ari nintzala iruditzen zitzaidan."

Oituratzat artu zuen pesta aundi ortako Prefazioa esatea, kontenplaziorako bide bezela. "Aita alguztidun, Jainko bakar, betikoa eta guztiz santu zerana. Zure Seme Bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin Jainkoa bakar bat osatzen dezuna: ez Persona bakarra eta bai iru Personatan izate bakar bat zeralarik. Eta Zerorrek jakiñarazirik, zure ospeaz siñisten degun guzti ori, orixe bera bai zure Semeaz eta bai Espiritu Santuaz ere aitortzen degu. Era ortara, Jainkotasun betikoa aitortuaz batera, Persona bakoitzaren berezitasuna eta izate bakarraren batasun, gloria eta jauntasunean berdintasuna adora dezagun". Au da Prefazio eder onen muiña, ainbeste aldiz Sor Angelesi bere otoitzerako gaia eman ziona.

XL

JAINKOAREN "TASUNEKIN" JOLASEAN

Sor Angeles goreneko egoitzara eldua degu Jainko-bidean, Mistikak ezagutzen duen gaillurrik goratuenera. Amar urtean iraungo du oraindik mundu ontan. Eta amar urte oetan, kanpoko alderdiari bagagozkio, ikusi bear ditu oraindik amaika istillu eta goibera; barne aldeko biziari begiratzen badiogu, berriz, a zer nolako ikuspegi arrigarriak! Bere Jainko-bizitzan nabaitu ta dastatu zituenak or gelditu zaizkigu bere liburuetan. Nork eztu sumatzen ezur-mamitan dardara eta buruan zoroa, emakume euskaldun onek idatzi dizkigun goratasunak irakurtzean? Laburpen murritz onetan zerbait adirazi al bageneza!

Jainkoa baitan jarria degu ba, yadanik. Emen du orain bere etxea, bizi-lekua. Jainkoari itsatsita balego bezela iruditzen zaio, aren zati bat balitz bezela (ala ere ez pentsa kreatura uts bat dala astu zaionik. Kreatura bai, baiña ala ere Jainko-bizitzaren partalier). Jainkotasun utsa izango du gaur gero bere kontenplakizun bakarra. Ezkutatu ote da, beraz, Jesukristo bere arimako bistatik? Bai ta ez. Jainko utsa, ta beroni dagozkion

"tasunak" dira oraingo bere azkurria, ez len bezela Jainkoaren Seme gizon egiñaren bizitzako gertaerak; baiña ala ere nabaitzen du eztala arkitzen bakarrik edo Jesusgandik aldendua lurralde berri ontan: Jesusekin batean dagoela, eta oni eskutik elduta sartu dala Jainkotasunaren errian.

Leenbiziko egunak, egoera berri ontan, betetasunezkoak izan ziran. Arimako mugak eta neurriak mukurutuak zeuden, aseak, ezpaiñetaraiño beteak, alde orotatik gaiñezka zeriola poza, gozoa, alegrantzia. Jainkoaren aintza, gloria, zoriona dastatzen eta miazkatzen baitzuen. Bein da berriz, eta iñoiz aspertzeke, ari zan "Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari"... otoitz labur au esan eta esan; eta batez ere bigarren ahapaldia ebakitzean ("Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, eta gizaldi eta gizaldietan. Amen"), ezin esan alako pozjarioa sumatzen zuen erraietan: Jainkoak bere bere eta betidanik duen ezin galduzko gloria gogoratzen baitzitzaion. Garai artan dena azaltzen zitzaion Jainkoaren gloria ortaz jantzirik, Gurutzeko Jesus bera ere bai.

Baiña betetasun au ezta luzaroko. Zenbat eta aundiagoak izan Jainkoaren mesedeak, arimako bazterrak ere zabaltzenago dira, eta Jainko gosea ere gero eta geiago bizkortuaz eta geituaz dijoa.

Jainkoaren "tasunekin" artu-emanetan sartua degu gero Sor Angeles. Tasunak, ots, atributuak, Jainkoaren bikaintasunak dira. Oraingo ontan Justizia edo Zuzentasuna nabari zaio beste guztien artean zoragarri, maitagarri, desiragarri. Ura beretu nai, artaz jantzi nai. Ain deritza eder ta li-

lluragarri! Baiña Jainkoaren atributu au nola ar dezake kreatura gaxoak? Pekatua daramagunok gure izatearen muiñean? Justiziak pekatu eta oker guztiak erre ta kixkali nai ditu; ez utsean parkatuaz, baiñan oker egiñen ordaiña eskatuaz. Eta ain zuzen ere ori da egoera ontan Sor Angelesi barrenak eskatzen ziona.

Auxe bera edo olako zerbait gertatzen omen zaie Garbitokiko arimei ere. Auek ere leia biziz nai dute beren zorrak garbitu Jainkoaren Justiziarekin, eta ez luteke onartuko, Justizia oni berea eman gabe, parkatuko balitzaizkie. Jainkoak etzituen bere legeak alperrik jarri, txintxo gordeak izan zitezen baizik. Eta pekatu egiñaz egiten dan okerra, ordaindu ta zuzendu egin bear da, naiz mundu ontan naiz bestean. Ala ere, Jainkoa baitan, Zuzentasunaz gaiñera, ba-da beste "tasun" bat: Kupida, Errukia. Jainkoak azaltzen zion au ere, baiña oraingo ontan min ematen zion Sor Angelesi, besteak, Justiziak zeramakiolako gogoa. Azkenean erakutsi zion Jainkoak nola bere bi "tasun" auek besarkaturik eta bat egiñik dauden Jesukristo Jainkoaren Seme gizon egiña baitan, eta orduan lasaitu zan.

XLI

IDAZLARI

Arantzak eta samiñak eztitu falta izango, alere, bere egoera berrian. Ori bai, an biotzondoan, arimaren zolan, ezin esanezko pake ta zorion bat etengabe berakin duelarik. Itxaso aserrearen pare izango dira oraingo ekaitzak. Ur-azalean gertatzen dira olatuen zalapartak eta erotu-bearrak: ondoan, berriz, ur aundien azpian, an eztago ekaitzik, araiño eztira eldu aizearen burrundarak eta ur-zurrumilloak.

Jainkoarekin ain kutunki bizi dana, nai ta naiez, gero, munduko lagunekin ar-emanetan sartzen danean, biotz erori bear. Eta ori, bere aizpatxoak gaitzik egin nai ez diotelarik ere. Berez gertatzen dana baita. Jainkoa miazkatu duenarentzat gizakume oro ain dira otz, izotz, kaxkar, berekoi, uts, ustel eta ziztrin... Eta oiekintxe bizi bear... Zeruan azia izan dan aingeru bat lurrera erbesteratua izan balitza bezela... Jainkoa guztiz bero, amodio uts, dena maitekor ezagutu, beronekin ar-emanik estuenean bizi, eta gero, izotza bezin otzak diran gizakumeekin jardun bear. Oi-

ñaze onen aundia ezta errez neurtzea arima zerutar oien berri eztakitenentzat.

Ortaz gaiñera, beste bear-leku gogor bat ere ba-zuen Sor Angelesek: idazlanean aritu bearra, bere Aita Zuzendariaren aginduz. Bai, garai ontan, 1911-tik 1913-ra bitartean, bere bizitza idazten zebillen, Autobiografia deritzaion liburu ederra. Eta amaika buruausteen iturri biurtu zitzaion lan ori. Alde batetik, nola itzuli giza-izkuntza batera berez zerutarrak eta espiritu utsezkoak diran gauzak? Gizonen izkuntzetako itzak, eta ez itzak bakarrik, baita ere itzen azpian dautzan ideiak edo gogaiak, eztira gai, eztute egokitasunik, arimak bere Jainko ar-emanetan sumatutakoak mamitzeko. Beraz, tresna ezdeusa erabilli bear, au lana! Idazten zuan guztia ain iruditzen zitzaion geldo, motel, hits eta egiatik urrun...

Eta beste istillu bat, oraindik txarragoa: idazlanetan arituko bazan, nai ta naiez bere arimako indarrak katigatuta euki bearrean arkitzen zan, mundu ontako usario-legeai kasu egiteko. Ego aundi-zabalak euki Jainkoagana abiatzeko, eta oiek moztu egin bear, beren abiadura galerazi egin bear. Jainkoa eta mundu onen artean dagoan leizea ezin gainditu, emengo aldean bizi bear. Bestela ezpaitzan gauza idazteko. Min au, Garbitokiko arimak Jainkoagandik urruti egoteaz daukatenakin konparatzen du berak. Eta ain zuzen, eramangarri etzalako, Aita Marianok noizetik noizera barkazioak ematen zizkion, idazlana laga eta erabat Jainkoagana abia zedin. Batzuetan aserre-antzean jartzen zan Sor Angeles bere Aitarekin, orrelako istilluetan sartzen zuelako.

XLII

MARRAZKILARI

Mistika izeneko jakintza-saillean ezagunak dira "toques sustanciales", ots, ikutu ginarritsuak. Zer diran? Jainkoak egoitza auetara goratu dituen arimei egiten dizkien mesede arrigarri batzuek, goi-zizta, argi eta amodio-kolpe batzuek. Oietako asko jasan eta artu zituen Ama Sorazuk garai ontan. Eta danak zeukaten zer-ikusi Jainkoaren "tasunetatik" bat edo bestekin. Dala Justizia, edo Jakituria, naiz Egia, Amodioa, Ontasuna, Santutasuna, Batasuna ta abar. Eta mesede ori artzen zuen bakoitzean, zer ikuspegi arrigarriak zabaltzen zitzaizkion! Jaiotzatik itsu izan dan norbait, bat batean ikusmena etorri eta mundu ontako ikusgarriak argituko balitzaizkio, ez litzake jarriko ain arri ta zur egiñik, nola jartzen zan Sor Angeles Jainkoarekiko azaltzen zitzaizkion gauzekin.

Ala gertatu zitzaion, adibidez, Egiaren tasuneko ikutua artu zuanean. An ikusi zuen, baiña ez nolabait ikusi, sentituaz eta dastatuaz baizik, kreatura guztiak ezereza ta utsa dirala, daukaten izatea ere iñork emana dutelarik. Jainkoak, berriz,

bere baitatik duela bere izana, Bera dala Izan oso eta betea, egia bakarra, eta, labur: "Dana"....

Eta zer esan, Trinitatearen misterioan begietaratu zitzaionaz? Bere arridurak muga ta neurri guztiak gaiñezkatu zituen. Makiña bat egunez egon zan besterik esaten etzekiela, auxe baiño: "Zeiñen aundi, zeiñen arrigarri... eta nerea det... eta Ura dan bezelakoxea ikusteko egiña naiz, Ura beti-betiko gozatzeko. Au zoriona..."

Garai ontako bere kondaira ba-du nun irakurri. Testamentu Zaarreko liburu sonatu artan, "Kanturik Ederrena" (Cantar de los Cantares) deritzaion artan, alegia. Bein, loretegiko indisagarrari (membrillo) begiratzen ziola, liburu santu ortan datorren ahapaldi ura ekarri zion gogoak: "Nik desiatu nuenaren itzalpean eseri nintzan, eta aren frutua bai dala gozo nere eztarrirako..." Arbola desiragarri ori Aita Zerukoa da, eta bere itzalpean eseria degu Sor Angeles, arbola orrek eskeintzen dizkion frutu bikaiñak artu eta aoratuaz. Arbola orren —Aita Zerukoaren— frutu oiek zeintzuk ditezken esan bearrik eztago: Jainkoaren Semea eta Espiritu Santua, Trinidadeko bigarren eta irugarren Personak, Aitak mundura bialdu zizkigun Mandatari eta Mixiolariak...

Ba-du Sor Angelesek marrazki bat, auxe adirazteko egiña. Arbola baten itzalpean moja bat agiri da eseria. Arbolaren adaburuan Aita Zerukoa ikusten da. Eta arbolatik zintzilika, bi udare aundi, bikaiñak (Semearen eta Espiritu Santuaren irudiak, alegia). Mojatxoak eskuak luzatzen

ditu bi frutu oietara. Ain zuzen ere, aldi ontako bere istorioa utzi digu marrazki ontan mamitua.

Marrazki geiago ere utzi dizkigu Sor Angelesek, eta denak, edo geienak beintzat, bere barne-bizitzako pasadizuak adiraztera emateko eratuak. Askotxok, len aipaturiko Kantuaren liburutik dute gaia, baiña ori da, noski, libru ortan ikusten zuelako, ispillu batean bezelaxe, bere arimako gora-beren istorioa.

XLIII

BERE AITA KENTZEN DIOTE

Aurrerapen ikaragarriak egiña zan Sor Angeles Jainko-bideetan, Aita Marianorekin zeraman denporan. Eta nork esango lukean! —Jainkoaren asmoak beti adoragarri, guk ulertu ezin baditugu ere— goizetik gabera ara nun kentzen dioten Aita ori. 1913-ko Urrillean zan. Sor Angelesek, etxeko Abadesa bezela, txartel bat artzen du. Valladolid-ko Goi-Apezpikuaren Jauregitik dator. Auxe dio: "Komentu ortako Abadesa eta moja guziei galerazten zaie Aita Marianokin ar-emanik izatea, bai itzez eta bai eskribuz..."

Garbi, murritz, erdiragarri. Ukaldi gogorragorik ezin asma ziteken Sor Angelesentzat. Era lotsagarri ortan bere arimako gidaria etxetik egotzia...

Zer gertatu zan Eliz-agintariak orrelako debeku bat emateko? Itz gutxitan: Aita Mariano Leon-en bizi zan eta sarritxo egiten zituen bere osterak Valladolid-era Sor Angelesen eta bai komentu artako beste moja batzuen ardura artzeko. Komentuak, ordea, ba-zuen beste erlijioso bat, Valladoliden bertan bizi zana, asteroko kofesore

bezela izendatua. Eta onek, dirudianez, etzuen begi onez ikusten Aita Marianok komentu artan zeukan ospea, bere burua baztertua edo gutxietsia balego bezela... Jo zuen ba Obispadura eta bere esamesakin debeku ori lortu zuen.

Debeku onen isatsa etzan makala izan. Aita Marianok etzuen deus ere egin bere burua garbitu edo emandako ordena desegiteko. Urte artako Ejerzizioetan beztugarriak opa izateko erabakia etzuen artu ba? Eta orain, eskura zetozkiotenean ez al zituen onartu bear? Onela eten eta bukatu zan oraingoz Aita Marianoren zuzendaritza. Oraingoz diogu, zeren zazpi urte geroago, Sorazuren bizitzako azken illabeteetan, berriz ikusiko degu Aita Mariano lengo lekuan, arima onen ardura eramaten, alegia.

Eta nola artu zuan Ama Sorazuk kolpe eskerga au? Jainkoaren Borondatea, Jainkoaren Nai Santua, auxe zan, ain zuzen ere, Jaunaren tasunen artean, aldi artan ausnartzen eta dastatzen ari zana. Iturburu onetatik eldu oi zitzaion gloriazko ibai bat, miñantze oro galerazten ziona. Miñaren eztena iñoiz barnera sartzen saiatzen bazan, "Ez larritu!" oiu ozen bat somatzen zuan an, barne-muiñetan; eta asko zan itz ori —itz ginarritsua baita (palabra substancial)—, beingo batean atsekabe denak uxatu eta zokoratzeko, eta arima gloriazko baga batez estalia uzteko.

XLIV

"IDIKI ZADAN ATEA, ARREBA..."

Arimako Aita kendu ziotenean, iñor gabe egon zan zati batean, Zuzendari gabe, alegia. Eta berez, bere gogoaren esanari siñistu izan balio, alaxe egongo zan sekulako. Baiña ez, ba-zekian ondo zein zan Jainkoaren naia; eta argi ikusten zuan gaiñera bearrezkoa zuela bitarteko ori Jainkoaren eta bere arimaren artean: bestela bere Jainko-bizitza agortu eta aitu egiten baitzan. Aita Marianoren utsunea, bada, nolabait bete bearko. Aita Narziso Nieto, prantziskotarra, Calabazanos-ko mojen kapellau zegoena, begiz jo zuen artarako; eta onekin ibilli zan urte pare batean; baiña gero, Aita onekin tratatzeko erreztasun gutxi zeukalako-edo (ezpaitzan Valladolid-en bizi), beste bat artu zuen, Aita Alfonso Vega, Dominikua. Au bai, Valladoliden bertan bizi zan, eta beronen bidez asko lagundu zion Jaunak. Ala ere Sorazuk beti aitortzen zuen Aita Mariano izan zala bere Aita jatorra eta aukera-aukerakoa, bere-beretzat egiña eta Jainkoak bidean jarri ziona, besteai zor ziena ukatu gabe.

Iñundik ere direzio-bearrak, eliz-gizon baten bearrak —gidari, aita, aolkulari bezela— toki aparta du Ama Sorazuren bizitza espiritualean.

* * *

Aita Narziso ori diretore zegoela, bada, Sor Angelesen Mistika-bideak gaillur berri bat iritxi zuen. "Nik gutxien uste nuenean, Jainkotasun utsaren kontenplazioan betiko bizi bear nuela uste nuenean, orra ate-joka norbait: Idiki zadazu atea, arreba..." Nor zan orrela oles egiten ziona? Jainkoaren Seme gizon egiña. Bai, Jesus, Jainko eta Gizon, bere bi izate oiekin. Eta zer eskatzen dio? Jainkotasun utsaren kontenplazioari erantsi dezaiola Jesusen misterioen berri. Zerbait kanpokoa izanik ere, Jainkoaren kontenplazioan sartu dezala Jesusen gizatasuna, bere misterio guztiekin. Orain arte ezin zezaken ori egin Jainkotasun utsaren ausnarrean zebillen bitartean, baiña ori zan, noski, bere erruz, bere moztasunez. Orain, berriz, eldu da orrenbeste egin diteken maillaraño.

Jainkotasunari dagozkionak utzi gabe eta goratasun ortatik jetxi gabe, Jesukristorekikoak izango dira berriz ere bere azkurria. Aren Jainko-semetasuna miazkatu, semetasun ortan parte izan, aren bizitzako misterioak bana-banaka berritu, eta batez ere misterio oietan gorena, Jesusen Pasio agurgarria... Orra begien aurrean zabaltzen zaion lana, eta lan ontan dagoela arrapatuko du eriotzak. Leenago ere, mailla arruntagoan zegoenean, urte-mordo luzea bota izan zuen Sor

Angelesek Jesusen bizitzako goraberak ausnartzen eta Jesusen amodioan ta imitazioan geroago ta barrurago zulatzen. Orain berriro dator Jesus. Baiña nolako aldea andik onera! Gauza berberak, bai, baiña era berean zein bestelakoak eta ezberdiñak ere! Jainkotasunaren egoitzan jarria dagoenak argi berritan ikusten baititu Jesusi buruzko misterioak.

XLV

AMAIAREN ASIERA

"Bizi, ni naiz bizi, baiñan ez, ez naiz ni bizi naizena, Kristo da ni baitan bizi dana..." Ala zion San Pablo Apostoluak, eta ain zuzen auxe da kristau benetazko eta guzizkoak amets duena ere: Kristo bere barnera aldatu, Kristo bizi izan dedilla beragan. Eta auxe da Sor Angelesek oraingo ontan bere baitan oartzen duen gutizia eta egarria: nola Jesus bere barnera ekarri? Eta beiñola, bere leenbiziko urratsetan ikasi zuen errege-bide ura, ura bera azaltzen zaio berriz ere: Andre Maria, alegia. Bai, Andre Mariarekin elkartasunezko bizia izatea da Jesus guganatzeko bide erosoa. Andre Mariagan bizi baita Jesus, an arkitzen baita iñun ez bezela. Bera da Jainkoaren etxea, "Domus Dei", Jainkoaren Semea bizi dan bizi-lekua, eta Andre Mariaren bitartez lortzen da obekienik Jesusen guganatze ori.

Berriz ere Sor Angelesen Jainko-bideetan Andre Maria. Eta ori, azken gaillurra jotzera dijoalarik. "Zatoz, Jesus, Maria baitan bizi zeran ori, zatoz nigana...": auxe da oraingo bere eskaria. Andre Mariak bein betiko eta guziontzat eman

zigun Jesus: orain bana-banaka eta bakoizka eman oi die arimei. Jesus norbere barnean nabaitzea, berak bizi arazten gaituela sumatzea: auxe da Sor Angelesi orain ematen zaion mesedea.

Baiña Kristoren misterioen artean, batek eramaten dio gogoa baitipat: Gurutzekoak, Pasioak, alegia. Bai, aren gloriazko misterioetan ain parte aundia izan duenari, orain atzenean Nekaldia gelditzen zaio zurrupatzeko. Ala adierazi dio Jaunak. Kalbario Mendia eta Alberna Mendia —San Frantziskoren bizitzako beste Kalbario ori—, bi mendi auek ditu orain begien aurrean. Ba-daki zurruta garratza gelditzen zaiola bere bizitzako azken egunetan irentsitzeko. Eta ori, Jesusen misteriorik gorena berritzeagatik. "Jauna, alkar nazazu Kristo oiñazetuarekin, bere neke-penetan parte izan dezadan, beraren glorian izan nuen bezelaxe..." Kristo, bezturik eta erabat utzita il zan. Ez al zuen berberak, gurutzetik zintzilika zegoela, deadar au egin: Zergatik laga nazu, Jauna? Sor Angelesek, bada, garbi ikusten du bere etorkizuna. Gorputzeko oiñazeak eta samiñak izango ditu, bai, baiña eztira aski: oien gaiñetik eta oiek baño gorriagoak gordetzen zaizkio: barneko illuntasunak, kezkak, ausiki bortitzak, eta abar.

Aldez aurretik adierazi zuen Ama Sorazuk zer-nolakoak izan bearko zuten bere azken egunak eta bere eriotza: samiñak, garratzak eta beltzak, bai gorputzeko oiñazeen aldetik eta bai barneko illuntasun eta bakartade lazgarriagatik ere. Aurretik esan zigun eta etzan oker egon: gertatuak egiztatu baitzuen bere esana.

XLVI

JAINKO BAT DAGOLAKO, EZIN IZAN OSASUNIK

Irakurleak ba-daki onezkero Aita Alfonso Dominikuarekin dirijitzen zala Sor Angeles eta Aita onek asko lagundu ziola. Gaiñera, beronen aginduz idatzi zuen Sor Angelesek Bizitza Espirituala daritzaion bere lan nagusia. Baiña 1919 urteko azken egunetan Aita au tokiz aldatu zan eta lenagotik ere ikusirik zeukan Sor Angelesek ba-zeukala beste zuzendari baten premia. Nora joko zuen? Zorionean, lengo debeku ura emateko asmatu ziran aitzakiak berez etorri ziran lurrera denporakin, esames utsak eta zerik gabeko txorakeriak ziralako, noski. Eta Valladolidko Obispo laguntzailleak —au zan Segura Kardenala— adirazi zion Sor Angelesi bere lengo zuzendariakin asi nai baldin bazuen, ba-zuela ortarako Elizaren baimena. Eta ala, 1920-ko Mayatzean berriz asi zan Aita Marianokin dirijitzen. Garai ontan Aita Mariano Bilbon bizi zan. Amabost illabeteko bizia zeukan bakar-bakarrik Ama Sorazuk, eta lenago egiten zuen bezela, karta-bidez ematen zion Aita Marianori bere arimako gauzen kontua.

1920-ko Agostuan, alaba baiño urtebete aurretik, il zan Tolosan Sor Angelesen ama, Antonia Aizpurua. Alaba moja joaten utzi zuanetik 29 urte luze pasatuak dira eta tarte guzti onetan ama-alabak etzuten geiago alkar ikusi. Noizean bein idazten zion Sor Angelesek bere amari eta auxe izaten zan beren artu-eman guzia.

Gorago ere esan genduan: Sor Angeles bera beti zebillen osasun gutxirekin, maiz arkitzen zan gaixorik, makalantzean ta abar. Aita Marianori egindako eskutitz batean dionez, berak ezin zezaken osasun onik izan, Jainko bat degula jakiñik; zergatik arima, bere indar guztiekin, Jainko-gauzetara abiatzen baita eta gorputzarekiko bere eginkizunak eztitu aintzat artzen; eta ortik omen datoz bere makalaldi ta ondoez guztiak. Orain arte, ordea, ala-olako osasunakin iraun du; baiña orain, 1920 eta 1921-an gainbeera ikaragarria egin zuen. Bere komentuko mojarik zaarrena baiño erkituago omen zegoan, naiz ta 48 urte baizik ez izan; ori bai, bizkortasunean iñori zor etziolarik. Nolanai ere eriotza urbil zegoan.

* * *

Irutasunaren bizitzan murgildua izatea beste ametsik eztu. Aitak bere Semeagan du bere poz ta atsegin guztia, eta Semeak Aitagan: bion lokarri ta Amodio bezela, Espiritu Santua dabil batetik bestera: eta auxe da Jainkozko Bizitza betierekoa. Bizitza ontan parte izatera ez al gaude ba deituak? Ez al da au izango gure beti-betiko

egitekoa ta jarduna? Asi gaitezen ba lur ontatixe biziera au ikasten. Auxe zion Sor Angelesek eta ikasgintza ontan alegintzen zan. Goitik zetorkion *zotin* bezelako batek Irutasun orrekin ar-emanetan jartzen zuan, intzirika, Jainkoaren egarri bizi bat sortzen ziolarik. Intziri orren egitez gorputzeko adoreak ondatzen eta desegiten zitzaizkion.

Ziñez, etzegoen luzaroko.

XLVII

ZERURA

Azaldu dezagun laburki nolakoak izan ziran Ama Sorazuren azken egunak eta eriotza. Beltzak eta samiñak, berberak aurretik adierazi zigun bezelaxe.

1921-ko urtea aurrera zijoan. Nola edo ala negua igaro al izan zuan, baiño Pazko Mayatzekoz (Mendekostez, alegia), gaizkitu zan oso. Oiñaze ta lanbide gogorrak jasan bear izan zituen. Azken igurtzia ere eman zioten. Ala ere, oien ondoren, obekiago jarri zan, berriz jaikitzeraiño. Orrela ibilli zan, orain obetoxeago, gero okerrago; baiña Dagonillaren 15-ean, Andre Maria egunez, ain zuzen, oeratu zan geiago ez jaikitzeko.

Bere azkeneko amairu egunetan ikusi zituen oiñazeak, esan ditezken baiño larriagoak dira. Odola ibaika aotik botatzen zuen. Dagonillaren 25-a (bera komentuan sartu zaneko eguna), bokazioagatik Jainkoari eskerrak ematen igaro zuan.

27-an miñak ikaragarri geitu ziran. Atsedenik ezin ar. Etzegoen bere penak arintzerik. Berberak

esandako itz auetatik antzeman diteke noraiñokoan izan ziran bere oiñazeak: "Oraintxe ikusten det zein bearrezkoa dan gaixoen alde erregutzea. Beti euki izan det ardura ori, baiña azken bolara ontan aaztuxea neukan, eta Jainkoak nunbait nere oitura zaarra gogoarazi nai izan dit. Nere fede eta bizitza espiritual onegatik ezpalitz, leiotik botako nuke nere burua: ain gogorrak ta eraman eziñak dira nere oiñazeak! Ezin nezake geiago sufritu."

27-tik 28-ra bitarteko gaua izan zan bere azken gaua. Kanpaiak Maitiñetarako jo zuanean, lagun egiten zion mojari galdetu zion: "Zein Santu degu biar?" "San Agustin", erantzun zion onek. Eta orduan itz batzuk esan omen zizkion *euskeraz* Santu oni. Zaitzen zegoan moja ura etzan euskalduna eta eztaki zer eskatu zezaioken San Agustiñi: zerura eraman zezala edo... Gau lazgarria. Ura zan ito-bearra, lertu-bearra, betiere odola botatzen.

Goizeko seiretan "lertu naiz" esan, eta hemorragia ikaragarri batekin il zan. 1921-ko Dagonillak 28 garrena zuen.

Bere azken gaixo artan Aita Mariano aldamenean izan balu bederen, gaitza apur bat arinduko zion edo beintzat konsolazio zerbait ekarri izango zion. Baiño ezta. Urruti zebillen, Erromara joana baitzan, bere Ordenako Batzarre Nagusira.

Sor Angelesen illobian arri zuri bat jarri zan, Zumaya eta Tolosako bere erritarren laguntzarekin erosia, oroigarrizko itz batzuekin.

XLVIII

SOR ANGELESEN ESKOLA: OTOITZA

Ama Sorazuren bizitzari gain-begiratu bat eman diogu. Arimako bere bideak, aundizka bada ere, azaldu dira. Eta orain, bukatzerakoan, ondo etorriko zaigu, noski. bizitza onen muiña bezela diran puntu nagusi batzuek adieraztea. Bai, ainbeste gauza arrigarrien artean on eta bearreko ere ba-da bizitza onen abeak eta sustraiak agirian jartzea. Oiek izango dira, gaiñera, bizitza onek guztiontzat eskeintzen dizkigun jarraibide eta ikaskizun aundiak.

Eta ona emen leenbizikoa: Otoitzaren bearra ta balioa. Sorazuren bizitza, erabat otoitzari ta Jainkoari emana degu. Guztiok dakigu gutxi gorabera zer dan otoitza: Jainkoarekin itz egite bat, ez geiago eta ez gutxiago. Eta ain zuzen, orixe zan Sor Angelesen otoitz-modua. Arentzat Jaungoikoa, Jesus eta Maria etziran urrutiko persona arrotzak, or, laiño-tartean ezkutaturik eta gugandik urruti egon ditezken zer batzuek. Fedeak erakusten dizkigun egiak oiñarritzat arturik, goiko mundu au bizi-bizirik zegoan bere ariman, zentzunetako mundua baiño biziago, noski. Eta ala,

Jainkoaren aurrean bere barnea zabal-zabal egin eta ixuri oi zuan, Aita ta adiskide batekin solasean balego bezela. Berberak esaten digu iñoiz irakurri zituela libruetan otoitz egiteko erreglak, baita ere jarri zala oiek betetzera, baiña etzuela deus onik egin, burua nekatu baizik. Ziñez, bere Aitarekin itzegiteko etzuen ikasbide-bearrik. Onek eztu esan nai, jakiña, ikasbide oiek, bere neurrian, besteontzat lagungarri izan ez ditezkenik.

Onako beste au ere Sorazu berak esana da, alegia: arima asko dirala, baita jainkozko bizimodua aukeratu dutenen artean ere, kanpo aldeko alderdia txintxo zaitzen dutenak, baiño gero Jainkoarekiko ar-emanetan motx, agor eta antzu agertzen zaizkigunak. Dotoreri ta itxura asko kanpotik, barneko muiña ustel. Kutxa polita, eta barnean uts. Bizitza espiritualaren muiña, ordea, otoitza izan. Jainkoarekin itzegite au da zimentarria. Onako au dakianak ba-du or indarra bere bizitza erabat aldatu eta berritzeko. Azi onetatik etorriko dira gaiñerakoak, eta au gabe sustrai gabeko arbola litzake, oiñarri gabeko etxea.

Gaurko idazle batek dionez, otoitza baiño bearragorik eztago gizonarentzat. Eta otoitza esatean, Jainkoarekin jatorki izketan egitea esan nai degu. Meza santua, sakramentuak eta liturgia bera ere baiño bearragoa. Meza eta sakramentuak, prestutasun-aldetik, mailla altuagoan jartzekoak dira, noski, baiño norberak Jainkoarekin zuzen -zuzenean otoitz egitea, ori bearrago. Balio ta prestutasun geiago dauka urreak, burniak baiño; baiño burnia bearrago zaigu, alere. Prestuago ta

baliotsuago ardoa, ura baño; baiño ura bearrago. Ardorik gabe bizi diteke, urik gabe ez, iñolaere. Ba emen ere berdin. Gerta diteke —eta gure egunetan maiz gertatu izan dira olakoak— kristau bat apaizik gabe, elizkizunik gabe, sakramenturik gabe arkitzea, baiño otoitz egiten baldin badaki, eztio ajolik. Estuasun gorri guztien artean gaillen irtengo da. Otoitza, gizonak duen eskubiderik aundiena! Kreatura kaxkar onek Jainkoarekin itzegin al izatea! Auxe da gure on guztien asiera eta iturri, eta auxe da orobat Sorazuren bizitzak ematen digun ikastekorik jatorrena.

Baiña nola ikasi Jainkoarekin itzegiten? Itzegiñaz, saiatuz, jardunaz, jakiña, gauza guztiak ikasten diran bezelaxe. Otoitzak ba-du alako arpegi iguingarria gizon lurkoiarentzat, gibelatzen eta nazka ere ematen digun itxura gordiña. Gaiñeko azal gogor ori puskatu ezkerokoan, ordea, mamirik gozoena du, Sorazuk berak dionez. Otoitzak ematen digu lur ontan zerua, gizonak amets lezaken Parabisurik zoragarriena.

XLIX

SOR ANGELESEN ESKOLA: JESUS ETA MARIAGANAKO JAYERA

Onako iru auek esango nuke dirala Sor Angelesen zeru-bideko armaillak: Andre Maria, Jesus, Jainkoa. Andre Maria degu Jesusgana joateko bide erosoa; eta Jainkoagana irixteko, Jesus, Jainkoaren Seme gizon egindakoa. Labur, Jesus eta bere Ama ditugu gure eredu, ispillu, bide, egia ta bizia, gure biotzeko errege-erregiñak. Oiengana bitez gure yoran eta asmo guztiak.

Jesus ezagutu, Jesus maitatu, Jesus imitatu, Jesus biotzean ekarri eta obretan azaldu: orra gure egiteko nagusia. Orra santutasunaren mamia. Jainkoak bere Semea eman zigunean, eman zezaken ondasunik aundiena eman zigun. "Auxe det nere Seme maitea: beroni jarraitu zakizkiote". Ala esan zigun Berak: or degu, bada, gure on guztia. Aundiagorik edo obeagorik izan litekenik pentsatzea ere, Jainkoari bidegabe egitea litzake. Ama Sorazuren bizitzan parterik geiena eta buruena dauka, ikusi degunez, Jesusganako eta

beronen bizitzako misterioenganako debozioak. Baiña Jesusen bidetik ibiltze orrek eztu esan nai bakarrik Jesusen bizitzako pausu santuak ausnartu eta gogoan ekarri bear ditugunik; baita ere esan nai du Berak jarritako legeak eta aginduak zeatz eta zintzo asko bete bear dirala. Txiki-txikitatik ageri du Sorazuk Kristau Ikasbiderako joera berezi bat; eta gero ere, moja sartutakoan, liburutxo ontan ikusten zuan bere zeruko Esposuaren erretraturik jatorrena. Ba-daki Sorazuk eztagoela santutasunik Jainkoak edo beronen ordezkoak jarritako legeak arretaz gorde gabe.

* * *

Eta Jesusen atari bezela, edo Jesusgana urbiltzeko errege-bide bezela, Andre Maria. Bai, berak ekarri zigun Jesus mundura, eta berberak eman oi digu orain ere barne-bide ontan. Gaiñera Jesus eta Mariak bat baizik eztute osatzen Jainkoaren asmoetan: Jainkoaren Semea eta Jainkoaren Ama, alegia, biak batera izan ziran amestuak eta nai izanak zeruko Aitaren gogoan. Eta gu guztiok, bi izaki bedeinkatu oiei jarraituz eta leial egonaz, iritxi dezakegu gure xedea, Zeruak izendatu zigun mailla ta aulkia. Sor Angelesen bizitzan garbi ageri da nola Andre Mariarekin elkartasunezko bizia izan zan bere Jainko-bidearen asiera ta leen-mailla. Eta ez asiera bakarrik: gero ere, eta beti, ezin utzia izan zuen Ama Birjiña.

Sor Angeles berak esan zigun bein zein dan bere bizitzatik eta bere liburuetatik ateratzen dan

ikaste nagusia. Ona emen bere itzak: "Bizitza espiritualaren benetazko eskola zabaldu, onako au erakutsiz, alegia: Kristoren imitazioa ta amodioa dala Jainkoarekin elkartzeko bide bakarra; eta bide ortan Andre Mariaren benetazko debozioak sartzen gaituela."

L

SOR ANGELESEN ESKOLA: ELIZARI LEIAL

Barne-bizitza onek ba-ditu bere istilluak, eta bai arriskuak ere. Batez ere iñor, bere irudimenak eta ametsak egiatzat arturik, okerreko bidetik abiatzen bada. Eta arrisku oietatik gure burua begiratzeko, bide bat eta bakarra degu: bakarrik ez ibiltzea, Elizaren eskutik joatea. Ain zuzen ere, Jesukristok jarria degu Eliza, bere lekuan eta bere izenean erakutsi, gidatu ta eraman gaitzan. Eta apaiza, Elizaren ministroa eta Kristoren ordezkoa, da arimen aita, zuzendari eta gidaria. Barne-bizitzako bideak ibilli nai dituenak eta bere amets txoroen osiñean erori gabe zuzen eta leiatsu, beti gora igo nai duenak, Elizaren ordezkari baten bearra du, zuzendari, aita, gidari, maisu ta arimako bizitzaren testigu bezela izan dedin.

Sor Angelesek —ikusi degunez—, izuti zalako eta bere barneko gauzak iñori zabaltzea zail egiten zitzaiolako, luzaroan egon zan zuzendari gabe, baiña azkenean zeruaren agindu zorrotz baten indarrez etorri zan Jaunaren nai ori betetzera.

Eta orduezkero direzio espirituala gauzarik bearrenetakoa bezela azaltzen zaigu bere bizitzan.

Kristau zintzoak federik biziena du Elizaren alderako. Eliza izan ere —ez Eliza izkutu ori bakarrik, agerikoa ere bai, eta au batez ere— Kristoren luzapen eta osagarri bat bezela emana izan zaigu; eta Eliza-gizonak, beren akats eta guzti, arimai zeru-bidean laguntzeko jarriak dira. Eta auxe da Sorazuren bizitzan ederki ikusten deguna.

Gaiñerakoan, ba-da Sorazuren bizitzan makiña bat gauza arrigarri, eta esan bearrik eztago orrelakoak eztirala egunero eta arima guztietan gertatzen; bearrezko ere eztira, egiazko kristautasunera irixteko. Ortan, jakiña, Jainkoak bakar-bakarrik du esku, eta Berak eramaten ditu arimak nai duen bidetik. Naiz fedearen bide arrunt eta jakiñetik joan, naiz beste arrigarri eta autatu ortatik, danok ditugu, ordea, eginbide berdiñak eta Jainkoaren graziari erantzun-bear estua. Otoitza, Jesus eta Mariaganako debozio berezia, Jainkoaren aginduak zintzo betetzeko ardura eta Kristoren ordez dagoan Elizaganako itzala eta menpetasuna: oiek danontzat dira, eta ain zuzen, oiek dira Sorazuren bizitzatik danok jaso bear ditugun ikasbide nagusiak.

Bere kabuz edo bere aldetik Sorazuk beti nai izan zuen bide arrunt eta apaletik ibilli, etzituen gauza arrigarri eta nabarmenak desiatu ta ez nai: ori ere garbi agiri da bere bizitzan. Jainkoak berak sartu zuen bide ortan, eta ori bere eskuan dagoan gauza da. Zergatik egiten duen ola arima

bakan batzuekin? Eztakigu, gu ez gera iñor esateko. Fedeak erakusten digun bezela, Jainkoa Amodio utsa da: beraz, amodiozko mirari oiek egitea ezta batere arritzekoa. Arima oietan, bada, orren arrigarri agiri zaigun Jainkoa adora eta maita dezagun, gure garra berretuaz. Auxe izan bedi Plorentxiren istorio unkigarri onek uzten digun azkena.

AMA SORAZUREN BIZITZAKO URTE-MUGA NAGUSIAK

1873, Otsaillaren 22-an. Zumayan jayo.

1879. Fameliya Donostiara dijoa bizitzera.

1883. Tolosara aldatzen dira.

1888. Plorentxi mundutar eta dantza-zalea.

1889, Uztaillak 3. Erabat Jainkoagana biurtzen da.

1891, Dagonillak 25. Moja sartzen da Valladolid-en.

1893, Dagonillak 15. Bigarren konbersioa.

1894, Agorrak 25. Jainkoak mesederik arrigarrienetako bat egiten dio.

1895, Agorrak 11. Komunidade guztia beste komentu batera aldatzen da.

1898, Garagarrillak 22. Lengo komentura itzultzen dira.

1903, Abenduak 10. Jainkoak bere aserrea agertzen dio, arimako Zuzendari bat artzen eztualako.

1904-ko Ilbeltzean. Ozerin-Jauregi Aitarekin asten da (Igo. Zuzendaria).

1904, Otsaillak 21. Abadesa izendatzen dute. Kargu onetan il arte irauten du.

1905, Garagarrillak 23. Hospital Jaun apaizarekin asten da (IIgn. Zuzendaria).

1907, Garagarrillean. Lau urteko garbialdi luzean sartzen da.

1910, Uztaillean. Aita Marianorekin asten da (IIIgn. Zuzendaria).

1911, Garagarrillak 10. Irutasun Santua bere arimara jeixten da. Biziera berria.

1913, Urrillean. Bere arimako Aita kentzen diote.

1915, Uztaillean. Aita Narzisorekin asten da (IVgn. Zuzendaria). Bere kontenplazioa aro berri batean sartzen da.

1917, Urrillean. Aita Alfonsorekin asten da (Vgn. Zuzendaria).

1920, Mayatzak 7. Aita Marianok berriro artzen du bere-arimaren ardura.

1921, Dagonillak 28. Eriotza.

AMA SORAZUREN BERRI JAKITEKO ITURBURU BATZUEK

I

Ama Sorazuk makiña bat gauza utzi du idatzirik. Bere idazki oietan Jainkoazko ar-emanetan gertatu zaizkionak kontatzen ditu edo beintzat ar-eman oien aztarnak ta arrastoak agiri dira. Ona emen bere liburuen izenak. Denak, egillea il ezkero agertuak.

1. "La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo", Valladolid, 1924. Nazario Pérez jesuitaren ardurapean azaldu zan. Bere izenik salatu gabe ta ezkutu-antzean, baiña bere arimak Jainko-bidean ikusi ta pasatu dituen gora-berak kontatzen ditu. Bigarren edizioa oraintsu azaldu da Madrid-en (1956 gnean.).

2. "Vida de la R. M. Angeles Sorazu. Primera parte o Autobiografía", Valladolid, 1929. Au ere Aita Nazario Pérez-en ardurapean argitara zan. Liburu ontan Sorazuk bere bizitza kontatzen du, batez ere arimako gauzetan. Bukatu gabe gelditu zan; azkeneko amar urteak falta ditu. Bestela aparta ederra da.

3. Ama Sorazuk bere arimako Zuzendari jatorrari —Aita Mariano Kaputxinoari— egindako eskutitzak iru liburutan azaldu dira, izen onekin: "Itinerario Místico de la M. Angeles Sorazu. 1.ª Parte, Madrid, 1942; 2.ª Parte, Madrid, 1952; 3.ª Parte, Madrid, 1958." Pobladurako Aita Meltxor Kaputxinoaren ardurapean atera dira.

4. "Opúsculos Marianos". Aita Nazario Pérez-en ardurapean; Valladolid, 1929.

5. "Exposición de varios pasajes de la Sagrada Escritura", Salamanca, 1926.

Azkeneko au ez, beste guztiak salgai daude Madridko Aita Kaputxinoen etxe onetan: Centro de Propaganda, Cervantes 40, Madrid.

II

1. 1936 urtean frantsesez atera zan liburu bat:

De Buck, S. J., Révérende Mère Angelès Sorazu, Conceptioniste; París, Desclée De Brouwer.

2. 1941-an, berriz, onako beste au erderaz:

Pobladura (Fr. Melchor, O.F.M. Cap.:, Una Flor siempre viva. Sor María de los Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana a la luz de su correspondencia epistolar; Madrid.

3. Orain amar urte, erderaz atera nuen Zumayako alaba oni buruz estudio bat, bi tomotan. Bertan arkitu ditzake, nai duenak, emen diran

baiño garbitasun ta xehetasun ugariagoak. Ona emen obra onen izena:

—Villasante (Luis, O.F.M.), "La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida." 2 vol. 1950-1951. Santuario de Aránzazu, Oñate (Guipúzcoa).—Salgai dago Arantzazun.

Otoitza Jaungoikoari

bere mirabe Angeles Sorazuren bitartez

Angeles Sorazuren ariman ainbeste grazia eta doai ixuri zenituan Jaungoikoa ! Emaidazu, arren, zure mirabe aundi onen bitartez gaur eskatzen dizudan eskaria. *(Iritxi nai dan grazia aitatu bedi emen)*. Berak erakutsi zigun egiazko debozioaren bidea, bai Jesusen aldera eta bai Andre Mariaganako ere. Egizu, bada, bere erakutsi santuetatik nola bizi ikasi dezagun eta azkenean berarekin batean zure arpegi ederra zeruan ikustera eldu gaitezen. Jesukristo gure Jaunarengatik. Amen.

Aitagurea, Agur Maria eta Gloria.

ARKIBIDEA

Orrialdea

Itzaurrea 5
I.—Zumayan 10
II.—Donostian 12
III.—Tolosan 15
IV.—Erromeria Leaburun 18
V.—Jaungoikoaren ordua 21
VI.—Konbersio-ondoko bizitza 24
VII.—Otoizbidean sartua 27
VIII.—Tolosako azken urtea 30
IX.—Komentuan sartzea. Nobiziaduko urtea 33
X.—«Ama Birjiña, nere etxeko giltzarri» 36
XI.—Bigarren konbersioa 39
XII.—Lixiba 42
XIII.—Jainkoa lo 45
XIV.—Ama Birjiñaren eskolan 48
XV. Jainkoa guraso 51
XVI.—Gau illunaren amaia 54
XVII.—«Jainkoa nola eman zitzaidan» 57
XVIII.—«Nere biziera, Joinkoarekin elkartu ezkero» 61
XIX.—Beeragoko maillan 65
XX.—Etxe-aldatzea 68
XXI—Izadiaren mintzaera 71
XXII.—Ebanjelio santuakin txoratua 74
XXIII.—Lore zaintzan 77
XXIV.—Jainkoaren bildurra ezin ikasiz 80

XXV.—Aitaren eriotza 83
XXTI.—XIX garren mendeari azken agurra 86
XXVII.—Anaiaren eriotza 89
XXVIII.—Aingeruekin ar emanetan 92
XXIX.—«Otoitzerako nola prestatzen nintzan»... 94
XXX.—Arimako Aita Zuzendari bat artzen eztualako, Jainkoa aserre 97
XXXI.—Abadesaren jostaketa 100
XXXII.—«Jainkoak eskatzen didan gauza nagusia eta bakarra 102
XXXIII.—Ama Birjiña ezin utzi 105
XXXIV.—Sor Angelesen gaitzaldiak 107
XXXV.—Iru urte, semiñetan 110
XXXVI.—Jainkoaren zoriontasunean murgil 113
XXXVII.—Zalantza utsa 116
XXXVIII.—Lixiba bearra 119
XXXIX.—Biziera berria 122
XL.—Jainkoaren «tasunekin» jolasean..... 125
XLI.—Idazlari 128
XLII.—Marrazkilari 130
XLIII.—Bere Aita kentzen diote 133
XLIV.—«Idiki zadan atea, arreba» 135
XLV.—Amaiaren asiera 138
XLVI.—Jainko bat dagolako, ezin izan osasunik.. 140
XLVII.—Zerura 143
XLVIII.—Sor Angelesen eskola: Otoitza 145
XLIX.—Sor Angelesen eskola: Jesus eta Mariaganako jayera 148
L.—Sor Angelesen eskola: Elizari leial 151
Ama Sorazuren bizitzako urte-muga nagusiak 154
Ama Sorazuren berri jakiteko iturburu batzuek..... 156
Otoitza Jaungoikoari bere mirabe Angeles Sorazuren bitartez 159